



mutualia

MEMORIA

Iraunkortasuna 2025

1900-2025



URTE - AÑOS

Mutualiaren 2025ko urteko memoria

Txosten hau egiteko, Mutualiako arlo guztiek hartu dute parte, Komunikazio Zuzendaritzak koordinatuta, eta produkzio-baliabideak eta berezko baliabideak erabili dira bakarrik.

Memoria hau online bistaratzeko diseinatu da bereziki, eta, ingurumen-arrazoiak direla eta, ez dugu inprimatzea gomendatzen. Era berean, txosten hau eskuragarri dago gure webgunean, PDF formatuan, irisgarritasun-irizpideetara egokituta.

Harremanetarako:

Mutualia, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2 zk.ko mutua

Egoitza operatiboa:

Henao kalea, 26

48009 Bilbo

94 4252500

www.mutualia.eus

Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan helbide elektroniko honen bidez: dircom@mutualia.es

Memoria honen hainbat eremutatik zuzenean sar daiteke GRI taulara, kasu bakoitzari dagozkion adierazleak ikusteko. Erreferentzia horiek orrialdeen behealdean daude, ezkerrean, eta saguaren gezia sakatzuz nabigatzen da. Hasierako orrira itzul gaitezke, GRI taulan agertzen den orrialdearen zenbakia sakatuta.



Aurkibidea

01	Adierazpen korporatiboa	4
	Presidentearen gutuna	5
	Zuzendari kudeatzailearen gutuna	7
	Nazio Batuen gutuna	9
	Memoria honetaz eta berorren irismenaz	10
	Memoria prestatzeko printzipioak	11
02	Gobernuko eta Partaidetzako organoak	12
	Organigrama orokorra	13
	Batzar Orokorra	14
	Zuzendaritza Batzordea	15
	Batzorde betearazlea	15
	Beste batzorde batzuk	16
	Zuzendari kudeatzailea	16
	Kontrol eta Jarraipen Batzordea	17
	Prestazio Berezien Batzordea	17
	Zuzendaritza Batzordea	18
	Kudeaketaren Jarraipena	18
03	Nor gara?	19
	Erakundearen profila	20
	Kultura korporatiboa	21
	Non gaude?	22
	Rama Korporazioa	23
	Kudeaketa-ereduan mugarri izan diren zenbait gertaera	24
	Ziurtagiriak, sariak eta aintzatespenak	25
	Nazio Batuen Itunarekin bat egitea	26
	Interes-taldeen konpromisoa eta parte-hartzea	27
	Materialtasunaren azterketa	29
	2021-25 Plan Estrategikoa	30
04	Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa	31
	Arriskuen kudeaketa integrala	32
	Kode Etikoa, Arrisku Penalen Prebenziorako Plana eta Politika	34
	Informazioaren segurtasuna eta datuen babesa	35
	Finantza-inbertsioen jokabide-kodea	37
	Kudeaketa ekonomikoaren adierazleak	38
	Baliabideen kudeaketa	41
	Ingurumen-kudeaketa	43
	Mutualiako langileek gizartearekin duten inplikazioa	46
	Gizarteari itzulitako balioaren monetizazioa	47
	Interes-taldeekiko komunikazioa	49
05	Pertsonen konpromisoa indartzea	50
	Pertsonak	51
	Barneko komunikazioa	58
06	Berrikuntza zerbitzuetan	59
	Babestutako pertsonak	60
	Osasun-jarduera	61
	Osasun-kudeaketa	64
	Osasun-administrazioa	66
	Prestazio ekonomikoak	68
	Laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak	70
	Prebentzioko jarduerak	72
	Bezero bakoitzaren tipologiara egokitutako zerbitzuak	74
	Eraldaketa digitala	75
07	Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea	77
	Prestazio bereziak	78
	Eraikinak eta instalazioak	80
	Asistentziaren kalitatea eta pazienteen segurtasuna	81
	Bezeroen Defentsa Erakundea	83
	Gogobetetze-indizeak	84
08	GRI - Global Reporting Initiative	85
09	Urteko kontuak eta finantza-analisia	98
10	Eranskinak	115
	2025ko legegintza-berritasunak eta arau-esparrua	116
	Glosarioa	123

Adierazpen korporatiboa

Presidentearen gutuna

HARRO ESAN DEZAKET MUTUALIAN LAN EGITEN DUTEN PERTSONEN INPLIKAZIOA IZAN DUDALA LEHENDAKARI IZAN NAIZEN 25 URTE BAINO GEHIAGOAN. PROFESIONALITASUN ETA ESPERIENTZIA HANDIKO TALDEA DA, ETA SEGURTASUNA HELARAZTEN DIO XEDE HAIN GARRANTZITSUA ETA KONPLEXUA DUEN ANTOLAKUNDE BATEKO BURU IZAN BEHAR DUENARI.



Urtsa Errazti
Presidentea

Mutualista estimatuok:

Memoria hau, 2025eko ekitaldiari dagokiona, oso berezia da niretzat, zuen aurrean kontuak eman eta aurkeztuko ditudan azken aldia baita. 25 urte baino zertxobait gehiago igaro dira hautatutako lehendakaria izatearen ohorea dudanetik; hasieran Mutua Vizcaya Industrialekoa eta, bat-egitea eta gero, Mutualiakoa.

Benetan harro nago erabateko kalitatean oinarritutako kudeaketaren eta horrek dakarren guztiaren sustatzailea izateaz, eta bihotzez eskertu nahi ditut hau posible egin duten mutuako pertsona guztiak.

Azken 25 urteotan erronkarik zailena, deserosoena, baita larrigarriena ere, aldi baterako ezintasunagatik absentzien gorakada izan da. Nago agente inplikatu guztiak konponbideen bila ari garela, eta ez soilik bila, horiek abian jartzeko lanean ere ari garela. Baliteke testuingurua urtetik urtera okertzea, eta hori izatea emaitza positiborik ez ikustearen zergatia. Aurten, berriz, aurreko urteetan baino baikorragoa naiz. Mutualiak enpresa-absentziak kudeatzeko estrategia bat garatu du, eta atsegin dut. Eta atsegin dut, Mutualian absentziak kudeatzeko gidaz gain, gidari berari laguntzen dion tresna informatikoa ere. Eta are gehiago atsegin dut Mutualiaren estrategia; alegia, uztea. Izan ere, gidak eta tresnak enpresen kudeaketa, langileen gogobetetzea eta, azken finean, gizartea ere hobetzen lagunduko dute. Mutualiak

1. Adierazpen korporatiboa

estrategia horren bidez egiten dio ekarpena gizarteari, helburu honekin: pertsonen osasun, segurtasun eta ongizaterako eskubidea bermatzea, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean arituta.

Horrekin guztiarekin, joan aurretik, beste behin aldarrikatu nahi dut kontingentzia arruntek eragindako aldi baterako ezintasunen prestazio ekonomikoen kudeaketak finantzaketa osoa eta nahikoa izan dezala. Ez da logikoa finantzaketa horren defizita, zeina Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzaren erabaki diskrezionala baita, agian arbitrarioa ere bai, enpresa elkartuek ordaindutako kontingentzia profesionalengatik kuoten kargura finantzatu behar izatea. Izan ere, haietako gehienek ez dute defizit hori sortu, eta mutuak ez du kudeatzeko benetako ahalmenik. Ez bada estaltzen nahitaezko erreserbazukidura, hala kontingentzia arruntetan nola kontingentzia profesionaletan, sektorea kaudimengabezia-arriskuan egongo da, eta Gizarte Segurantzarekin kudeaketan elkarlanean aritzeko eredu desagertzeko oinarriak jarriko dira.

Ez dut ezer berririk esaten gogora ekartzen badut Euskal Autonomia Erkidegoa ia beti dela langileko baja-egun gehien dituen autonomia-erkidegoetako bat, eta arrazoiak betikoak direla: Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-egoera orokorra; ongizate-maila altuagoa; langileen adina; enpresen tamaina; industria- eta zerbitzu-sektoreen garrantzia gainerakoekiko, edota

sektore publikoarena sektore pribatuarekiko; aldi baterako ezintasuna hartuta soldataren % 100 bermatzen duen hitzarmena duten enpresetako langileen ehunekoa eta abar. Iaz esan nuen Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuak esku artean zuen azterlanean konfiantza nuela, denbora behar zuela, erabaki efizienteak hartzeko oinarria bihur liteke eta. Aurten, gaineratu behar dut Eusko Jaurlaritzak laneko bajei buruzko azterlan bat lizitatu duela, baina oraindik ez dakigu zeintzuk diren parametroak, ezaugarriak, helburuak...

Eta berriro ere azpimarratu nahi dut, aurten azkenengo aldiz, langile sanitarioen urritasuna. Ez dago erantzun errazik ez azkarrik, baina asko lagunduko luke mutueta langile sanitarioen soldata eta osasun-zerbitzu publikokoak parekatzea, kontuan hartuta autonomia-erkidego bakoitzeko soldata-maila ezberdinak.

Alde positiboena bukaerarako utzi nahi dut. 2026. urtean 2030erainoko plan estrategiko berria hasi genuen. Plan estrategiko horrek aurrekoari jarraitzen dio, baina zuzendari kudeatzaile berri batek gidatuta: Lourdes Gondra. Berarengan erabateko konfiantza dugu Zuzendaritza Batzordeak eta nik neuk, eta, gainera, hari lagunduko dio Ignacio Lekunberri zuzendari kudeatzaile ohiak, harik eta erretiratzen den arte. Lan-ibilbidea mutuan egin duten bi pertsonaren arteko errelebo naturala da izan. Mutuak plan estrategikoak betetzen ditu urtez urte, eta aurreko urteetan

bezala, gure zerbitzuak eskaintzen dizkiegun enpresen eta langileen gogobetetze-maila bikainera hurbiltzen da, eta, zenbaitetan, bikaina ere bada.

Hilabete gutxi geratzen dira 2021-2025 plan estrategikoa bukatzeko, baina oraindik ere hainbat erronka eta proiektu dauzkagu egiteke. Pasa den urtean esan bezala, horiek lortzeko asmo irmoa dugu.

Mutualiak 125 urte bete zituen iazko martxoan. Ohore bat da Estatuko lehenengo mutua La Previsora izan zela esatea, Mutualia sortzeko bat-egitean parte hartu zuen mutueta bat, eta Seguros Mutuos de Vizcaya, segur aski, bigarrena izan zela, hilabete geroago sortu baitzen. Horrek EAEko enpresaburuengatik oso ondo esaten du, erantzukizunez eta azkar erantzuten jakin izan zutelako industria-iraultzak eragindako gizarte-eraldaketek langileei eta haien familiei ekarritako kalteberatasun-egoeren aurrean.

Izan ere, harro esan dezaket Mutualian lan egiten duten pertsonen inplikazioa izan dudala lehendakari izan naizen 25 urte baino gehiagoan. Profesionaltasun eta esperientzia handiko taldea da, eta segurtasuna helarazten dio xede hain garrantzitsua eta konplexua duen antolakunde bateko buru izan behar duenari. Talde horri zuzendu nahi dizkiot nire azken hitzak, eta gizarte hobeagoa lortzeko lan egiten jarraitzea animatzen ditut.

Urtza Errazti Olartecoechea
Presidente

Zuzendari kudeatzailearen gutuna

2025EAN 2021-25 PLAN ESTRATEGIKOA AMAITU DUGU, ETA DUELA 5 URTE PROPOSATUTAKO JARDUKETA ETA MUGARRI GEHIENAK BETE DITUGU, NAHIZ ETA USTEKABEKO EGOEREI AURRE EGIN, HALA NOLA PANDEMIA BATI EDOTA KONTINGENTZIA ARRUNTEK ERAGINDAKO ALDI BATERAKO EZINTASUNEN GORAKADARI.



Lourdes Gondra
Zuzendari kudeatzailea

Mutualista estimatuok:

Balio dezala 2025eko ekitaldiko memoria aurkezteko gutun honek neure burua ere aurkezteko; Mutualiako zuzendari kudeatzaile berria naiz. Ekitaldi honetan egindakoaren kontu emango dugu, baita 2021-2025 Plan estrategikoaren betetze-mailaren kontu eman ere, interes-taldeen aurrean kontuak emateko betebeharrak legala eta morala du eta Mutualiak. Eta kontu ematen dugu interes-talde ezagunen interes legítimoari erantzun nahi diogulako materialtasun-inkesta baten bidez, memoria honetan ere ikusgai dagoena.

Interes-talde horiek plan estrategikoaren diseinuan parte hartu zuten, eta 2026-2030 Plan estrategiko berrian ere parte hartu dute. Hortaz, aurreratu dezaket plangintza behar bezala bete dugula. Zehazki, duela 5 urte proposatutako jarduketaren eta mugarren % 88 baino gehiago bete ditugu. Hain zuzen ere, ingurunea oso aldakorra dela eta epe laburreko planak besterik ezin direla egin esaten den honetan, guk, konbentzita gaudenez epe luzera pentsatu eta epe laburrera berrikusi behar dela, frogatu dugu estrategia hori estrategia ona dela. Zalantzarik gabe, horrek guztiak animatzen gaitu hurrengo planean anbiziotsuak izatera eta orain arte bezala lan egitera, hau da, gure balioekiko leial.

2024. urteko memorian esaten genuen urrats bakarra falta zitzaigula; alegia, Eusko Jaurlaritzak Euskaliten bidez sustatzen duen kudeaketa aurreratu ere duak aitortzea zezala gure berrikuntza-

1. Adierazpen korporatiboa

kudeaketa, aintzatespen horiek kudeaketa-eredu hori osatzen duten elementu guztietan lortzeko. Gaur, urrats hori egin dugula eta ereduaren elementu guztien kudeaketa “ziurtatu” dugula ospatu dezakegu. Somorrostro Prestakuntza Zentroarekin batera, Mutualia da elementu guztietan aitorpena jaso duen lehenengo antolakundea.

Hain zuzen ere, berrikuntzaren alorrean ari gara lanean gehien, eta Europako proiektuetan parte hartzen jarraitzen dugu, ez baitugu hartu nahi erabakirik oinarririk gabe. Argi dugu AA kudeaketan ezarri behar dugula, eta gure heldutasunaren arabera egingo dugu. Abiapuntua eta egin beharreko urratsak aztertuko ditugu, segurtasuna eta gure Kode Etikorekin arabera jokabidea bermatzeko, teknologia berri honek eskaintzen dituen aukerei uko egin gabe. Izan ere, AAren erabilera-eta gobernanta-prozedura onartu dugu jada, Mutualiako pertsonen arrakala digitala aztertu dugu eta datuaren gobernatzaren proiektua hasi dugu. Horrek eta ISO 27001 eta Segurtasunaren Eskema Nazionalaren ziurtagiriek abiapuntu ezin hobean kokatzen gaituzte.

Oso harro sentiarazten gaituen proiektuetako bat da absentzien kudeaketarena. Enpresa elkartuetan ezartzen den proiektua da. Absentziak kudeatzeko eredu jakin bat proposatzen dugu, tresna informatiko batez lagundua, haien jarraipena eta kudeaketa errazteko. Proiektu arrakastatsua dela baieztatu dezaket; izan ere, oraindik orain ibilbide laburra izan arren, proiektua ezarri duten enpresak emaitza oso onak lortzen ari dira. Mutualia bera da horren adibide, proiektua ezarri eta lehenengo sei hilabeteetara absentziak % 20 inguru jaitsi baitira. Ezartzeko interesa duen edozein enpresaren edo antolakunderen esku jarri dugu proiektua, gizarteari balio-ekarpen handia egiten diogula ziur gaudelako.

Ekitaldi honetan ere gizarte-legitimazioa handitzen jarraitzeko lan egin dugu; ziurtagiriak eta

aintzatespenak lortu ditugu euskararen erabilera, GJHetan eta osasun-arloaren humanizazioan, eta bezeroen eta pertsonen askotarikotasunera egokitutako zerbitzuak eskaintzearen aldeko apustua irmoa da, eta, ondorioz, askotarikotasuneko elementu berrietan lan egin dugu.

Ez gara ahaztu efizientziaren hobekuntzarekin, egin ditugun ekintzetako askok teknologia berriak baitauzkate txertatuta, hala nola prozeduren eta zerbitzuen robotizazioa eta digitalizazioa.

Memoria irakurtzean oharkabea pasatu daitekeen datu bat aipatu nahi dut: Mutualiak irabazien % 69,14 erabiltzaileen prestazio ekonomikoetara bideratzen ditu; % 18,72 Gizarte Segurantzaren zerbitzu erkideak mantentzera eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin egin beharreko berrasegurura; eta % 12,14 Mutualiako zerbitzuen funtzionamendura, pertsonalaren kostua barne. Hortaz, kudeaketaren emaitza zero da, Ministerioak finantzaketa gehigarri bat ordaintzen duelako hala izan dadin. Finantzaketa gehigarri horren beharraren zergatia da kontingentzia arrunten kudeaketa ekonomikorako finantzaketa ez dela nahikoa mutua guztientzat. Nolanahi ere, emaitza positiboa izanez gero, mutuaren erreserbetara bideratuko litzateke, gehienez, araudian ezarritako ehunekoa, eta soberakina, berriz, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusira.

Bestalde, lan egiteko antolakunde bikain gisa aitortua izatea helburu exigentea da, eta erabat dator bat Mutualiak bere langileei ematen dien balioarekin. Elkarlanean diharduten mutuetako pertsonen kudeaketaren zati handi bat, ordea, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren zuzendaritzapean eta ikuskaritzapean egiten da, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak onartu beharreko soldata-masaren baldintzatzaileekin. Inguruabar horrek nabarmen mugatu du jarduteko gaitasuna langileentzat sentikorrenak

diren eremuetako batzuetan. Hala ere, Mutualiak irmo eusten dio hobetzeko tartea dagoen arloetan aurrera egin nahiari. Esparru horretan, lan-egonkortasuna indartzen jarraitu da, barneko parte-hartzea sustatzen, kontziliazioaren eta prestakuntzaren alde egiten, emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murrizten, eta laneko osasuna eta segurtasuna funtsezko lehentasun gisa kokatzen. Konpromiso horren emaitza nagusiak memorian bildu dira, zein bere atalean.

Memorian datu ugari ageri da, eta bide ematen dute gure jarduketaren eta gure emaitzen ideia argi bat izateko. Pozten naiz, 2025ean, osasun-arloan, batez besteko itxarote-denboraren adierazle gehienak hobetu ditugulako, baita berrinterbentzio-tasak ere, eta jasotako kexa kopurua murriztu delako, nahiz eta 2024an ja baxua izan. Eta, oro har, gure enpresa mutualistei eta gure zerbitzuen erabiltzaileei egindako inkesten emaitzak bikainak dira.

Ez dut beste mugarri garrantzitsu bat ahaztu nahi, orain arte aipatu dudana plan estrategikotik harago doana. Mutualiaren 125 urteurrenari ari naiz. 1900. urtean sortu ziren La Previsora mutua Gasteizen eta Seguros Mutuos de Vizcaya mutua Bilbon, zehazki martxoan eta apirilean, hurrenez hurren. 2025ean mugarri hori gure interes-taldeekin batera ospatu dugu, eta batez ere, enpresa elkartuekin eta Mutuallian lan egiten dugun pertsonekin.

Sakatu hemen,
125. urteurrenaren
bideoa ikusteko,
edo eskaneatu QR
kodea



Eta pertsona horiei eskertu nahi diet egunero ahal duten guztia egitea Mutualiaren xedea lortzeko: osasun, segurtasun eta pertsonen ongizaterako eskubidea bermatzea, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean arituta.

Lourdes Gondra Eguskiza
Directora gerente

Nazio Batuen gutuna



Guterres jauna
Nazio Batuen Erakundeko
idazkari nagusia

Guterres jaun estimatua,

Mutualiak, 2005ean, Nazio Batuen Munduko Itunarekin bat egin zuen, eta harrez geroztik Hamar Printzipioekiko konpromisoa berritzen joan gara, uste osoa baitugu oraindik badirela funtsezko erreferentzia bat gure garaiko gizartearen, ingurumenaren eta ekonomikoaren erronkekin bat datorren kudeaketa arduratsua eta etikoa egingo badugu.

Konpromisoa berritzen dugu jasangarritasuna lideratzeko eta kudeatzeko modu bat dela uste dugulako. Mutualian, Munduko Itunaren printzipioak gure estrategian, gure kudeaketa-sistemetan eta erakundearen kulturen daude, eta orientabide ere baditugu erabakiak hartzeko orduan eta lanean aritzen garen pertsona eta erakunde guztiekiko harremanetan.

Etengabe hitz egiten dugu gure interes-taldeekin, funtsezkoa baita aurrerapen koherente eta arduratsua izan dezagun. Haien itxaropenak eta premiak ulertzeak gure konpromisoa indartzen du; konpromisoa giza eskubideekin, lan-arauak betetzearekin, ingurumena babestearekin eta era guztietako ustelkeriaren aurkako borrokarekin, hala gure barne-jardueran nola gure balio-katean.

Etorkizunari begira gatzazkiola, arduraz aurre egiten diegu erronka berriei, pertsonak erdigunean jarrita beti, eta gizarteari emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzea helburu.

Gardentasun eta kontu-emateko ariketa gisa, Mutualiak jasangarritasunari buruzko memoria argitaratzen du urtero webgune korporatiboan (www.mutualia.es). Memoria horretan modu argi eta irisgarrian honako hau biltzen dugu: gure jarduera, Hamar Printzipioak betetzen izandako aurrerapenak eta Garapen Jasangarriko Helburuei egiten diegun ekarpena, nazioarteko erreferentzia-estandarrekin bat etorrira.

Gutun honekin, Mutualiak, babesa berresteaz gain, interes-taldeekin eta bestelako erakundeekin batera lanean jarraitzeko konpromisoa berresten du, garapen bidezkoago, jasangarriago eta berritzaileagoa laguntze aldera, oraingo eta etorkizuneko belaunaldiak dugun arduraren jakitun.

Adeitasunez,

A handwritten signature in black ink, appearing to read "Lourdes Gondra".

Lourdes Gondra Eguzkiza
Zuzendari kudeatzailea

Memoria honetaz eta berorren irismenaz

Mutualiak ezagutzera ematen du jasangarritasunarekin duen konpromisoa, urtero jasotzen baititu memorietan GRI estandarren gidaren (2021) jarraibideei, GJHei eta Munduko Ituneko printzipioei loturiko zein ekintza gauzatu dituen, "GRI estandarrekin bat" aukera lortzeko asmoz.

Aurten, kanpoko egiaztapen-prozesu bat egin zaio txostenari; izan ere, bi urtean behin egiten da, eta aurreko egiaztapena 2023ko memoriarako izan zen.

Memoria honetan, printzipio etikoetan eta Gobernu Onaren printzipioetan oinarrituta 2025ko urtarrilaren letik abenduaren 31ra arte egindako jardura guztiak jaso dira, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-arlokoak. Memoria egiteko, erakundeko arlo eta talde guztien laguntza izan dugu.

Memoriaren helburua da Mutualiak bere interes-taldeekiko duen konpromisoa

betetzea, eta talde horietako bakoitzak identifikatutako gai garrantzitsuei buruzko kontsulta argi eta eraginkorra eskaintzen du.

2025ko Memoria Mutualiako Batzar Orokorrarekin batera argitaratu da, 2025eko uztailaren 18an. Batzarra Erronka Garbia eta Ekitaldi Jasangarria (IHOBE) ziurtagiriaren arabera diseinatu zen, eta Gasteizen egin zen, Mutualiaren Ospitaleko ekitaldi-aretoan.

Memoria argitaratzeaz eta entregatzeaz gain, honako hauek aurkeztu ziren: ekitaldiko finantza-informazioa, kanpo-auditoretzako txostenak eta Gizarte Monetizazioaren txostena; azken horretan, Mutualiak sortutako balio sozial osoaren balorazio ekonomikoa egin zen.

Memoria honetan jasotako alderdi materialak identifikatzeko, interes-talde guztiek parte hartu dute, nork bere premia eta espektatibak zehazten, eta, horiei gehitu dizkiegu erakundeak bere jardueren eraginari eta inpaktuari buruz dakizkien datuak.

Memoria prestatzeko printzipioak

Oreka

Memorian, Mutualiak erakundearen espektatibak bete ez dituzten jardueren alderdi positibo eta negatiboen berri ematen du, interes-taldeek zentzuzko balorazioa egin ahal izan dezaten.

Konparagarritasuna

Interes-taldeek Mutualiak denboran zehar izan dituen aldaketak azter ditzakete; izan ere, txosteneko datu kuantitatibo guztiak aurreko urtekoekin alderatzen dira, eta, batzuetan, baita aurrekoekin ere. Hala, erakundeak bere jardunean izan dituen aldaketak aztertu eta alderatu daitezke.

Argitasuna, zehaztasuna eta zorroztasuna

Informazioa sistematikoki azaltzen da. Irakurtzea errazten duen aurkibide orokor

batez gainera, GRI adierazleen indize orokor bat ere badu, aurkezten diren datu kualitatibo zein kuantitatiboak erraz eskuratu eta kokatu ahal izateko. Ahal den neurrian, modu ulergarrian eta interes-talde guztietara egokiturik ematen dira termino teknikoak. Urteko memoria honetan bildutako informazioa eta datuak Mutualiak 2025ko ekitaldian egindako jardueri buruzkoak dira, prozesuak kudeatzeko erabiltzen diren informazio-sistemetatik (AS/400, SAP R/3, PRISMA, EPSILON, SICOMAT, COGNOS, MIDENET, etab.) eta arlo bakoitzerako kalkulaturako jarduera-adierazleetatik lortuak. Memoria honek AENOR etxearen kanpo-egiaztapena jaso du.

Jasangarritasun-testuingurua

Erakundeak ahal duen neurrian laguntzen du ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-garapenean, tokian-tokian, autonomia-


erkidegoan eta estatu osoan, betiere modu interkonektatuan; horretarako, Garapen Jasangarriko Batzorde bat dauka eratuta.

Puntualtasuna

Txosten hau urtero egiten da, erakundearen ezaugarriak kontuan hartuta eta Mutualiak garatzen dituen jardura guztiak bilduta. Hori horrela, erakundearen ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jardunari buruzko informazio bategina jasotzen du.



Egiaztagarritasuna

Interesdunek dokumentazio eta informazio guztia egiaztatu eta berretsi dezakete.



Gobernuko eta Partaidetzako organoak

Organigrama orokorra



2. Gobernuko eta Partaidetzako organoak

Batzar Orokorra

Gobernu-organo gorena da.

Batzar Orokorra mutuen gobernu-organo gorena da. Honako hauek osatzen dute: enpresa elkartuetako ordezkariak, atxikitako langileen ordezkariak batek (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arauzko garapenak zehaztutako moduan) eta mutuako langileen ordezkariak.

Urtean ohiko bilera bat egiten du, aurrekontuen aurreproiektua eta urteko kontuak onesteko, eta baita ezohiko bilerak ere, dela Zuzendaritza Batzordeak deitu duelako, dela enpresa elkartuen % 10ak Zuzendaritza Batzordeari hala eskatu diolako; enpresa horiek, betiere, beren betebeharrak sozialak egunean eduki behar dituzte.

Presidentea, presidenteordea eta idazkaria Zuzendaritza Batzordean kargu horiek dituzten kideak izaten dira.

Enpresa elkartu bakoitzak boto bat emateko eskubidea du, eta ordezkariak eskuordetzea ere beste enpresa kide bati dagokio. Berdinketa gertatuz gero, presidentearen botoak ebatziko du.



Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza Batzarraren eraketa (2025-12-31)

Kargua	Urte ¹	Izena	Erakundea
Presidentea	2007	Urtza Errazti y Olartecoechea	Voestalpine Railway Systems Jez, S.L.
1.presidenteordea	2020	Nerea Garmendia Goñi	Plastigaur, S. A.
2.presidenteordea	2019	Marta Barredo Unamunzaga	Herdit, S. L.
3.presidenteordea	2022	Jone Nolte Uspadicha	Asociación Empresarial ASLE
Idazkaria	2021	Miren Garbiñe Urrutikoetxea Zabala	Fundación del Museo Guggenheim Bilbao
Idazkariordea	2023	Alexia Delclaux Gaytan De Ayala	Prodol Meditec, S.A.
Batzordekidea	2024	Jon Ander Lapatxa Benito	Amurrio Ferrocarriles y equipos S. A.
Batzordekidea	2007	Javier Sánchez Pérez	ArcelorMittal Olaberria Bergara, S.LU.
Batzordekidea	2010	Ignacio Toledano Yániz	Calcinor Servicios, S.A.
Batzordekidea	2008	Maite Barruetabeña Zene-korta	Eusko Jaurларitza-Gobierno Vasco
Batzordekidea	2012	Diego Ricondo Chaves	Kutxabank, S.A.
Batzordekidea	2016	José Ignacio Zudaire Arana	Petróleos del Norte, S.A.
Batzordekidea	2007	Ricardo Eusebio Echave Subijana	Sociedad Alavesa de Inversiones, S.A.
Batzordekidea	2007	José Maria Echarri Campo	Heidelberg Materials Hispania Cementos S.A.
Batzordekidea	2016	Gorka Zubillaga Bereciartua	Supermercados Ercoreca S.L.
Batzordekidea	2022	Ekhi Anko Etxeberria Monbiela	Tubos Reunidos, S.A.
Batzordekidea	2007	Fernando Salamero Laorden	Vinos Herederos Marqués de Riscal, S.A.
Batzordekidea	2024	Isabel Iturbe Mach	Representante personas trabajadoras por cuenta propia adheridas
Batzordekidea	2023	Carolina Pérez Toledo	Fortek Servicios De Formación S.LU.
Batzordekidea	2024	Izaskun Elorduy Vadillo	Representante de las personas trabajadoras de Mutualia

[1] lanean hasitako urtea

Zuzendaritza Batzordea kide anitzeko organo bat da, eta zeregin hauek dagozkio: mutua zuzenean gobernatzea eta ordezkatzeko, eta haren interesak babestea, behar adina zuzendaritza-, administrazio-, xedatze- eta betearazpen-ahalmen

erabiliz.

Zuzendaritza Batzordeko kideak honako hauek dira:

- Enpresa elkartuen 10-20 ordezkari. Horietatik, % 30 langile gehien

Batzorde betearazlea

Zuzendaritza Batzordeak Batzorde Exekutiboa eratzen du bere kide batzuekin, mutua zuzentzeko, administratzeko eta ordezkatzeko zereginak lehenbailehen betetzeko.

Gehienez hamar kidek osatzen dute, eta, gutxi gorabehera, hilean behin egiten du ohiko bilera.

- dituzten enpresak izango dira, araudiaren arabera ezartzen diren tarteei jarraikiz.
- Atxikitako norbere konturako langile bat.
 - Batzar Orokorreko kide den entitateko langileen ordezkaria.

Zuzendaritza Batzordeko kideak izendatzea Batzar Orokorrari dagokio, eta ministerio eskudunak berretsi beharko ditu. Erakundeko langilearen ordezkaritza, berriz, Enpresa Batzordeko kideen artean aukeratuko da. Zuzendaritza Batzordeak gutxienez hiru hilean behin egingo ditu ohiko bilerak, eta ezohikoak behar beste alditan, dela presidenteak deia egin duelako, dela kideen herenak hala eskatu duelako. Bilerak sozietate-egoitzan edo Zuzendaritza Batzordeak proposatutako beste edozein tokitan egiten dira.

Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsonak ez dute ordainsaririk jasotzen, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera. Konpentsazioak jasotzea badagokie, otsailaren 4ko TIN/246/2010 Aginduan zehaztutakoaren araberrakoak dira.

2021eko uztailaren 6an, Zuzendaritza Batzordeak Zuzendaritza Batzordearen Antolakuntza eta Funtzionamenduaren Barne Araudia onartu zuen, eta urte bereko uztailaren 16an berretsi zuen Mutualiako Batzar Orokorrak, ohiko bileran. 2023ko uztailaren 14an berrikusi zen, estatutuetako aldaketak eta Gobernu Korporatibo Onaren Politika Orokorretik eratorritakoak sartzeko.

2. Gobernuko eta Partaidetzako organoak

Beste batzorde batzuk

Zuzendaritza Batzordeak eratu ahal izango ditu.

Zuzendaritza Batzordeak hiru batzorde eratu ditu: Batzorde betearazlea, aurreko orrian hizpide izan duguna, eta Ordainsarien batzordea, auditoretza-batzordea eta etika-batzordea.

Ordainsarien Batzordea

Eginkizun betearazlerik gabeko kide anitzeko organo bat da, eta informazioa nahiz aholkularitza emateko eta proposamenak egiteko ahalmena du, zuzendari kudeatzailearen, eginkizun

betearazleak dituzten pertsonen eta Barne Auditoretzako zuzendariaren ordainsariei buruz, bai eta haien urteko helburuei buruz ere.

Auditoretza Batzordea

Auditoretza Batzordea kide anitzeko organo bat da, eginkizun betearazlerik gabekoa, informazioa eta aholkularitza emateko da, Mutualiaren arriskuak kontrolatzeko hirugarren defentsa-lerroarekin jarduteko eremuaren barruan.

Etika Batzordea

Eginkizun betearazlerik gabeko organo bat da, eta eginkizun nagusia du Mutualiaren estrategiak bultzatzea gizarte-erantzukizun korporatiboaren nahiz ospe korporatiboaren arloan eta Gobernu Korporatiboaren Sistema betetzen dela gainbegiratzea. Batzorde honen mende Betetze Korporatiboaren Batzordea dago, zeina arduratzen baita Gobernu Korporatiboaren Sistemak efikaziaz funtzionatzen duela proaktiboki zaintzeaz.

Zuzendari kudeatzailea

Mutualiaren zuzendaritza betearazleaz arduratzen da

Organo hau Mutualitatearen zuzendaritza betearazleaz arduratzen da; hala bada, erakundearen helburu orokorrak eta ohiko zuzendaritza garatzen ditu, Zuzendaritza Batzordeak eta Presidenteak ematen dizkion irizpide eta aginduen arabera, eta Gizarte Segurantzarekin lankidetzan jarduten duen erakunde den heinean Mutualitatearen kudeaketa-araudia aplikatuko du.

Bere ahalmenak, mugak, debekuak eta erantzukizunak erakundearen estatutuetan daude jasota. Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du; dena den, izendapena eta goimailako zuzendaritzaren lan-kontratua eraginkorrak izan daitezen, den ministerio eskudunaren berrespena beharko da.



2025ean, erreleboa gertatu da Kudeaketako Zuzendaritzan. Hala, Lourdes Gondrak, ordura arte Zerbitzu Korporatiboetako zuzendaria zenak,

Ignacio Lekunberriren lekukoa hartu du, zeinak kargua azken 11 urteetan bete baitu. Txanda hori 2026ko urtarrilaren 1ean gauzatu zen.

Kontrol eta Jarraipen Batzordea

Gizarte-eragileek parte hartzeko organoa da, eta, besteak beste, erakundeak lankidetzaz-modalitateetan egiten duen kudeaketa ezagutzea eta horren berri ematea dagokio.

Hamar kidek osatzen dute, mutuaren kuoten arabera. Kideen erdiak babestutako langileen ordezkariak dira, eta erakundeak jarduten duen lurraldean ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalen bidez aukeratzen dira; beste erdiak, berriz, enpresa elkartuen ordezkariak dira, eta ordezkaritza handiena duten enpresa-erakunde bidez aukeratzen dira. 8/2015 Legegintzako Errege Dekretu berrian, langile autonomoen elkarte profesionalen ordezkaritza dago jasoa.

Kontrol eta Jarraipen Batzordearen eraketa (2025-12-31)

Kagua	Izena	Erakundea
Enpresa elkartuen ordezkaritza:		
Presidentea	Urtza Errazti y Olartecoechea	Voestalpine Railway Systems Jez, S.L
Batzordekidea	Gonzalo Salcedo Bilbao	CEBEK
Batzordekidea	Monserrat Ruiz Mitjans	CEBEK
Batzordekidea	María José Irastorza Estensoro	ADEGI
Batzordekidea	Fernando Raposo Banda	SEA
Sindikatuaren ordezkaritza:		
Batzordekidea	Alfonso Ríos Velada	CCOO
Batzordekidea	Maria Begoña Blanco Santos	CCOO
Batzordekidea	Leire Heredia Bilbao	ELA
Batzordekidea	Cristina López Álvarez	UGT
Batzordekidea	Ibon Zubiela Martin	LAB
Zuzendari kudeatzailea:		
Idazkaria	Ignacio Lekunberri Hormaetxea	Mutualia

Prestazio Berezien Batzordea

Organo honek Gizarte Laguntzako Erreserbatik eratorritako onurak emateko eskumena du. Irabazi horiek ematen dizkiete, zehazki, babestutako edo atxikitako langileei eta haien eskubidedunei, baldin eta kontingentzia profesionalak estalita badituzte, laneko istripu bat edo gaixotasun profesional bat izan badute eta egoera berezian edo premia bereziko egoeran badaude.

Onurak hautazkoak eta Gizarte Segurantzaren babes-ekintzan jasotakoetatik apartekoak izango dira.

Batzordea hamar kidek osatzen dute: enpresa elkartuen eta langile babestuen bosna ordezkariak.

Presidente-, presidenteorde- eta idazkari-karguak bi urterako dira, eta,

Prestazio Berezien Batzordearen eraketa (2025-12-31)

Kagua	Izena	Erakundea
Presidentea	José Javier Arriola Ubierna	LAB
Presidenteordea	Ainara Agirrebengoa Pereira	Gestamp Bizkaia, S.A.
Idazkaria	Amaya Calleja Irazu	UGT
Batzordekidea	Elena Izquierdo Cuadrado	Zayer, S. A.
Batzordekidea	José Hernández Duñabeitia	ASLE
Batzordekidea	Leire Heredia Bilbao	ELA
Batzordekidea	Andoni Larralde Etxarte	ELA
Batzordekidea	Jose María Echarri Campo	Heidelberg Materials Hispania Cementos S.A.
Batzordekidea	Alfonso Rios Velada	CCOO
Batzordekidea	Alvaro Plaza Reino	ArcelorMittal Olaberria Bergara, S.LU.

kargu horiek betetzeko, enpresen eta babestutako langileen ordezkariak aukeratzen dira, txandaka.

8/2015 Legegintzako Errege Dekretu berrian, langile autonomo elkartuen ordezkaritza bat ere jasotzen da.

2. Gobernuko eta Partaidetzako organoak

Zuzendaritza Batzordea


Zuzendaritza Batzordea mutuaeren zuzendaritza betearazlerako kide anitzeko organoa da. Haren helburu orokor nahiz operatiboak garatzen ditu, eta erakundearen ohiko zuzendaritza gauzatzen du.

Kide hauek ditu: zuzendari kudeatzailea (Lourdes Gondra), zuzendari kudeatzailearen ondokoa (Ignacio Lekunberri), zerbitzu asistentzialen zuzendaria (Mikel Sanchez) eta Kudeaketako Zuzendaritzaren ondoko idazkari nagusia (Jorge Arbaiza).



Kudeaketaren Jarraipena

Kudeaketa operatiboko organo bat da, eta Zuzendaritza Komiteko kideek eta arloetako zuzendariak osatzen dute. Hilero biltzen da Mutualiaren jarraipen estrategikoa egiteko.



Nor gara?

3. Nor gara?

Erakundearen profila

Mutualiak lan-istripuen ondoko osasun-laguntza ematen du, laneko bajeen prestazio ekonomikoak eta Gizarte Segurantzak lankidetzaren esparruan eskatzen dizkion prestazioak kudeatzen ditu, eta laneko arriskuen prebentzioa zabaltzen du.

Mutualia, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko mutua, EAEko erreferentziako mutua da, eta langileen % 46ri baino gehiagori estaldura ematen die.

%46,3

**AEKO LANGILEEN % 46,3K
MUTUALIAREN BABESA DUTE**

Mutualia irabazi asmorik gabeko eta erantzukizun mankomunatudun enpresaburuen elkarte da. Gizarte Segurantzari laguntzen dio enpresen, langileen eta bestelako bezeroen osasun-zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak kudeatzen eta prebentzioa zabaltzen.

Mutualia 2005ean sortu zen, Mutua

Vizcaya Industrialak eta Pakeak bat eginda, eta haiei, 2007an, La Previsora izeneko gehitu zitzaion, hau da, istripuen lehenengo mutua eta zaharrena, zeina 1900eko martxoaren 25ean eratu baitzen. 2025ean, Mutualiak 125. urteurrena bete du.

Mutualia Estatu osoan ari da lanean, honako printzipio hauei jarraikiz: arreta pertsonalizatua, berehalakotasuna, asistentziaren gertutasuna eta osasun-zentroen kalitatea, eta langileen hurbiltasuna kide diren enpresa eta aholkularitza laguntzaile guztiekiko.

Mutualiaren helburua da Gizarte Segurantzarekin elkarlanean honako jardura hauek lantzea:

- Gizarte Segurantzako lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen ondoriozko kontingentzien babesean sartzeko diren prestazio ekonomikoak eta osasun-laguntzak kudeatzea,

errehabilitazioa barne, baita babes-ekintzak eskaintzen dituen kontingentzien inguruko prebentzio-jarduerak kudeatzea ere.

- Kontingentzia arruntek eragindako aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoak kudeatzea.
- Haurdunaldiko eta edoskitzaro naturaleko arriskuen prestazioak kudeatzea.
- Norberaren konturako langileek jardura eteteagatik dituzten prestazio ekonomikoak kudeatzea, 32/2010 Legeak, abuztuaren 5ekoak, arautzen duen moduan, bertan xedatzen baita langile autonomoak jardura utzi ostean babesteko berariazko sistema.
- Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzearen prestazioa kudeatzea.
- Legez egokitzen zaizkion Gizarte Segurantzaren gainerako jarduerak.



mutualia



3. Nor gara?

Kultura korporatiboa

Mutualia 125 urteren ondotik definitzen duen nortasuna.

Jomuga

“Mutualiako pertsonen asmo korporatiboa hau da: “Pertsonen osasun-, segurtasun- eta ongizate-eskubidea bermatzea, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan”.

Misia

“Mutualia, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduen Mutua, enpresen elkarte pribatua da, irabazi-asmorik gabekoa. Beraren xedea osasungintzako zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta prebentzio-jarduerak kudeatzea da, elkarteko kide diren enpresei eta babestutako pertsonen zuzenduta, Gizarte Segurantzako Sistema egonkorra izan dadin laguntzeko”.

Ikuspegia

“Gure interes-taldek legitimatutako eta aitortutako mutualitatea izatea, kudeaketa etiko eta berritzailearen bidez gure inguruaren ongizateari ekarpena egiteagatik.”

Erakunde bat ez da zer egiten duen bakarrik, zer den ere bada. Mutualiaren kultura korporatiboa erakunde baten arima da. Eta erakundeak, 2025ean 125 urte beteko ditu pertsonen osasunarekin, segurtasunarekin eta ongizatearekin etengabeko konpromisoa hartuta. Urteurrena ez da mugarri kronologiko bat bakarrik, baizik eta gainerakoetatik bereizten duten balioen eta gauzak egiteko modu baten adierazpen adierazgarriena.

Historia da, berez, Mutualiaren lehen nortasun-sinboloa. Egindako etapa bakoitza (mutualismoaren jatorritik gaur egun den mutua moderno eta berritzailearaino) xedea ulertzeko modu berezi bat oinarritzen joan da, ez helburu burokratiko modura, jomuga irmo modura baizik: pertsonen osasun, segurtasun eta ongizaterako eskubidea bermatzea Gizarte Segurantzarekin elkarlanean.

Jomuga hori Mutualiaren egunerokoa antolatzen duten sei balioen gainean

oinarrituta dago: taldea, gertutasuna, profesionaltasuna, efizientzia, gardentasuna eta abangoardismoa. Balioak ez ziren dokumentu estrategiko batean sortu, baizik eta erakundeko pertsona guztiek zehaztu eta hautatu zituztela. Talde-lana izaeraz asoziatiboa den erakunde baten nortasun-ezaugarri gisa. Gertutasuna kalteberatasun-uneetan Mutualian konfiantza jartzen dutenei erantzuteko. Profesionaltasuna eta efizientzia kalitatezko zerbitzu baten berme modura. Gardentasuna konfiantzaren oinarri gisa. Eta abangoardismoa zerbitzuak ematen berritzeko konpromiso modura.

Mutualiaren ikuspegia zera da: mutua legitimatua eta aitortua izatea, ongizate kolektiboari dakarkion benetako balioagatik eta bere kudeaketa etiko eta berritzaileagatik. 125. urteurren honetan, historian zehar ondutako kultura hori da, ez bairik gabe, mutuaren aktiborik baliotsuena.

Balioak



Profesionaltasuna



Eraginkortasuna



Hurbiltasuna



Gardentasuna



Taldea



Abangoardismoa


3. Nor gara?

Non gaude?

Mutualiak Euskal Herrian jarduten du gehien bat, eta han daude erakundearen laguntza-baliabide guztiak, besteak beste, hiru ospitale, lurralde historiko bakoitzean bana.

EAEn egiten du bere jardueraren zati handiena. Han dago, hain zuzen ere, erakundeak estaldura ematen dien biztanleen % 94,48, eta, horregatik, Mutualiaren asistentzia-zentro propio guztiak Euskal Herrian daude. Urteak igaro ahala, zentro-sare zabal bat eratzea lortu du, arreta sanitario eta ekonomikoa behar duten pertsonei berehalako eta hurbileko erantzuna emateko.

Guztira, Mutualiak 18 asistentzia-zentro ditu, horien artean 3 ospitale, lurralde historikoetako hiriburu bakoitzean bana, 13 asistentzia-zentro eta 2 administrazio-zentro.



Egoitza Operatiboa:
Henao kalea, 26
48009 Bilbao (Bizkaia)
944 25 25 00

Sozietatearen Helbidea:
Miraconcha kalea, 7
20007 Donostia/San Sebastián (Gipuzkoa)
943 42 65 00

3. Nor gara?

Rama Korporazioa

Mutualia Rama Korporazioko kidea da 2016ko urtarrilaz geroztik, etaosatzen duten gainerako mutuekin sinergiak partekatzen ditu enpresei nahiz langileei emandako zerbitzua hobetzeko.

Rama Korporazioa lankidetzakomuneko proiektu bat da, eta jarraitu egin diote, hasieran, lehengo Mutua Korporazioa osatzen duten mutuek. Taldea berezko nortasun juridikorik gabeko entitate gisa eratu zuen Gizarte Segurantzaren Antolaketako Zuzendaritza Orokorrak 2016ko urtarrilaren 13ko Ebazpenaren bitartez, eta bertan Aliantza Estrategikoko Akordioa onartu zen, orduan kide ziren zazpi mutuek sinatutakoa.

Halaber onartu zen Corporación RAMA (Red Asistencial de Mutuas Asociadas) izena erabiltzea, eta hura osatzen duten mutuetako bakoitzaren irudi erkide desberdina, eta marka Patente eta Marken Espainiako Erregistro Bulegoan erregistratu zen. Tresna oso baliagarria da mutuei, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren entitateak diren heinean, esleitzen zaizkien baliabide publikoen kudeaketa egokiena eta eraginkorra lortzeko; lankidetzarako eta kooperaziorako esparru egonkorra da, mutuei esleitzen zaizkien jarduketa-esparruetan, esate baterako, elkarri osasun-prestazioak egiteko, kontingentzia arruntengatik aldibaterako ezintasunen prestazio ekonomikoaren jarraipena egiteko, Mutualitate bakoitzaren asistentzia- eta administrazio-instalazio eta -zentroak elkarrekin erabiltzeko, eta baita lanbide-kontingenzietara bideratutako ikerkuntza-, garapen- eta berrikuntza-jarduketak egiteko, betiere mutuek kudeatzen dituzten baliabide publikoen erabilpenean eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortu asmoz.

180

ZENTRO

3.862

LANGILETIK GORAKO PLANTILLA

265.362

ENPRESA ELKARTURI ESKAINTZEN ZAIE ZERBITZUA

3.123.217

PERTSONA BABESTU, BESTEREN KONTURAKO LANGILEAK ETA NORBERE KONTURAKO LANGILEAK

62.326

KORPORAZIOKO MUTUEN ARTEAN BIDERATUTAKO ASISTENTZIEN KOPURUA.

Corporaciónrama



Ibermutua



3. Nor gara?

Kudeaketa-ereduan mugarri izan diren zenbait gertaera

2020

- Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria estrategiaren alorrean; sari hori Eusko Jaurlaritzak ematen du, Euskaliten bitartez.
- Evolution Excellence Plus Q Jasangarria ziurtagiria Mutualiaren Gasteizko Erabakimen Handiko Ospitalerako.
- ISO 45001 ziurtagiria lantokian segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemari.

2021

- Quality Innovation Award (QIA) sariko finalista Euskadiko fasean.
- 5S Digitalen diploma Arriskuen Antolaketa eta Kudeaketa arloari.
- Evolution Excellence Q Jasangarria ziurtagiria Gernikako eta Bergarako zentroetarako.

2022

- 5S "zilarrezko diploma" Pakea klinikarentzat.
- EFR ziurtagiriaren maila igotzea, Btik B+ proaktibora.
- AENOR etxeak ematen duen Segurtasun Eskema Nazionalaren ziurtagiria.

2023

- Kudeaketa Aurreratuaren 2023ko Urrezko A.
- Humans ziurtagiria (A maila), humanizazioari eta asistentziaren kalitateari buruzko irizpideak betetzeagatik.
- Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria.

2024

- Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria gizartearen alorrean; sari hori Eusko Jaurlaritzak ematen du, Euskaliten bitartez.
- "DESKARBONIZAZIOAREKIN KONPROMETITUTAKO ERAKUNDEA - ECO2 AGREED 2030" zigilu europarra.
- Euskadi Agenda 2030 Saria, "Bidean" kategorian.

2025

- Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria Berrikuntzan, Eusko Jaurlaritzak Euskaliten bitartez emandakoa.
- Harrobiren diploma Mutuaia Arabarentzat.
- Euskadi Sariak 2025 saria, DEIA egunkariak eta Grupo Noticias taldeak emandakoa.
- Bilboko Merkataritza Ganberaren Gizarte Berrikuntza Jasangarriako saria, BBK ESG HUBen bitartez.
- Euskadi Agenda 2030 saria, "Aurreratua" kategorian.

3. Nor gara?

Ziurtagiriak, sariak eta aintzatespenak



3. Nor gara?

Nazio Batuen Itunarekin bat egitea

Iraunkortasun-estrategia

Jasangarritasuna, Mutualian, hobetzeko etengabeko prozesutzat hartzen da, eta zeharka txertaturik dago erakundearen estrategian eta kudeaketa-sistemetan. Ikuspegi horren helburua da eragin positiboak ahalik eta handienak izatea ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren esparruetan, eta bere jardueraren ondorioz izan litezkeen eragin negatiboak identifikatzea, prebenitzea eta arintzea.

Jasangarritasun-estrategiak bat egiten du Nazio Batuen Munduko Itunaren printzipioekin, 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH), eta kudeaketa etiko, garden eta efizientean oinarritzen da. Erabakiak hartzeko prozesuan printzipioak sartzea lagungarria da arriskuen prebentzioa, lan-ongizatea, laneko osasuna eta gizarte-ekitatea indartzen.

2025ean, Mutualiak Euskadi 2030 Agenda Sariaren Aurreratua aitortza erdietsi du; alegia, GJHak kudeaketan sartzeko esparruaren barruko mailarik aurreratuena. GJHak erakundearen estrategian, gobernantzan eta prozesuetan integratzen lortutako heldutasun-maila egiaztatzen du aitortzak, bai eta emaitzetarako eta etengabeko hobekuntzarako orientazioa ere.

Eraldaketa digitala, populazioaren zahartzea eta klima-aldaketaren ondorioak ezaugarri dituen testuinguruan, faktore horiek zuzeneko eragina dute interes-taldeekin batera lehenetsitako GJHetan. Epe laburrera, Mutualiak jarduna honako hauetara bideratzen du: zerbitzuen digitalizaziora, erabiltzaileen irisgarritasuna eta esperientzia


hobetzeko; instalazioetako energia-erabilera optimizatuz ingurumen-aztarna murriztera, eta enpresa mutualistetan prebentzio-kultura indartzera.

Epe laburrera, erakundea lanean ari da berrikuntza bultzatzeko aliantza estrategikoak indartzeko, maila guztietan behar bezalako arreta pixkanaka sartzeko, bai eta berdintasun-, aniztasun- eta inklusio-politikak garatzeko ere.

2025ean aurrerapenak izan dira zenbait arlotan, hala nola prozesuen digitalizazioan, kudeaketa etikoan eta arriskuen kudeaketan, aniztasun

eta inklusioan eta erabiltzaileen gogobetetasunean. Nolanahi ere, hobetzeko eremu gisa daude oraindik inpaktuen neurketa indartzea eta interes-taldeekin partaidetza.

Esparru horretan, epe labur eta ertaineko erronka nagusiak honako hauek dira batez ere: ESG adierazleen sistema bat finkatzea, CO₂ emisioak pixkanaka murriztea, lan-osasuna sustatzeko programak handitzea, erakundearen maila guztietan berdintasuna eta inklusioa bultzatzea eta kudeaketan behar bezalako arreta zeharkako elementu gisa integratzea.



3. Nor gara?

Interes-taldeen konpromisoa eta parte-hartzea

Interes-taldeak erakundearen parte eta elementu garrantzitsu dira. Identifikatu eta definitu egiten dira, ezagutzeko, komunikatzeko, inplikatzeko eta haiekin elkarrekintzan aritzeko, jarduera-eremu guztietan bikaintasuna lortze aldera.

Mutualiak jarduten duen ingurunean eta ikuspegi estrategikoan konfiantza sortzeko, garrantzitsutzat jotzen da jarduerak eragiten dien taldeekiko harremana, gizarte-erantzukizunaren ikuspegitik.

Horretarako, interes-talde guztiak engaiatu behar dira, helburuak modu jasangarrian betetzeko. Inplikazio eta konpromiso hori lortzeko, ezinbestekoa da konfiantza sortu eta areagotzen duten harremanak eraikitzea, talde horien espektatiba eta premiei erantzuteko eta Mutualiaz duten pertzepzioa hobetzeko.

Harreman horrek aurrera egiten, lehiatzeko gaitasuna handitzen eta garapen jasangarria sustatzen laguntzen du.

Mutualia, bere estrategia definitzeko, besteak beste, interes-taldeetatik jasotako informazioan oinarritzen da. Horretarako, erakundeak hainbat komunikazio-iturri ditu, interes-talde guztiekin sistematikoki eta etengabe elkarriketan aritzeko, eta, era horretan, informazioa modu egituratuan barneratzeko hausnarketa-prozesuan.


Mutualiak beste hainbat informazio-iturri kudeatzen ditu, inguruan (administrazioa/erakundeak,

merkatua-bezero potentzialak eta/edo sektorea) gerta daitezkeen aldaketak ulertzeko eta haiei aurrea hartzeko. Hori dela eta, Laneko Istripuen Mutuen Elkartearen (AMAT) Zuzendaritza Batzordeko eta Bikaintasunerako Euskal Fundazioko (EUSKALIT) kide da, eta hainbat enpresa-erakundek (ADEGI, CEBEK, SEA eta CONFEBASK, adibidez) sustatzen dituzten foro eta lantaldeetan parte hartzen du.

Mutualiaren kontabilitateko egoera-orriak, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen erakundea denez, Gizarte Segurantzako Kontu Hartzailletza Nagusiak ikuskatzen ditu urtero, eta, beraz, funts publikoak behar bezala erabiltzen direla bermatzen du. Era berean, kudeaketa eraginkorra eta gardena izan dadin are gehiago ziurtatzeko, Mutualiak kudeaketa-sistemen ziurtagiriak ditu, eta AENOR erakunde ziurtatzaileak ikuskatzen ditu urtero.

Neurri horiek guztiak bat datoz Nazio Batuen Mundu Itunaren hamargarren eta azken printzipioarekin. Printzipio horren arabera, "enpresek ustelkeria-mota guztien aurka lan egin behar dute, estortsioa eta eroskeria barne".

Mutualiaren iritziz, garrantzitsua da interes-talde guztiei mezuak modu



argi eta arinean helaraztea, eta, jakina, zer iritzi dituzten jakitea eta hobetzeko adierazi nahi dituzten ideia guztiak biltzea. Hori dela eta, interes-talde horien informazioa, bildu eta aztertu ondoren, hausnarketa estrategikoaren prozesuan sartzen da, eta arlo bakoitzeko urteko ekintza-planen bidez zabaltzen da. Izan ere, informazio-iturri horiek urteetan sistematikoki aztertu izanari esker, kudeaketan zuzeneko eragina izan duten estrategia eta ekintzak garatu dira.

3. Nor gara?

Interes-taldeak eta parte hartzeko ekintzak

Bezeroak - Gogobetetze-inkestak (enpresa mutualistak, aholkularitzak, osasun laguntza, prestazio ekonomikoak). - Bilerak enpresa mutualistekin eta aholkularitzekin. - Larrialdien sistema, kexak eta erreklamazioak (Webgunea, extraneta, contact center, MEYSSen bulego birtuala, etab.). - Mutualia Foroan bildutako proposamenak eta ekarpenak. - Focus Group. - Eguneroko harremanak enprekin, aholkularitzekin eta autonomoekin (kudeatzaile osoa). - Eguneroko jarduera/zerbitzuaren prestazioa. - Materialitate-inkesta	Pertsonak - Pertsonen gogobetetze-mailari buruzko inkesta. - Arrisku psikosozialen inkesta. - Boga proiektua. - Iradokizunen sistema. - Prozesuko taldeak/Hobekuntzako taldeak/Saio klinikoak. - Langileen legezko ordezkariekin bilerak. - Elkargune, atari korporatiboa. - Diagnostikoa eta berdintasun-plana. - Barne-komunikazioak hilero. - Eguneroko jarduera/harreman zuzena. - Materialitate-inkesta	Gobernu-organismoak eta parte-hartzekoak - Batzar Nagusiaren bilerak. - Zuzendaritza Batzordearen bilerak. - Batzorde Betearazlearen bilerak. - Kontrol eta Jarraipen Batzordearen bilerak. - Zuzendaritza Batzordeko komisioren bilerak. - Materialitate-inkesta.
Funtsezko aliatuak eta hornitzaileak - Rama korporazioaren bilerak. - AMATen bilerak. - Gogobetetze-inkestak. - Materialitate-inkesta.	Gobernua eta erakunde publikoak - Gizarte Segurantzako Ordenazioko zuzendaritza orokorrarekin bilerak. - Sektorean aplikatzen den araudia aldatu eta eguneratu. - Gizarte Segurantzako Kontu-hartzailetza Nagusiaren auditoria. - Materialitate-inkesta.	Gizartea - Gizartearen gogobetetze-inkesta. - Bilerak aldiro elkarteekin eta antolaketekin. - Materialitate-inkesta.

3. Nor gara?

Materialtasunaren azterketa

2024ko azken hiruhilekoan beste materialtasun-azterketa bat egin zen. Hasiera batean, aurreko materialtasun-azterketa egungo plan estrategikoaren indarraldian mantentzeko asmoa genuen; hau da, 2025eko ekitaldia arte. Baina gertaeren abiadura handia eta gure ingurune aldakorra ikusita, berriro galdetu behar izan diegu interes-taldeei zer alderdi diren haientzat garrantzitsuak Mutualiarekiko harremanean.

2021ean erabilitako metodologiaren antzekoa baliatu dugu, eta 37 gai garrantzitsuren inguruko galderak egin dizkiegu interes-taldeei, hiru eremutan multzokatuta: jarduera etikoa eta gobernu ona, ingurumen-jarduera eta jarduera soziala. Gainera, hiru jarduera horiek Mutualiaren jarduera ekonomikoarekin lotzen dituen balorazio bat egin da. Inkestan, pertsona bakoitzak gehienez ere hiru gai hauta zitzakeen, ESG-irizpideen hiru eremu horietako bakoitzeko,


37 gai horiek interes-maila handia dute Mutualiarentzat; hau da, gai horiek erakundean lantzen dira. Horrez gainera, interes-taldeei aukera eman zaie adierazteko zer gai diren haientzat interes-maila altukoak, galdetegian jasotakoez gainera. Azterketa honetan ez da barne hartu inolako kanpo-elementu materialik.

Aurreko materialtasun-azterketan bezala, interes-taldeek ez dute materialtzat jotzen ingurumen-jarduera, kontuan hartuta Mutualiaren jarduerak ingurumenean eragin negatiborik ez duela, ez dela jarduera kutsatzailea eta ekintzen, ez-egiteen eta istripuen ondorioz ingurumena kaltetzen ez duela.

Gainera, jarduera soziala eta gobernantza gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira erakundeetan, eta, horren ondorioz, interes-taldeek ere garrantzi handiagoa ematen diete.

Sistematika hori 2026-2030 plan estrategiko berriaren lehen berrikuspenari begira berrikusiko da.

37 gaien banaketa, jardunaren eta puntuazioaren arabera



Gai materialen zerrenda

Ordena	Gaia	Puntuazioa
1	Baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra	74,25
2	Osasuna eta ongizatea	73,08
3	Konpromiso etikoak definitzen dituzten jokabide-kodeak eta politikak	72,6
4	Gardentasuna	61,6
5	Produktuen eta zerbitzuen kalitatea	46,75
6	Arriskuak kudeatzeko eta kontrolatzeko protokolo eta prozedurak.	45,1
7	Gizarte Segurantzako Sistemaren jasangarritasunari egindako ekarpena	33,6
8	Pertsonen gogobetetzea eta segurtasuna	31,08
9	Enplegararritasuna	28,56
10	Datuen babesa eta zibersegurtasuna bermatzea	27,5

3. Nor gara?

Plan estrategikoa

2025eko ekitaldian bukatu egin da Mutualiaren 2021-2025 aldirako Plan Estrategikoaren bukaera, eta amaiera eman zaio, horrenbestez, Mutualiaren eraldaketa eta hazkundeko bost urteko zikloari.

Plan estrategikoa ondoz ondoko zenbait fasetan egituratu da. Prozesua gogoeta estrategiko sakonarekin hasi zen, Kudeaketaren Jarraipeneko lantaldeak zuzenduta, eta bat egin zuten, gerora, Zuzendaritza Batzordeak eta haren batzordeek. Baterako lan horren ondorioz, Kudeaketaren Jarraipenak planaren zirriborro bat egin zuen, eta erakunde osoan partekatu zen, garrantzi bereziko parte hartzeko aldiari bide emanda: enpresako askotariko eremuetako pertsonen 135 ekarpen jaso ziren orotara, eta lagungarri izan ziren proiektu berriak bultzatzeko eta hasierako zirriborroan jada jasotakoak aberasteko.

Planak egiturazko elementuak — finkoak indarraldi osoan— eta

elementu dinamikoak —urtero berrikustekoak—. Lehenen artean daude kultura korporatiboari buruzko alderdiak —jomuga, misioa, balioak eta ikuspegia—, bai eta planaren oinarri diren lau ildo estrategikoak ere: Gobernu Korporatiboa eta Hiri Enpresa, Pertsonen Konpromisoa indartzea, Berrikuntza Zerbitzuetan eta Osasunaren Zainketa Humanizatzea, Segurtasuna eta Babes Ekonomikoa. Ildo estrategiko bakoitzarekin batera 2025eko horizontea duen etorkizuneko posizio bat dago, eta berariazko makroproiektuen, proiektuen eta ekintzen bitartez antolatzen da hura erdiestea. Urtero berrikusi beharreko elementu dinamikoen artean AMIA azterketa eta testuinguru-eszenatokiak daude.

2025aren hasieran, eta aurreko ekitaldietan aplikatutako metodologiari jarraituta, planaren urteko berrikuspena egin zen: proiektu guztien egoera aztertu zen, erronken lorpen-maila ebaluatu zen, eta beste AMIA bat egin zen, horrek proiektu estrategiko berriak identifikatzea ekarrita. Ekitaldiaren balantzeak oso emaitza positiboak erakusten ditu: lortzeko gelditzen ziren mugarrien % 88,33 bete dira; hala bada, ildo estrategikoen ondoriozko erronka gehienek behar bezalako erantzuna lortu dute. Bideak edo ixteko gelditu diren ekintzak eta proiektuak 2026-2030 aldirako Plan Estrategikoan sartuko dira eta jarraipena izango dute.



Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herriarren Enpresa

Arriskuen kudeaketa integrala

Mutualiak arriskuak kudeatzeko sistema integrala du, erakundearen gobernu-ereduan eta erabakiak hartzeko prozesuetan integraturik. Sistema horren helburua da jomuga (pertsonek osasuna, segurtasuna eta ongizatea bermatzea) betetzeko orduan eragina duten arriskuak identifikatzea, ebaluatzea eta kudeatzea, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean.

Mutualiako arriskuen kudeaketa, hiru defentsa-ildoetan oinarritutakoa, funtsezko elementua da erakundearen ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-arloko jasagarritasuna segurtatzeko, eta laguntzen du izan litezkeen inpaktuei aurrea hartzen eta interes-taldeek itxaropenekin bat egiten duen jardun arduratsua indartzen.

Arriskuen ikuspegia eta tipologia

Mutualiako arriskuak kudeatzeko sistemak jarduerarekin lotutako arrisku-tipologia nagusiak era egituratuan jasotzen ditu, eta haien artean hauek daude:

- Arrisku estrategikoak eta gobernu korporatiboarenak.
- Eragiketa- eta asistentzia-arriskuak.
- Araudia betetzearekin lotutako arriskuak.
- Informazioaren segurtasunarekin eta datuen babesarekin lotutako arriskuak.
- Laneko arriskuak eta laneko segurtasun- eta osasun-arlokoak.

- Ingurumen-arriskuak.
- Arrisku etikoak.

Ikuspegi honek aukera ematen du erakundearen arrisku-profila osotasunez eta modu integratuan ikusteko, eta errazten du eremu bakoitzaren araberrako prebentzio-, kontrol- eta jarraipen-neurriak zehaztea.

Arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea

Arriskuak sistematikoki eta aldizka identifikatu eta ebaluatzen dira, metodologia egiaztatuei jarraituta, eta horrek haien probabilitatea eta inpaktua baloratzea ahalbidetzen du.


Prozesua zeharka garatzen da

erakundearen maila eta arloetan, eta barne hartzen ditu bai barneko arriskuak, bai Mutualia jarduten den arau-, teknologia-, gizarte- eta ingurumen-ingurunearen ondoriozkoak.

Kontrolatu, egiaztatu eta segurtatzeko sistemak

LArrisku-kudeaketa barneko kontrol- ta egiaztapen-sistemetan oinarritzen da, sistema horiek Mutualiaren kudeaketa-ereduaren fidagarritasuna eta sendotasuna indartzen dituzte.

Erakundeak, aldiaren behin, bai barne-auditoriak (Zuzendaritza Batzordearen mendeko Auditoretza Batzordeak onetsitako plangintzarekin), bai



4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

erregelamenduzko eta ziurtatzeko auditoriak jasotzen ditu, honako esparru hauetan: kalitatea, ingurumena, laneko segurtasuna eta osasuna, compliance penala, informazioaren segurtasuna eta bestelako kudeaketa-sistemak, aplikatu beharreko legezko eta arauzko betekizunak, bai eta prozesuen etengabeko hobekuntza ere.

Gure sistemen sendotasunagatik, 2025ean honako sistema hauen jarraipenerako nahiz berritzeko auditoria guztiak arrakastaz gainditu ditugu:

- UNE 179003 «Pazientearen Segurtasunaren Arriskua Kudeatzea».
- UNE 179006 «Osasun-asistentziarekin lotutako infekzioen zaintza, prebentzioa eta kontrola».
- ISO 27001 «Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema».

- UNE 19601 «Compliance Penala Kudeatzeko Sistema».

Gainera, zenbait ziurtagiri berritu ditugu, berariaz arriskuen gaineak ez badira ere, haien egiturak arrisku-kudeaketari garrantzi handiagoa ematen baitiote:

- ISO 9001 «Kalitatea Kudeatzeko Sistema».
- ISO 14001 «Ingurumena kudeatzeko Sistema»
- ISO 50001 «Energia Kudeatzeko Sistema».
- ISO 45001 «Laneko osasuna eta segurtasuna kudeatzeko sistemak».

2025eko ekitaldian, aurrerapenak izan dira 2021-2025 aldirako Plan Estrategikoan jasotako «Arriskuaren Kudeaketaren Kultura Sendotzea» makroproiektua ezartzean. Izandako lorpen nabarmenen artean, honako hauek daude:

- Batez ere auditoretzako gomendioen ondorio diren arrisku-mapen berrikuspenak.
- Arrisku penalak eta informazioaren segurtasunaren arloko arriskuak ebaluatzeko berariazko metodologia ezartzea.
- Krisia Kudeatzeko prozedura onestea, eta Osasun-arloan Zerbitzuaren Jarraitutasun Planak ezartzen hastea.
- Etengabeko auditoretzaren irismena handitzea, bi programa berri garatuta: bat, nomina-gastuak kontziliatzeko, eta beste bat, banku-mugimenduak kontziliatzeko.
- Arriskuen ebaluazioari buruzko iritzia eta/edo arriskuen mapan zehaztutako kontrolak auditoretza-txostenetan sistematikoki sartzea.
- Zuzendaritza Batzordearen Auditoretza Batzordeak onetsitako barneko auditoretza-plana guztiz betetzea.



Kode Etikoa, Arrisku Penalen Prebentzio Plan eta Politika

Barneko informazio-sistema eta informatzailearen babesa

Mutualiaren «Kode Etikoa», Zuzendaritza Batzordeak 2015ean onetsitakoa, zeinaren indarreko testua 2021eko abenduaren 17ko berrikuspenari dagokion, gobernu korporatiboko sistemaren zati da eta egokitzapen etikoaren eta betetzearen (compliance) proiektuan sartzen da, 2021-2025 aldirako Plan Estrategikoaren zenbait ildotan jasota.

Haren garapen gisa, Mutualiak «Jokabide Profesionaleko Arau Orokorrak» (2022) onetsi zituen, oinarri hartuta erakundearen jomuga, misioa, balioak eta «Kode Etikoa» bera, bere enpresa-kulturaren oinarritzko elementu diren aldetik. 2025eko martxoan, Zuzendaritza Batzordeak arauen 3. berrikuspena onetsi zuen.

Mutualiak interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta kudeatzeko protokolo orokor bat du, Zuzendaritza Batzordeak 2022ko maiatzean hasierako bertsioan onetsia, eta indarrean den haren 1. berrikuspena 2023ko uztailan egin zen. Protokoloak barne hartzen ditu, Mutualiaren Kontratazio Publikoaren prozeduraren eranskin gisa, konfidentzialtasun-konpromisoa eta interes-gatazken prebentzioa eta debekuak adierazteko dokumentuak. Adjudikatutako kontratuek arrisku penala murriztera berariaz bideratutako klausulak dituzte.

«Delituak Prebenitzeko Politika» —indarrean den bertsioa 2024ko martxokoa da— bat dator «Gobernu Korporatiboaren Politika Orokorra»rekin. Azken hori 2019ko uztailan onetsi zuten hasiera batean eta zenbaitetan berrikusi da; indarrean den azken bertsioa 2024ko uztailakoa da (5.a). Biek ala biek ereduaren elementu nagusiak ezartzen dituzte, eta lotutako helburuak zehazten dituzte zigor arloko araudia betetzea bermatzeko. Mutualiako gobernu- eta partaidetza-organoen ordezkari diren kide eta pertsona fisiko guztiak, erakundeko Goi Zuzendaritzako langileak behartzen dituzte, haien maila hierarkikoa, kokapena eta eginkizunak edozein izanagatik ere, bai eta erakundeko gainerako langile guztiak

ere. Horiek guztiek edukia ezagutu eta bete beharko dute. Politika hori aplikagarri zaie, orobat, Mutualiaren izenean eta ordezkari jarduten duten hirugarren pertsonen.

Betearazpen Batzordea kide anitzeko organo bat da, eta ekimen- eta kontrol-ahalmen autonomoak ditu prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta egikaritzea gainbegiratzeko, Zigor Kodearen 31.bis.2.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. 2025ean, haren osaera eguneratu da, eta kide berri bat sartu da erretiroa hartuta kargua utzi duenaren ordeiz. Haren «Antolamendu eta Funtzionamenduaren Barne Erregelamendua» 2023ko uztailan onetsi zen, eta 2025eko azaroan berrikusi zen lehen aldiz. «Mutualiaren Informatzeko eta Informatzaileak Babesteko Barne Sistemaren Politika» garatzen du, zeina 2023ko maiatzean onetsi baitzen —indarrean den azken bertsioa 2024ko martxokoa da—.

2/2023 Legeak, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duenak, Betearazpen Batzordea ezarri zuen barneko informazio-sistemaren arduradun gisa. Informatzaileak Babesteko Agintaritzaren Independentea 2025eko irailean hasi zen jardunean, baina urte hartan ez zuen gaitu erakundeko barneko sistemaz arduratuko ziren pertsonak edo organoak jakinarazteko sistema. Mutualiak, berriz, 2026ko martxoan egin du jakinarazpen hori, Agintaritzak plataforma telematikoa gaitu ondotik.

Mutualiako Betearazpen Batzordeak ardura du, orobat, indarrean den araudiak arloetan zer eragin duen aztertzeke, eta erakundearen arrisku penalen mapa egitea gainbegiratzeko. 2025eko ekitaldian beste instrukzio bat onetsi da, arrisku penalak ebaluatzeko sistematikarekin, eta egokitu egin da Zigor Kodeak pertsona juridikoarentzat deskribatzen dituen delitu-tipoekin lotutako jokabideak aztertzeke metodologia.

Era horretan, Mutualiaren erantzukizun

penala prebenitzeko planaren funtsezko oinarriak hauek dira: «Kode Etikoa», «Delituak Prebenitzeko Politika», arrisku penalen mapa, betetzeari eta arrisku penalak prebenitzeari buruzko eskuliburua, «Jokabide Profesionaleko Arau Orokorrak», «Interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta kudeatzeko protokolo orokorra» eta «Informatzeko eta Informatzaileak Babesteko Barne Sistemaren Politika». Honako helburu hau dute: zaintza eta kontrol neurri egokiak ezartzen dituen antolakuntza eta kudeaketa eredu bat ezarri eta eraginkortasunez betetzea, delituak egiteko arriskua prebenitzeko edo modu esanguratsuan murrizteko.

Gainera, Mutualiak web-tresna bat jartzen du barneko nahiz kanpoko interes-talde guztien esku, Informaziorako Barne Kanala modura, 2/2023 Legeak ezarritako aplikazio-eremu material eta pertsonalean araudia ez betetzea dakarten egitateak deskribatzen dituen komunikazio oro jasotzeko, baita aurretik zehaztutako barneko arau, kode eta protokoloen dagokienez ere. Kanalak konfidentzialtasun, informatzaile-babes eta komunikazio-tratamendu arloko behar besteko bermeak ematen ditu.

Betearazpen Batzordeak bere kideak gaitzeko etengabeko programa ezartzen du. 2025ean, eguneratzeko askotariko jardunaldietan parte hartu dute berriz, eta haietatik nabarmentzekoa da haren bi kide matrikulatu egin direla CESCO eta IFCA compliance-ziurtagirietan (2026ko otsailan lortuta). Batzordeak hirugarren aditu baten aholkularitza eta laguntza juridiko-tekniko espezializatua eduki du, eta Mutuaia, era berean, Espainiako Compliance Elkarte (ASCOM) kide da, eta haren prestakuntza-programa zabala du erabilgarri.

Langileentzako aldizkako prestakuntzari dagokionez, BOGA kolektiboarentzako prestakuntza-ekintzak nabarmentzen dira: hiri-enpresako kudeaketa etikoari buruzko aurrez aurreko jardunaldia; erakundeko compliance-sistemari eta informaziorako barne-sistemari buruzko jardunaldi oroigarria, eta Mutuialian indarkeriak prebenitzeko sentsibilizazio-jardunaldia. Planifikatutako askotariko komunikazio-ekintzak gauzatu dira, betetzearen (compliance) gainera kultura erakundeko erantzukizun-maila guztietan zabaltzeko, eta hartarako era askotako kanalak baliatu ditugu barneko kontzientziazio eta komunikaziorako tresna modura.

AENOREk Mutualiaren sistemari ziurtagiria berritzeko audiotretza bat egin zion 2025eko azaroan (ENACEk egiaztatutako erakundea da, Compliance Penalak Kudeatzeko Sistemari buruzko UNE 19601:2017 arauaren arabera ziurtatzeko). Ziurtagiria 2019ko abenduan lortu zuen, eta 2023ko urtarrilean berri zuten lehendabizikoz; 2026ko urtarrilean berri zuten azkenekoz, 2027ko apirilaren 30era arte. Halaber, 2025eko UNE 19601 arau berriaren betekizunak aztertu dira sistemari egokitzeko.

Informazioaren segurtasuna eta datuen babesa

Mutualiak datu pertsonal sentikorrak kudeatzen ditu datuak babesteko araudi zorrotz baten pean (DBEO, DDBLO eta ENS), ziurtatutako neurri teknikoak eta antolakuntzakoak aplikatuz (ISO 27001), segurtasuna eta pribatutasuna bermatzen dituen diziplina arteko batzorde batekin.

Mutualiak, duen izaera juridikoagatik eta ematen dituen zerbitzu motagatik, datu pertsonalen askotariko kategoriak tratatzen ditu, legeriak kategoriatan bereizitako hartutakoak barne (osasunari buruzko datuak, kasurako).

Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren (DBEA) 17302/2018 irizpenarekin bat etorriz –189/2008 eta 350/2009 txostenetan jasotako irizpideak berresten ditu–, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutuak legez egotzitako jarduera gauzatzean kudeatzen dituzten datu pertsonalak tratatzearen erantzuletzat jotzen dira.

Mutualiak, honako arau hauei lotua egonik, zehatz-mehatz betetzen direla bermatu behar du: 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorra, apirilaren 27koa, Datu Pertsonalak Babesteko (DBEO); 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, eta batera aplikatu beharreko gainerako araudia.

Araudia betetzeko ereduak oinarri hartzen ditu informazioaren segurtasunerako eta datuen babeserako barneko politikak, eta datuak babesteko ordezkari (DBO) letradu bat, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren DBOren Eskemaren arabera ziurtatua.

Araudia betetzeko, Mutualiak teknika eta antolamendu arloko bere neurriak ezarri

ditu, barne hartuta arriskuak kudeatzeko sistema integral bat, arriskuaren araberako segurtasun-maila egokia bermatzeko, betiere sistemen, zerbitzuen eta datuen irisgarritasuna, osotasuna, erresilientzia, erabilgarritasuna, benetakotasuna, trazabilitatea, kontserbazioa eta konfidentzialtasuna bermatuta, haien efikazia egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko etengabeko prozesuen bitartez.

Araudia betetzeak izaera dinamikoa eta askotariko kasuistika dituen, Informazioaren Segurtasuneko eta Datuen Babeseko Batzordea (aurrerantzean, Segurtasun Batzordea) dago, Mutualiako Arriskuak Kudeatzeko Sistemaren 2. defentsa-lerroaren barruan. Batzorde horrek erakundearen jardueran informazioaren segurtasunarekin eta datuen babesarekin lotutako alderdi guztiak zaindu, sustatu, bultzatu, bideratu, informatu, kontrolatu eta gainbegiratzen ditu. Kide iraunkorrak dira bertan Informazio Sistemetak zuzendaria (Segurtasuneko arduraduna), Antolamenduko eta Arriskuen Kudeaketako zuzendaritza, Datuen Babeseko ordezkaria eta azken horri laguntzen dion teknikari juridiko bat.


2025ean zehar honako zeregin hauek nabarmendu dira:

- Segurtasun Batzordeak urtean 11 bilera egin ditu.

- DBEOren prozedurak, arauak eta barne-instrukzioak kudeaketa-prozesuetan integratzea:
- «Adimen Artifizialaren Gobernantza eta Erabilerarako Prozedura» onetsi da, 2024an onetsitako «Adimen Artifizialaren Politika»ren garapen gisa.
- «Kudeaketa Eskuliburua» eguneratu da Segurtasun Batzordearen eta DBOren eginkizunak eta zereginak berriz definitu eta argitzeko, interes-gatazkarik egon ez dadin.
- «Informazioaren Segurtasuneko eta Datuen Babeseko Sistemak, Gailuak eta Aplikazioak Ongi Erabiltzeko Arau Orokorrak» eguneratu dira, eta lau hilean behin argitaratu dira Mutualiako informazio-sistemetan saioa hastean.
- «Informazioa sailkatzeko eta etiketatzeko prozedura» onetsi da.
- «Bideozaintza-prozedura» onetsi da.
- «Datuak ezabatzeko eta kentzeko prozedura»ren zirriborroa berrikusi da.
- Ziberrarriskuak segurtatzea kontratatzeko prozedura gainbegiratu da.
- Osasun Datuen Europako Esparruari buruzko 2025/327 (EB) Erregelamendua aztertu da, Zuzendaritza Batzordean aurkezpene eta prestakuntza eginda. 2029ko martxotik aurrera aurreikusita dago

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

aplikatzea, Europako Batzordeak 2027ko martxoaren aurretik argitaratu beharreko zehaztapen teknikoek baldintzatuta. • “Informazioko eta/edo Datuen Babeseko Sistemetan segurtasun-gorabeherak kudeatzeko eta haiei erantzuteko prozedura” eguneratu da. • Zibersegurtasunari buruzko 2022/2555 NIS 2 Zuzentarauaren transposizioa egiteko legearen aurreproiektua aztertu da, batez ere segurtasun-arduradunaren figurari dagokionez. Parlamentuan noiz onetsiko eta BOEn noiz argitaratutako zain gaude, baita ezinbesteko erakundeen eta erakunde garrantzitsuen zerrendaren zain ere, Mutualian ezartzeko. • Datuak blokeatu eta ezabatzeko jarraibide bat onetsi da, datuak babesteko eskubideak erabiltzeko prozeduraren ondorioz. • Adimen artifizialeko sistemak eta ereduak dituzten zerbitzuak eskuratzeko kontratu-klausula tipoak onestea aztertzen ari gara; kontratatzekeko administrazio-baldintza partikularren agirietan jasoko ziren, AA sistemak erabiltzen dituzten hornitzaileei bete ditzaten eskatzeko. • «Adingabeei osasun-asistentzia emateko prozedura» onetsi da. • Mutualiaren estraneteko aplikazioko «Erabiltzeko Baldintzen Dokumentuak. Zibersegurtasuna» eguneratu da; hala, aplikazioko zibersegurtasun-neurriak egiaztatu dira, bi faktoreko autentifikazioaren (2FA) eskakizuna hartu da barne, balio-katean kalteberatasunik egon ez dadin.	• Mutualian NAN digitala irakurtzeko aukera koordinatu da, apirilaren 1eko 255/2025 Errege Dekretuaren arabera. • DLP (Data Loss Prevention) prozedura onetsi da. • Segurtasun-gorabeherak eta zuzentzeko ekintzak berrikustea eta monitorizatzea. • Datuen babesari eta konfidentziasunari buruzko klausulak etengabe berrikustea komunikazio, gune elektroniko, dokumentu eta kontratuetan: • Kontratu eta informazioko ereduak eta klausulak egitea bultzatzea, gainbegiratzea eta aholkularitza ematea. • Web korporatiboko lege-oharrak nahiz datuen babesari eta pribatasunari buruzkoak eguneratzea. • Tratamendu Jardueren Erregistroa (TJE) etengabe berrikustea; hau da, tratamendu-familiak sinplifikatzea eta moldatzea, legitimazio-oinarriak berrikustea eta TJEn Mutualiako gardentasun-atarian jasotzea interes-talde guztiek irisgarri izateko. • Datuetan sartzeko, haiek zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, haien eramangarritasunari buruzko eta haien aurka egiteko eskubideak erabiltzeko eskaerei eman beharreko arreta eta erantzuna koordinatzea eta gainbegiratzea. • Datuak Babesteko Espainiako Agentzian helarazitako erreklamazioen gaineko alegazioak formulatzea koordinatu eta gainbegiratzea. • Erakundeko pertsona guztiei etengabeko prestakuntza eta	sentsibilizazioa ematea, honako hauek nabarmenduta: • Zuzendaritzari NIS 2 Zibersegurtasunaren Zuzentarauaren Transposizioaren Legearen aurreproiektuari buruzko hasierako prestakuntza ematea. • Zuzendaritzari Adimen Artifizialaren Erregelamenduari (EB) buruzko hasierako prestakuntza ematea. • 2026ko Segurtasun Batzordeko kideentzako hurrengo CISO prestakuntza planifikatzea. • Proiektu berrien arriskuak aztertzea, eta gainbegiratzea, hala badagokio, datuen babesari buruzko inpaktu-ebaluazioak egitea. • Interes legitimoa (LIA) haztatzea legitimazio-oinarri hau duten tratamenduetan: ereduak berrikustea eta haztatzea, haiek egin eta pazienteren gertuko pertsonen emateko, kontrol-agintarien gidaliburu eta irizpideen arabera. • Arriskuen mapari egokitutako segurtasun-neurriak ezartzea. Mutualiak Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema bat ezarrita du, ISO/IEC 27001 nazioarteko estandarraren arabera, ENACek egiaztatutako erakundeak ziurtatua, lehen alderdiko (barnekoak) eta hirugarren alderdiko (kanpokoak) auditoretzekin. Segurtasun Eskema Nazionalaren (SEN) egiaztapena ere badu. Barne Auditoretzako arloak sistema etengabe ikuskatzen du, bai kontrol-auditoretzen bitartez, bai berariazko auditoretzen bitartez. Segurtasun Batzordeak oharren, ekintza gomendatuen eta betetze-mailaren etengabeko jarraipena egiten du.
---	--	---



Finantza-inbertsioen jokabide-kodea

Mutualiak «Irabazi-asmorik gabeko erakundeek balore-merkatuan aldi baterako finantza-inbertsioak egiteari buruzko jokabide-kodea» betetzen du. Kode hori, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren 2019ko otsailaren 20ko Erabakiaren bidez onartu, eta 2019ko martxoaren 5eko BOEn argitaratu zen, Balore Merkatuari buruzko Legearen testuategina onartzen duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Mutualiak egiten dituen finantza-inbertsio guztietara zabaldu ditu kode hori eraentzen duten printzipioak. Horretarako, erakundearen izaerarekin bat datorren inbertsio-politika definitu du, zeinak autoritatea eta independentzia dituen barne-kontroleko organo bat baitu, inbertsio-politika betetzen dela egiaztatzeaz arduratzen dena. Halaber, finantza-inbertsioen batzorde bat ere sortu du, ezagutza tekniko nahikoak dituzten zuzendaritzakidez osatua, eta, batzorde horrek, berebat, hirugarrenen aholkularitza profesionala du.

Adierazle hauek zehaztu dira inbertsioen jokabide-kodea betetzen dela bermatzeko, eta 2025eko ekitaldian izan dituzten balioak eskuineko taulan jaso dira.

Aipatutako finantza-inbertsioen jokabide-kodea betetzeaz gain, Mutualiak bete egin du Mutuen kudeaketan elkarlanean aritzeari buruzko erregelamendu orokorra aldatzen duen azaroaren 14ko 1622/2011 Errege Dekretuak 30. artikuluan

Inbertsioen adierazleak

Adierazlea	2024	2025
Epe laburreko likidezia (Egokia 1 eta 1,5 artean; 2 baino gehiagok Diruzaintzako soberakina adierazten du)	1,5215	1,4688
Segutasuna (onartutako gutxienekoa S&P-ren arabera)	BBB	A
GS errentagarritasuna (Gizarte Segurantzaren Kudeaketako Diruzaintzako guztizkoa)	%1,29	%1,41
OH errentagarritasuna (Ondare Historikoaren Kudeaketako Diruzaintzako guztizkoa)	%2,90	%1,926
Eragiketa espekulatiboan zenbakia	Ninguna	Ninguna

ezarritakoa.

Aurten, 2025. urtean, aurreko bi ekitaldietan bezala, Mutualiak ez du betetzen elkarlanean aritzeko erregelamenduaren 30. artikulua, erreserbak gauzatzeari buruzkoa: «... mutuek erreserben ehuneko 80ren baliokidea den aktiboko zenbatekoa izan beharko dute une oro ekitaldi ekonomikoan, motaren bateko kreditu-arriskua duten aktiboetan gauzatuta». Ez betetzearen arrazoia da baliabide likido guztien eta eskudiru finantzarioen

batura ez dela aski saldoa estaltzeko (69 870 072,03). Hala, defizitaren zenbatekoa, 2025eko abenduaren 31n, 10 610 540,14 € da.

Azkenik, prozesua ahalik eta gardenena izan dadin eta finantza-inbertsioen jokabide-kodeari jarraikiz, Mutualiak «Jokabide-kodearen betetze-mailaren gaineko Inbertsioen Batzordearen txostena» egiten du urtero, Zuzendaritza Batzordeak onartu behar duena eta gero enpresariei aurkezten zaiena ohiko batzar nagusian.

Kudeaketa ekono- mikoaren adierazleak

Jasangarritasun ekonomikoa eta Gizarte Segurantzaren baliabideen eta ondare historikoaren kudeaketaren optimizazioa kudeaketa aurreratu eta etikoaren bidez baino ez da posible.

Entitate kaudimenduna izateak erreserben estaldura-maila egokiak mantentzea eskatzen du. Atal honetan ageri diren adierazle ekonomikoak entitateak dituen baliabideen arabera egiten duen kudeaketa globalaren ondorio dira. Hala ere, azken bi urteetan, kontingentzia arrunteko prestazioen ordainketetan igoera izan da, eta agerian geratu da kontingentzia hori azpifinantzatuta dagoela. Ondorioz, emaitzen kontu negatiboak orokortu dira Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuetan, eta horrek kaudimen-arazoak sor ditzake epe ertainera.

Egoera hori arintzeko, 2025ean finantzaketa gehigarriko mekanismoak ezarri dira, abenduaren 26ko PJC/1473/2024 Aginduan jasotakoa, kasurako. Agindu horren arabera, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean

508,12

KOBRATUTAKO KUOTENGATIKO DIRU-SARRERAK, MILIOI EUROTAN

0,76

ONDARE HISTORIKOAREN KONTUKO EMAITZA, MILIOI EUROTAN

Gizarte Segurantzaren kudeatzeko kontuaren adierazle garrantzitsuak

Adierazlea	2024	2025
Gizarte-kotizazioen diru-sarrerak(kobratutako kuotak) (milioi eurotan)	478,4	508,12
Gizarte Segurantzako kontuaren kudeaketaren emaitza (milioi eurotan)	0 ¹	0 ¹
Laneko kontingentzien erreserben estaldura	%23,95	%22,41
Kontingentzia arrunten erreserben estaldura	%5	%5

Ondare Historikoa kudeatzeko kontuaren adierazle garrantzitsuak

Adierazlea	2024	2025
Ondare historikoaren errentagarritasuna	%38,20	%49,42
Ondare Historikoaren kontuaren kudeaketaren emaitza (milioi eurotan)	0,62	0,76

aritzen diren mutuek 0,07ko eta 0,033ko koefiziente bereziak jaso ahal izango dituzte, finantza-eskasia dagoenean. Kontingentzia arrunten eta kontingentzia profesionalen erreserben aplikaziorako edo zuzkidurarako banatu beharreko emaitzen batura negatiboa bada dagokion koefizientea aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa kontuan hartu ondoren, kuota-zatikia handituko da aipatutako emaitzen batura negatiboa den bitartean, eta gehieneko muga izango da Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko besteren konturako kuoten gaineko 0,08leko koefizienteari dagokiona.

[1]2025ean, nahiz eta Mutuak kontingentzia profesionalen kudeaketatik 62,5 milioi euro lortu dituen, finantzaketa gehigarriaren gehieneko zenbatekora jo behar izan du kontingentzia arrunten galerak konpentsatzeko, eta, horregatik, bukaerako emaitza 0 da.

Informazio ekonomiko eta finantzario osoa memoriaren 10. atalean zehaztuta dago.


Hurrengo orrialdetan kudeaketa ekonomikoko beste adierazle garrantzitsu batzuk dituzten taulak ikus daitezke.

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

Prestazioetako zenbatekoak

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Gertakizun arruntengatiko Aldi baterako ezintasuna eta bestelako prestazioak + 60 egun	206.096.627 €	221.426.682 €	%7,44
Gertakizun profesionalengatiko Aldi baterako ezintasuna eta bestelako prestazioak + 60 egun	53.105.132 €	57.232.286 €	%7,77
Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskua	19.290.729 €	20.172.097 €	%4,57
Gertakari profesionalen ondoriozko sekuelak eta heriotzak	35.395.289 €	37.476.654 €	%5,88
Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzea	8.200.852 €	10.294.465 €	%25,53
Langile autonomoen jarduera etetea	3.021.114 €	2.944.231 €	%-2,54
Total	325.109.743 €	349.546.415 €	%7,52

Kontingentzia arruntengatiko aldi baterako ezintasuneko prestazio ekonomikoen zenbatekoaren bilakaera versus kontingentzia arruntetako batez besteko afiliazioa (azken 8 urteak)



4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

Prestazioen zenbatekoen %, horietako bakoitzean sartutako kuotei dagokienez

Adierazlea	2024	2025
Gertakizun arruntengatiko aldi baterako ezintasuna eta bestelako prestazioak+ 60 egun	%189,07	%196,99
Gertakizun profesionalengatiko aldi baterako ezintasuna eta bestelako prestazioak+ 60 egun	%16,36	%16,93
Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskua	%5,94	%5,97
Gertakari profesionalen ondoriozko sekuelak eta heriotzak	%10,90	%11,09
Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzea	%2,53	%3,05
Langile autonomoen jarduera etetea	%44,59	%43,23
Kuoten inguruko prestazioen ratio orokorra	%73,83	%76,44

Kontingentzia profesionalaren adierazleak

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Bajaren batez besteko iraupen ekonomikoa (egunak)	43,42	45,40	%4,56
Baja ekonomikoaren eragina	40,06	38,82	%-3,10
Egun ekonomikoak langile afiliatu bakoitzeko	1,78	1,80	%1,12
Ezbehar-kopuru osoa x 1.000	79,9	74,69	%-6,52
Baja duten ezbeharrak x 1.000	38,14	36,83	%-3,43

Kontingentzia arruntaren adierazleak

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Alta-prozesuen batez besteko iraupena (egunak)	40,07	46,21	%15,32
Eragin ekonomikoa (%)	145,44	146,37	%0,64
Alta-proposamenak	4.907	4.693	%-4,36

Baliabideen kudeaketa


2025ean, Baliabideak Kudeatzeko arloak jarduera gehienbat bideratu du baliabide-administrazioan efizientzia eta efikazia indartzera eta gure barneko nahiz kanpoko bezeroei zerbitzuak ematera. Zuzendaritza honek barne hartzen ditu erosketak eta erosketa publikoa, obrak, instalazioen mantentze-lanak eta hobekuntza, eta zerbitzu orokorrak, eta zuzeneko laguntza ematen dio Mutualiaren osasun- eta administrazio-jarduerari. Helburu hori lortze aldera, honako jarduera-ildo hauek garatu ditugu, besteak beste:

- Kontratazio-prozedurak zehatz berrikustea aplikatu beharreko araudira zorrotz egokitzen direla bermatzeko; hobekuntzak identifikatzea, eta sailek ondasunak, obrak eta zerbitzuak kontratatzeko egindako eskaerei bizkor, efizientziaz eta segurtasun juridiko osoz erantzutea.
- Arloetako arduradunei prestakuntza eta administrazio-laguntza ematea, eta kontratazioaren arloan dituzten jakintzak eta gaitasunak indartzea.
- Espedienteak eta kontratuak izapidetzeko behar den dokumentazioa eguneratzea, aplikatu beharreko lege-xedapen berrien arabera.
- Hornitzaileekiko harremana indartzea

%75,20

TOKIKO HORNITZAILEETAN EGINDAKO GASTUAREN PROPORTZIOA

Kontratazio-zenbatekoaren banakapena, lurraldeka



- eta bertako enpresek kontratazio-prozeduretan parte har dezaten sustatzea, berdintasunaren, gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetaturik.
- Arduradunek kontratuak gauzatzearen gaineko jarraipena eta kontrol sistematikoa egitea, eta bermatzea haiek betetzea, emandako zerbitzuen kalitatea eta portaera etiko, arduratsu eta jasangarria izatea.
 - Mutualiako arlo guztiekiko komunikazio arina bermatzea, premiak aurreikusita, eta jarduera garatzeko behar dituzten ondasunak eta zerbitzuak epearen barruan eta efizientziaz jasotzen

- dituztela ziurtatzea. Koordinazioa premien programazio sistematikoan oinarritzen da; urteko kontratazio-programa batean zehazten da, eta etengabeko jarraipena egiten zaio ezarritakotik aldendu ez dadin.
- Behar diren mantentze-lanak, obrak eta konponketak egitea eraikinek egoera egokia izan dezaten, eta gune asistentzialak are gehiago hobetzea eta humanizatzea, ingurune seguruak, irisgarriak eta funtzionalak bermatzeko.
- 2025eko ekitaldian, erosketak eta kontratazio-taldeak 30,6 milioi euro kudeatu ditu; haietatik % 75,20 EAEko

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

hornitzaileekin kontratatatu dituzte, aurreko orriko grafikoan ageri den banakapenaren arabera.

Fakturatutako guztizkoa 133 lizitazio-espeditentetan, 6 kontratu txikitan eta zuzenean erosteko eskaera ugarietan banatu da. Haietatik guztietatik 2.942.197,59 euroko errentagarritasuna lortu da, gehieneko tarifikak jaitzi direlako eta prezioei eutsi zaielako, zeinek, normalean, eragina ondorengo ekitaldietako emaitzen kontuan izaten duten.

Halaber, berariazko ahalegina egin da obren, ondasunen eta zerbitzuen zuzeneko adjudikazioa gutxitzeko, eta bideratzeko, ahal den neurrian, prozedura irekien bitartez egitera, SPKLaren printzipio inspiratzaileak betetzea indartuta.

Ikuspegi horri esker zuzeneko adjudikazioak beheranzko joera izan du; hain zuzen ere, 2023an 1.188.067,80 eurokoa izatetik 2024an 860.141,62 eurokoa eta 2025ean 234.592,12 eurokoa izatera igaro da. Horrenbestez, 2025ean % 72,73ko murrizketa egon da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Horrekin batera, sustatutako lizitazioak 133 izatera iritsi dira 2025ean (adjudikatu gabeko espeditenteak barne); alegia, % 22,02ko gorakada egon da 2024koekin alderatuta. Jardueraren arloan, ekitaldiko kontratu-plangintzaren jarraipen eta ebaluazioa eginda, urte hasieratik amaierara arte izapidetutako kontratu-bolumenean % 44,75ko gorakada dago. Hain zuzen ere, zuzeneko adjudikazioa gutxitzeko, munta txikiko 55 kontratazio sustatu dira, eta errepikatuak izanik, lizitazio-prozeduren bitartez bideratu dira.

2025ean, indartu dira oraindik kontrol-mekanismoak, etengabeko hobekuntza eta berrikuntza, oso helburu zehatzarekin: erabiltzaileen eguneroko lana erraztea, trazabilitatea handitzea eta baliabideen erabilera efizienteagoa bermatzea. Aurrerapenean Mutualiako beste arlo batzuen lankidetzak funtsezkoak izan da (batez ere: Informazio Sistemak, Ekonomiko Finantzarioa, Gai Juridikoak, Arriskuak eta Barneko Auditoretza); hori horrela, honako hobekuntza eta automatizazio hauek ezarri dira:

- Gastua aldeztu aurretik onartzea. Lizitazioen eta kontratu txikien ondorio ez diren eskari guztien gastua nahitaez onetsi beharra ezarri da.
- Espedienteen kudeatzailea. Erosketak eta Kontratazioarako dokumentu-kudeatzaile bat ezarri da; aukera ematen du SAP aplikazioan espedienteetan sortutako dokumentazioa gordetzeko eta kontsultatzeko, eskariekin eta kontratuarekin lotuta.
- «Kontratazio-espeditenteen justifikazio-memoria» eguneratzea. Kontratuaren indarraldian iraun beharko duten gauzatzeko baldintza bereziak, kaudimen-irizpideen justifikazioa eta, hala badagokio, sailkatzeko irizpideena gehitu dira, bai eta balorazio-irizpideen justifikazioa ere. Era horretan dokumentu-kalitatea, segurtasun juridikoa eta auditoretza egiteko aukera hobetzen dira.
- Osasun-zerbitzuetan baliabide nahikorik ez dagoela justifikatzea baliabide pribatuetara bideratzeko. «I 04.10/34 jarraibidea – Baliabide nahikorik ez dagoela justifikatzeko sistematika, osasun-zerbitzuak baliabide pribatuekin kontratatzeak» eta lotutako «M 04.10/51 ereduak – Baliabide nahikorik ezarri buruzko txostena» egin dira.
- Barneko auditoretzan oinarrituta kontrolak indartzea (arriskuen mapa). Arriskuen maparen barneko auditoretzaren ondorioz, jarraibideak, ereduak eta dokumentu lagungarriak ezarri dira kontrolak indartzeko, irizpideak argitzeko eta espedienteen trazabilitatea handitzeko:
 - «I 04.10/36 jarraibidea – Merkatuko prezioetara eta aurrekontu zuzenera egokitzea» jarraibidea.
 - «I 04.10/07 jarraibidea – Premiak balidatzea» eguneratzea.
 - Kontratu txikietan, 3.000 eurotik beherakoetan, gastua aldeztu aurretik onestea eta kreditua dagoela egiaztatzea gehitu da.
 - «I 04.10/18 jarraibidea – Araudi harmonizatuko eta harmonizatu gabeko kontratuak» eguneratzea. Jarraibidea osatu da dokumentu eta irizpide lagungarriak gehituta, izapidetzea homogeneizatzeko eta

prozeduraren kontrola indartzeko:

- «Adjudikatzeko proposamenaren txostena» ereduak.
- «Balorazio subjektiboko dokumentua».
- «Espedientea adjudikatu gabe ebatzea» ereduak.
- «D gutun-azalaren checklista» dokumentua.
- «I 04.10/16 jarraibidea – Fakturak balidatzea» eguneratzea.
- Presako kasuetan osasun-asistentzia kontratatzea. «I 04.10/35 jarraibidea – Presako kasuetan osasun-asistentzia ematea kontratatzeak jarraibidea» sortu da, baita harekin lotutako «M 04.10/49 ereduak – Kudeaketako Zuzendaritzaren ebatzpena, Presako kasuetan osasun-asistentzia emateko kontratua erabaki eta justifikatzeko» ere.
- Kontratazio-jardunbide egokiak gidatzea. Barneko gidatze bat ezarri da, barne hartuta printzipioak, adibideak eta pautak praktikoak, irizpide erakundeak eta jardun-esparru partekatua errazteko. Dokumentua lagungarria da izapidetze homogeneo eta efiziente izateko, segurtasun juridikoa indartzeko eta esku hartzen duten arloen arteko lankidetzak arinagoa laguntzeko.

2025ean, Mutualiak bidaia korporatiboaren eta pazienteen bidaien kudeaketa hobetzeko ekintza bat ezarri du Enpresa Bidaien Kudeatzaileen Espainiako Elkartearen (AEGVE) sartuta. Mutualiak horri esker Business Travel sektoreko jakintza eguneratua eta jardunbide egokiak bildu ditu.

Orotara, jarduketek baliabide-kudeaketa zeharkako laguntza-arlo modura finkatzen dute: zentroen jarraitutasun operatiboa, araudi- betetzea eta gastu-kontrol arduratsua bermatzen ditu; kontratazioan irizpide sozialak eta ingurumenekoak sartzen dira, eta informazioaren nahiz pazienteen segurtasuna laguntzen da prozesu argi, trazagarri eta ikuskagarrien bitartez. Hala bada, eguneroko kudeaketa Mutualiaren balioekin bat eginarazten da, eta efizientzia, erantzukizunean eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako jasagarritasuna are gehiago lortzen da.

Ingurumen- kudeaketa

Interes-taldeek ez dute materialtzat jotzen ingurumenaren kudeaketa, besteak beste, Mutualiak dagoeneko bide luzea egin duelako gai horretan, legea betetzetik harago, eta, halaber, ez dutelako uste erakundearen jarduera-motak ingurunean eragin negatiborik sortzen duenik.

Baliabide-kudeaketako ingurumen-alderdiei dagokienez, Mutualiak honako printzipio hauen jarraipena egiten du oraindik erosketa eta kontratazio arduratsurako:

- Gure ingurunean inpaktu handia duten materialen erosketa eta erabilera GUTXITZEA.
- Ingurumen-irizpideekin eta erosteko beharra aztertuta EROSTEA.
- Hornitzaileak BULTZATZEA sortzen dituzten hondakin guztiak kudeatzera.
- BERRERABILTZEA, «kendu» behar diren baliabideak arloen eta pertsonen eskura jarrita.
- SENTSIBILIZATZEA Mutualian eta gure etxeetan egin ditzakegun ekintzen eta ekimenen bitartez.

2025ean, Mutualiak GJHen aldeko Euskal Aliantzarekin bat egin du, 2030 Agenda Foroaren esparruan (Guneak

eremua), eta indartu egin du 2030 Agendarekin eta erakundearen arteko lankidetzarekiko konpromisoa, batez ere 17. GJHaren esparruan (Aliantzak). Bat-egite horrek urrats bat gehiago dakar jasangarritasuna mutuaren estrategiaren zeharkako ardatz gisa integratzeko bidean; hori horrela, bere jarduera garapen jasangarriaren helburu globalekin bateratzen ditu, eta aktiboki laguntzen ditu euskal lurraldean bultzatutako lankidetzasareak.

Mutualiak jasangarritasunaren alde hartutako konpromisoaren ildotik, eta Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berderako 2030eko Programaren barruan (IHOBE), Mutualiak lizitazioetan irizpide sozialak eta ingurumenekoak sartzea sustatu du oraindik, enpresa adjudikaziodunentzako gauzatze-betekizun eta -baldintza gisa.

Ikuspegi horrek aukera ematen du jasangarritasunari buruzko barne-politiken inpaktua erakundetik haratago zabaltzeko, eta ingurumen-balioak eta -eskakizunak hornidurakate osora eramateko.

2025ean, Mutualiak zenbait jarduketa egin ditu kutsadura prebenitzeko, baliabideak efizientziaz kudeatzeko eta plastikoen kontsumoa murrizteko, legea zorrotz betetzetik haratago joanda. Ildo horiek hobekuntza zehatzak dituzten espedienteetan zehaztu dira —CO₂-ren emisioak gutxitzea, energia berdea sustatzea, enbalajeetan plastikoak murriztea eta baliabideen nahiz altzarien bizitza baliagarria handitzea—. Haien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Papera, ontziak eta enbalajeak murriztea: 2025ean gehitutako irizpideek enbalaje berrerabilgarriak

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

- eta/edo birziklatutako eduki handikoak lehenesten dituzte osasun- eta higiene-arloko askotariko horniduretan, bai eta digitalizatzeko neurriak ere paper-euskarria gutxitzeko. Adibide gisa, espediente hauek nabarmentzen dira: 2025/021/01 (dokumentuak kudeatzeko sisteman dokumentazio asistentziala digitalizatzea eta integratzea) eta 2025/053/01 (garbiketa eta higienarako materialak ingurumen-ikuspegiarekin), baita material sanitarioko lizitazioak ere, zeinetan kutxa berrerabilgarriak edo % 50 gutxienez material birziklatua dutenak erabiltzea baloratu baita (adibidez, 2025/010/01 eta 2025/107/01).
- Zerbitzuak ematean ingurumen-inpaktua murriztea: gauzatzeko baldintza eta balorazio-irizpide zehatzak indartu dira, haien bitartez, hain zuzen ere, hondakinen kudeaketa efikaza, ingurunea gehiago errespetatzen duten produktuak nahiz jardunbideak erabiltzea eta mugikortasunarekin lotutako emisioak murriztea sustatzeko. Adibide gisa honako espediente hauek nabarmentzen dira: 2025/006/01 (ikuztegia, hondakin-kudeaketa eta ingurumen-efikaziako betebeharrekin), 2025/019/01 (garbiketa, hondakinen gaikako biltzea barne), 2025/091/01 eta 2025/108/01 (garraio sanitarioa, ECO/0 bereizgarria duten anbulantziak baloratuta), 2025/114/01 (hondakin ez-sanitarioen kudeaketa eta balorizazioa/ezabapena) eta 2025/115/01 (erregulamenduzko mantentze-lanak, ISO 14001 edo baliokidea eskatuta).
 - Plastikoak gutxitzea edo ezabatzea: plastikoen erabilera eta hondakin nahiz enbalajeen kudeaketa hobetzeko irizpideak sartu dira, batez ere altzarien eta ekipamenduaren horniduretan. Adibide gisa, 2025/050/01 espedienteen hondakinen eta enbalajeen

- kudeaketa baloratzen da (mota, kantitatea, birziklagarritasuna eta berrerabiltzeko aukera) eta 2025/078/01 espedienteen birziklatzeko zakarrontzien hornidura gehitzen da.
- Energia-efizientzia: horniduretan eta zerbitzuetan energia aurrezteko eta ingurumena hobetzeko irizpideak sartu dira; hala bada, jardun hobeak duten ekipamenduak eta kontsumoak murrizten dituzten irtenbideak lehenetsi dira. Adibide modura, honako hauek nabarmentzen dira: 2025/011/01 (ekipamendu informatikoa ingurumen-irizpide eta ziurtagiriek), 2025/013/01 (toldoak Gasteizko Erabakimen Handiko Ospitalean eraikineko eguzki-babesa eta efizientzia hobetzeko), 2025/020/01 (irudi bidezko diagnostikoa, energia- eta ingurumen-efizientzia baloratuta) eta 2025/049/01 (poltsaratzeko makina, kontsumo, emisio eta zarata kantitate txikiagoa

baloratuta).

Orri honetan eta hurrengoan dauden tauletan Mutualiaren kontsumo eta hondakin nagusien konparazioa dago: energia-kontsumoak (iturriaren arabera eta guztizkoa), ur-kontsumoa eta paper-/kartoi- eta toner-kontsumoak, bai eta hondakinen sorrera, urtetik urterako aldakuntza (%).

Ondorioz, Mutualiak kontratazio publikoa eskuratzeko tresna gisa ulertzeaz gain, trakzio-bide modura ere ulertzen du hornitzaileen eta enpresa adjudikaziodunen sare osoan ingurumen- eta jasangarritasun-neurriak bultzatzeko. Horregatik, 2025ean baldintza-agirietan betekizunak, balorazio-irizpideak eta gauzatzeko baldintzak gehitzen jarraitu da baliabideak efizientziaz erabiltzen, hondakinak nahiz emisioak gutxitzen eta barne-politikekin bat datozen jardunbideak laguntzeko, eta indartu egin da, gainera, hornitzaileekin eta arlo erabiltzaileekin partekatutako konpromisoa.

Energia eta uraren kontsumoa

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Elektrizitatea ¹	58,33%	60,74%	%4,13
Gas naturaleko ¹	26,05%	24,62%	%-5,48
Biomasa ¹	15,63%	14,65%	%-6,27
Ura M ³	8.472,94	9.086,64	%7,24

[1] Energia-kontsumo osoaren gaineko %.

Energia-kontsumoa iturriaren arabera

Adierazlea	2023	2025	▲▼ %
Elektrikako gigajouleak (berdea)	7.710,08	7.856,53	%1,90
Gas naturaleko gigajouleak	3.442,75	3.184,09	%-7,51
Biomasa-gigajouleak	2.065,38	1.894,75	%-8,26
Baterako sorkuntzako gigajouleak	62,73	79,58	%26,86
Total	13.280,94	13.014,95	%-2,00

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

Ikuspegi horren osagarri etengabeko ahalegin bat dago, orobat, baliabide-kudeaketak bultzatua, Mutualiako zentroen funtzionamenduari lotutako kontsumoak sistematikoki gutxitzeko (energia, ura eta materialak), prebentzio-neurriak eta etengabeko hobekuntzak lehenetsita. Esparru horretan, bereziki nabaria da eraikinen kudeaketa eta mantentze-lanetako taldeak etengabe egindako lana; izan ere, instalazioen egoera ona eta efizientzia bermatzen ditu, aurrezteko aukerak identifikatzen ditu, eta gune asistentzialei eta administratiboei laguntzen die jasagarritasunak egunerokoan emaitza operatiboak ekar ditzan. Zentroen ohiko kudeaketan ikuspegi hori gehitzeak aukera ematen du eguneroko erabakiek ezarritako ingurumen-helburuei ekarpen metagarria egiteko.

Azken batean, baliabide-kudeaketak 2025ean egindako lanak ekarpen erabakigarria egin du Mutualiak jarduera asistentziala eta administratiboa berme guztiekin garatu ditzan, beharrak aurreratuta, zentroen eragiketa sostengatuta, eta kudeaketa arduratsua nahiz efizientea sustatuta. Ahalegin kolektibo horrek, zeina oinarritua baitago profesionaltasunean, gainerako arloekiko koordinazioan eta etengabeko hobekuntzan, indartu egiten du zerbitzuaren kalitatearekin, jasagarritasunarekin eta baliabideen erabilera onarekin hartutako konpromisoa, osasunaren zerbitzura betiere.

%5,48

GAS NATURALAREN KONTSUMOA MURRIZTEA

%12,10

RPERTSONA BAKOITZEKO PLASTIKOZKO HONDAKINAK MURRIZTEA

Paper, kartoi eta tonerren kontsumoa

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Paper- eta kartoi-kilogramoak ^b	7.317,79	7.819,73	%6,86
Paper- eta kartoi-kilogramoak pertsonako ¹	11,33	11,96	%5,56
Toner-kilogramoak ^b	704	693	%-1,56
Toner kilogramo pertsona bakoitzeko ¹	1,09	1,06	%-2,75

[1] Batez besteko plantilla kontuan hartuta (654)
[b] birziklatzea

Hondakinak

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Paper- eta kartoi-kilogramoak ^b	25.262,00	23.099,00	%-8,56
Paper- eta kartoi-kilogramoak pertsonako ¹	39,1	35,3	%-9,72
Toner-kilogramoak ^b	704	564	%-19,89
Toner-kilogramoak pertsonako ¹	1,09	0,86	%-20,99
Argiteria-kilogramoak ^{*b}	5	0	%-100,00
Argiteria-kilogramoak pertsonako ¹	0,007752	0	%-100,00
Pila-kilogramoak ^{*b}	23	26	%13,04
Pila ² -kilogramoak pertsonako ¹	0,035659	0,039755	%11,49
Plastiko-kilogramoak ^b	1701	1516	%-10,88
Plastiko-kilogramoak pertsonako ¹	2,637209	2,318043	%-12,10
Kutsatutako biosanitario-kilogramoak ^{*e}	1.343,55	1497	%11,42
Kontsulta bakoitzean kutsatutako biosanitarioen kilogramoak ³	0,006959	0,007989	%14,80
Baztertutako sendagaien kilogramoak ^{*e}	192	220,75	%14,97
Kontsulta bakoitzean baztertutako sendagaien kilogramoak ³	0,000994	0,001178	%18,51

[1] Batez besteko plantilla kontuan hartuta (654)
[2] Mutuarian erabiltzen diren pilak, erabiltzaileek gure bilketa-puntuetan emandakoak
[3] Kontsultak: Lehenengoak, hurrengoak eta ebakuntza kirurgikoak (187.376)
[*] Hondakin arriskutsua. [b] birziklatzea. [e] erraustea.

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herriarren Enpresa

Mutualiako langileek gizartearekin duten inplikazioa

Mutualiak erkidegoan eta ingurunean eragin positiboa duten ekintzak etengabe egiten ditu, gizarte-eremuko jasagarritasunarekin hartu duen konpromisoarekiko koherentziaz. Jarduketak elkarrekin, administrazio publikoekin eta bestelako gizarte-erakundeekin egindako aliantzen bidez antolatzen dira, gehienbat osasuna, ongizatea, berdintasuna eta inklusioa sustatze aldera.

Ingurunearekiko interakzio sistematikoa etengabeko taldeen bitartez egiten da (adibidez, Ekimen eta Jarduera Sozialen Taldea eta BOLUNTALIA; 20 urte sorreratik); hala, gizarte-ekintzako ekimenen identifikazioa, diseinua eta jarraipena kanalizatzen dituzte. Taldeek Mutualiaren politiken, balioen eta printzipio etikoen arabera jarduten dute, eta ekintzek erakundearen konpromiso publikoekin koherentzia dutela bermatzen dute.

2025ean, BOLUNTALIA Ekimen eta Jarduera Sozialen Taldeak sentsibilizatzeko, funtsak, dohaintzak biltzeko eta boluntario-jarduerak egiteko kanpainak bultzatu ditu, gizarte-erakundeekin elkarlanean, eta eragina izan dute askotariko eremuetan, hala nola gizarte-justizian, prebentzioan eta kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboentzako arretan. Lankidetzak horiek batez ere egiten dira diru-ekarpenen bitartez, ondasunen berrerabilera solidarioaren bidez eta Mutualiako boluntarioek gizarte-proiektuetan zuzenean parte hartuz.

Ekitaldi honetan Mutualiaren Gizarte Monetizazioa eguneratu da. Emaitzak memoria honetan jasotzen dira, erakundearen jardueraren eta gizarte-ekimenen bitartez sortutako gizarte-balioa kuantifikatzeko.

Mutualiako pertsonak irabazi asmorik gabeko erakundearen proiektuen parte hartzea gizarte-ekintzaren ereduaren funtsezko elementu bat da, lagundutako

Mutualiak 2025an lankide izan zituen erakundeak



ekimenen zuzeneko ezagutza izatea ahalbidetzen baitu eta inpaktua diru-ekarpenetik haratago indartzen baitu. Ikuspegi horri esker erakunde laguntzaileekiko harremanak indartzen dira eta denboran dirauten aliantza egonkorak finkatzen dira.

Etengabeko lanaren ondorioz, Mutualiak elkarte eta erakunde sozialen aitortza du, eta foro, biltzar, jardunaldi eta elkartruckerako guneetan parte hartzera gonbidatzen dute, gizarte-inpaktuaren arloko lankidetzak eta elkarrekiko ikaspena indartuta.

2025eko ekintza nagusiak:

- 14.618 € bildu dira gizarte-inpaktuko

proiektuetarako

- Diru-bilketa, dohaintza, berrerabilera solidario eta boluntariotzako kanpainak
- Lankidetzak osasunean, prebentzioan eta gizarte-justizian inpaktua duten erakunde sozialekin

Inpaktu-eremuak:

- Osasuna eta ongizatea
Gizarteratzea Berdintasuna eta aniztasuna Prebentzioa.

Ikuspegi diferentziala:

- Mutualiako pertsonak zuzenean parte hartzea, eta lagundutako proiektuak zuzenean ezagutzea.

Gizarteari itzulitako balioaren monetizazioa

Balio sozialaren monetizazioaren kontzeptuak garbi islatzen ditu Mutualiak gizartearekin duen konpromisoa eta hartan eragiten duen inpaktua. Metodologia horrek, zeina ekonomia sozialaren printzipioetan oinarritzen baita, erakundeak ingurune sozialean duen eragin biderkatzailea nabarmentzen du, jarduera ekonomikoarekin sortzen duen baino balio handiagoa sortzen baitu.

Mutualia interes-taldeekiko konpromiso irmoagatik nabarmentzen da, eta, haien artean, gizartea da garrantzikoena. Konpromiso hori garapen ekonomikoaren eta ongizatearen sustapenean islatzen da, zerbitzu-prestazioaren bidez ez ezik, bere jarduera ekonomiko beraren bidez ere. Ekonomia integraleko ikuspegia duela, Mutualia etekin finantzarioaz harago doa, eta gizarteari ekarpen nabarmena egitea du ardatz.

Gizarte-balioa monetizatzea kontzeptuak Mutualiak gizartearekin hartutako konpromisoa eta gizartean duen eragina islatzen du. Metodologia hori gizarte-ekonomiaren printzipioetan errotuta dago, eta antolakundeak gizarte-ingurunean duen eragin biderkatzailea nabarmentzen du. Mutualiak aitortzen du bere rola ohiko merkataritza-eragiketetatik harago doala, eta harremana duen kolektiboek onura ekarriko dien balio jasagarria sortzeko ahalegina egiten du.

2018tik aurrera, GEAccountigekin elkarlanean —interes ekonomikoa duen irabazi-asmorik gabeko kolektiboa da, hainbat unibertsitatek eta antolakundeak eratua—, Mutualiak gizarteari egiten dion balio-ekarpenaren kuantifikazioa landu da ikuspegi horrek analisi ekonomiko

eta finantzario tradizionala nabarmenki zabaltzea ahalbidetu du, eta interes-taldeei benetan itzulitako inpaktuaren identifikazioa eta balorazioa erraztea ere bai. Hauek dira proiektuaren helburu nagusiak:

- Gizarte-legitimazioa, Mutualiaren antolaketa-kulturak mutualistei eta gizarteari egiten dien balio-ekarpen diferentzia ikusgarri eginda.
- Inpaktua neurtzea eta hobetzea, ekintzak gizarte-balio handiagoa sortzea bideratu ahal izateko.
- Talentua erakartzea eta fidelizatzea, eta Mutualiako langileengan, haien lanaren garrantziaz ohartzen direnean, Mutualiaren parte izatearen harrotasuna piztea.
- Mutualistekiko gardentasuna eta informazioa, Mutualiaren etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoari eta jasagarritasunari dagokionez.

Gizarte-balioa monetizatzea lanabes giltzarria da gizarte-ekonomiaren esparruan, eta frogatzen du antolakunde batek modu nabarian eta neurgarrian lagun dezakeela ongizate kolektiboan,

bere jarduera ekonomikoaz harago.

BALIOA SORTZEN ETA NEURTZEN DUEN EREDUA

Mutualiak gizarte-balioa monetizatzeke garatu duen ereduak aukera ematen du sortutako inpaktua ebaluatzeke, eta beste antolakunde batzuekin alderaketak egitea errazten du. Interes-taldeentzat garrantzitsu gisa identifikatu diren balioetan oinarritzen den metodologia da, eta Mutualiak gizarte-balio deritzona zifretan adieraztea ahalbidetzen du.

Hiru osagaiak batzean, gizarte-balio bateratua deiturikoa sortzen da: (1) jarduera ekonomikoaren bidez sortutako gizarte-balioa, (2) administrazioarako sortutako itzulkin sozioekonomikoa, eta (3) interes-taldeentzat sortutako gizarte-balio espezifikoak. Adierazle horrek barnean hartzen du Mutualiak gizarteari itzultzen dion guztizko ekarpena.

Mutualian, interes-taldeen itxaropenen eta iritzien analisisen bidez, gizarte-balioa sortzen duten aldagai nagusiak identifikatu ditugu:

- Arintasuna prestazioen izapideak eta

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

- ordainketa egitean.
- Bizkortasuna proba medikoak egitean eta ebakuntza-gelarako irispidean.
 - Zentro propioek ospitalizazio-gaitasuna izatea.
 - Gertutasuna eta irisgarritasuna, zentroen sare zabalaren bidez.
 - Arriskuen prebentzioko prestakuntza eta informazioa.
 - Aholkularitza juridikoa eta fiskala izapideetan.
 - Komunikazio eleaniztuna kanal guztietan.
 - Arintasun administratiboa webgunearen eta aplikazioaren bidez.
 - Laguntza sanitarioa eta administratiboa.
 - Jokabide hurbila, gizatiarra eta profesionala.
 - Akordioak unitate espezializatuekin, asistentzia-kalitatea hobetzeko.
 - Kalitate handiko instalazio sanitarioak.
 - Osasun- eta lan-arloko prestakuntza-gelak izatea.

- Enplegu egonkorra sortzea.
- Lan-kontziliazioko politikak ezartzea.
- Pertsonal sanitarioaren eta administratiboaren eta teknikari eta zuzendarien etengabeko prestakuntza.

2025EKO EMAITZAK: 663,44 MILIOI EUROKO GIZARTE-BALIOA

2025eko ekitaldiko datu itxietan oinarrituta, identifikatutako aldagaien monetizazioaren bidez, ondorioztatu daiteke Mutualiak 663,44 milioi euroko gizarte-balioa sortu duela; hau da, 2024an baino % 6,82 gehiago. Datu hori diru-sarrera globalekin alderatuta (514,05 milioi euro), 1,29ko gizarte-balio gehigarriaren indizea lortzen da. Alegia, sartutako euro bakoitzeko 1,29 euro itzultzen dizkio Mutualiak gizarteari.

Mutualiak 2025ean gizarteari itzultako balio ekonomikoa 663,44 milioi eurora iristen da, eta, horietatik, 499,65 milioi merkatu-balioari dagozkio, eta 163,78 milioi merkatuz bestelako balioari. Azken horiek, interes-taldeek nabarmendutako aldagai kualitatiboen monetizaziotik

eratortzen dira.


2025eko ekitaldiko elementu bereziki aipagarria da aurrezkien igoera nabarmena sortu izana mutualistentzat eta administrazio publikoarentzat, asistentzia sanitario propioaren arloko bi esparru giltzarrietan. Alde batetik, ebakuntza-gelarako eta arreta traumatologikorako irispide arina izateak —baja-egunen eta Osakidetzako itxarote-denboren arteko diferentzial gisa neurtuta— 102,09 milioi euro aurrezteak ekarri du 2025ean (92,54 milioi euro izan ziren 2024an), hau da, % 10,3ko igoera. Bestetik, bitarteko propioen bidez emandako asistentzia 47,99 milioi eurokoa izan da, eta goranzko joera iraunkorra du, Mutualiako zentroetan asistentziak gero eta garrantzi handiagoa duen seinale.

Aurrezpen horiek zuzenean eragiten dute administrazio publikoetan, eta horien baliabideak lehentasunezko beste esparru batzuetara birbideratu daitezke, Mutualiaren jardueraren eragin ekonomikoa eta soziala mutalistetik harago hedatuta.

Gizarte Balioa kalkulatzeko (eurotan)

	Gizartea	Bezeroak pazienteak eta hartzaileak	Enpresa bezeroak	AAPP	Mutualiako langileak	Hornitzaileak	Enpresak atxiki
Merkatuko Gizarte Balioa	499.654.677	393.647.604	0	70.179.055	25.561.826	257.790	10.008.402
EZ Merkatuko Gizarte Balioa	163.782.435	159.021.601	155.817.015	158.446.015	7.666.908	0	0
A. Gizarte Balio Integratua	663.437.112	552.669.205	155.817.015	228.625.070	33.228.734	257.790	10.008.402
B. Diru-sarrera orokorrak	514.052.569						
(A/B) Balio Gizarte Erantsiaren Indizea	1,29						

Gizarte-balio integratuaren bilakaeraren grafikoa, € milioikotan:



1,29€

MUTUALIAK HARTZEN DUEN
EURO BAKOITZEKO GIZARTEARI
ITZULTZEN DION ZENBATEKOA.

Gizarte-balio integratuak 2022az geroztik duen goranzko joerak (580,78 milioitik 663,44 milioira 2025ean) berresten du Mutualiaren kudeaketa-ereduak onura nabari eta gerp eta handiagoak sortzen dituela bai mutualistentzat bai gizarte osoarentzat. Merkatuz bestelako balioaren gorakadak —2022an 107,12 milioikoa izatetik 2025ean 163,78 milioiko izatera igaro da—, islatzen du aldagai

kualitatiboen sendotze progresiboa: tratu gizatiarra, gertutasuna, bizkortasun asistentziala eta lagun egite integrala.

Gizarte-balioaren monetizazioa, beraz, lanabes estrategiko gisa kontsolidatu da, pertsonetan ardaztutako ekonomia arduratsu eta gardenerantz aurrera egiteko.

Interes-taldeekiko komunikazioa

Komunikazio digitalaren arloko urteko daturik nabariena izan da Mutualiaren webgunerako trafikoaren hazkunde izugarri handia, saio kopurua halako bi baino gehiago bilakatu baita. 2024ko 152.950etik 2025eko 312.614ra; hau da, % 104,39ko gorakada. Orrietarako bisitak ere nabarmen handitu dira (360.438). Horrekin batera, Mutualiak zerbitzuen ataria aberasten jarraitu du, eta 185 albiste argitaratu dira urtean zehar, eta gauza bera atari korporatiboari eta gardentasun-atariari dagokienez.

Interes-taldeentzako argitalpen digitalei dagokienez, 2025eko emaitzek bilakaera positiboa dute oro har. Prebentzioari buruzko newsletterren kanalak izan du portaerarik onena: 55 newsletter igorri dira (2024an 48). Hartzaileak 7.045 izat6era iritsi dira, eta irekitze-tasak hobera egin du (% 37), iazkoa hobetuta (% 34,85). Mutuaia i hilabetekari digitalak emaitza onak izan ditu orobat: 5.403 hartzaile (2024an 5.025), eta irekitze-tasa % 31,76koa izan da, aurreko ekitaldiko % 29,27ren gainera. MutuaLEX argitalpenak (alegia, aholkularitza-enpresa laguntzaileei, zerbitzu juridikoei eta enpresetako giza baliabideen arloei zuzendutakoa) hartzaile gehiago izan ditu (4.926), baina irekitze-tasak beherakada apala izan du (% 36,82).

LinkedIn da oraindik Mutualiarentzako lehentasunezko sare soziala, eta bilakaerarik onena duena. 2025ean, jarraitzaile kopurua % 9,76 handitu da (3.499), eta argitalpenak 516

Sare sozialak

Adierazlea		2024	2025	▲▼ %
X (Twitter)	Argitalpenak	822	717	%-12,77
	Jarraitzaileak	1.084	1.076	%-0,74
Linkedin	Argitalpenak	488	516	%5,74
	Jarraitzaileak	3.188	3.499	%9,76
Youtube	Argitaratutako bideoak	22	18	%-18,18
	Ikustaldiak	125.257	128.112	%2,28
Web ¹	Saio kopurua	152.950	312.614	%104,39
	Orrialdeetako bisita kopurua	295.217	360.438	%22,09

izatera iritsi dira. YouTube bere eginkizuna betetzen du oraindik edukiak zabaltzeko eta gordetzeko plataforma gisa; 128.112 bistaratze egonik, kanal garrantzitsua da oraindik argitaratutako bideoak gutxiago izan badira ere. X sare sozialak erabilera eskasa du Mutualiaren aldetik, batez ere hedabideekiko harremanetara bideratua; hala, beherakada txikia izan du, hala argitalpenetan nola jarraitzaileetan, plataformaren gainbehera orokorraren ildotik.

Podcasten kanalak (2023tik aurrera) hazkundera oso nabarmen sendotu du 2025ean: argitalpenak halako bi izan dira, 4tik 8ra, eta entzundako aldien kopurua 833tik 1.143ra igaro








dira. Datuek baieztatzen dute, beraz, podcasta finkatzen ari dela Mutualiako publikoek gero eta gehiago baloratzen duten komunikazio-kanal gisa.

2025ean, Mutualiak lanean segitu du harremanetan ari den publikoen hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Helburua ez da hizkuntza-berdintasuna banako mailan erakunde gisa lortzea bakarrik, baizik eta, horrez gain, ekarpena ere egitea eta beste erakunde batzuekin lan egitea helburua kolektiboa izan dadin, esparru horretan horren aurreratuta ez dauden bestelako erakundeentzat lagungarri izan litezkeen sinergiak baliatuta.

Pertsonen konpromisoa indartzea

5. Pertsonen konpromisoa indartzea

Adierazle garrantzitsuak



5. Pertsonen konpromisoa indartzea

2025eko ekitaldian, Mutualiako pertsonen kudeaketak konpromisoa indartzea, garapen profesionalera eta antolamendu-egokitzapenera bideratuta egoten jarraitu du. Plan estrategikoaren markoan, entitateak enplegu egonkor eta kalitatezkoaren sustapena, talentuaren garapena eta kontziliazioa uztartzen dituen proposamen integral bat bultzatu du, antolaketa eta kultura eraldatzeko proiektuekin batera.

Urteko palanka estrategiko

nabarmenetako batzuk izan dira BOGA indartu izana, berrikuntza-proiektuetan parte hartzea sustatzeko; lidergoa sendotu izana Ekinbarri proiektuaren bidez; eta FABRIKA proiektu pilotua, aldaketa-proposamenak talde-lanaren bidez esperimenteratzera bideratuta dagoena. Ekimen horien helburua da lider izateko eraren koherentzia indartzea, hobekuntzan egiten den parte-hartzea handitzea eta antolakundean zeharako eragina duten lankidetzak-dinamikak

bizkortzea.

Berdintasunaren eta kontziliazioaren arloan, 2025ean, Mutualiak B+ mailari eutsi dio EFR ziurtagirian (AENORrek egiaztatuta, EFR 1000-1 Ed-5. arauaren arabera) eta Enpresaren Berdintasun Bereizgarria lortu du berriz ere.

Hurrengo orrialde hauetan azaltzen dira Mutualiak 2025ean egindako pertsona-kudeaketaren adierazle eta datu nagusiak.

Adierazlea	Guztira	Kokapena		Generoa		Adina		
		EAE	Gainerakoak	Gizonak	Emakumeak	<30	30 – 50	>50
Langile-kopuru totala (abenduarien 31ko datuak)	642	633	9	171	471	55	293	294
Kontratu finkoa duten langileen kopurua	599	591	8	159	440	28	280	291
Aldi baterako kontratua duten langileen kopurua	43	42	1	12	31	27	13	3
Bermatu gabeko orduen arabeko langileen kopurua	-	-	-	-	-	-	-	-
Lanaldi osoko langileen kopurua	597	589	8	156	441	44	287	266
Lanaldi partzialeko langileen kopurua	45	44	1	15	30	11	6	28
Langile-txandakatzea	5	5	0	3	2	0	3	2

2025/12/31n, plantilla, guztira, 642 pertsonakoa da, eta urtekoko batez besteko plantilla, berriz, 654koa. Kontratazio-egiturari dagokionez, lan-kontratu mugagabeak dira ugariak: 599 langilek lan-kontratu finkoa dute (% 93,3), aldi baterako lan-kontratua, berriz, 43 langilek dute (% 6,7).

Lurraldeka, langileen gehiengoa EAEn biltzen da; 633 pertsona (% 98,6). Gainerako lurraldeetan 9 pertsona bizi dira (% 1,4).

Genero-ikuspegiari dagokionez, langile gehienak emakumeak dira: 471 emakumezko (% 73,36) eta 171 gizonezko (% 26,64). Datu hori bereziki garrantzitsua da kontziliazio-neurrien, jardunaldi-ereduen eta kategorien arabeko banaketaren erabileraren interpretazioan.

Adinari dagokionez, 55 pertsonak 30

urte baino gutxiago dituzte (% 8,57), 293k 30 eta 50 urte bitarte dituzte (% 45,64), eta 294k 50 urte baino gehiago (% 45,79). Banaketa hori eta plantilla berritzeko mugak kontuan hartuta, belaunaldiartekotasuna elementu mugarri gisa sartu dugu pertsonal-arloan eta aniztasun-planearan.

Arduraldiari dagokionez, langileen % 92,99k % 100eko jardunaldian egiten dute lan, eta lanaldi partzialeko kontratazioak oso gutxi dira, % 7,01 (45 pertsona), eta horietako gehienak asistentzia-arloan daude.

Osaera funtzionalak antolakundearen izaera asistentziala islatzen du: langileen % 66,36k osasun-arloan egiten du lan, eta % 33,64k administrazio-arloan.

Langileen egonkortasun-tasak (% 99,22) oso altua izaten jarraitzen du; 2024an

% 99,38koa zen. Txandakatze-indizea % 0,88koa izan da (kaleratzeak eta borondatezko bajak barne hartuta, eta lan-utzialdiak kanpo; 2022tik aurrera, kontratu mugagabea duten pertsonak soilik zenbatu dira). 2025eko borondatezko bajen % 40 emakumezkoek hartu zituzten, eta % 60 gizonezkoek. Adinari dagokionez, txandakatzea bi tarte hauetan biltzen da: 30-50 (3) eta > 50 (2).

2025eko absentzien guztizko indizea % 9,53koa izan da, eta 2024an, berriz, % 7,19koa. Hortaz, goranzko joera mantentzen da. Ekitaldiaren azken hiru hilabeteetan, absentziak kudeatzeko protokolo berrien definizioan eta komunikazioan aurrera egin da, protokolo horiek aukera eman dezaten zaintzan oinarrituta lantzeko absentzien hobekuntza eta horiek taldeetan duten eragina.

5. Pertsonen konpromisoa indartzea

ORDAINSARIAK

Mutualiako langileak aseguruen, berraseguruen eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen hitzarmen kolektibo orokorrak eraentzen ditu, eta oinarritzko ordainsaria talde eta mailaren arabera ezartzen da, eta horrek bermatzen du oinarritzko kontzeptuetan ez dagoela soldata-arrakalarik emakumeen eta gizonen artean.

Halere, hitzarmeneko oinarritzko soldatak 2010. urtetik % 5eko murrizketa du, Mutualiako jarduera estatuko sektore publikoan barnean sartu ondoren eta estatuko aurrekontu orokorrei buruzko hainbat legetan sektore publikorako legez ezarritako aurrekontu-mugak aplikatu ondoren. 2025. urtean, ekitaldiari dagozkion soldata-igoeren aplikazioa gauzatu zen, % 2,5ekoa.

Soldata-izozteak eta Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen bidez ezarritako soldata-masaren baimenei lotutako

ordainsari-mugek handitu egin dute osasun-langileen eta osasun-zerbitzu publikoaren arteko ordainsari-arrakala, eta, ondorioz, zailagoa da antolakundearentzat kritikoak diren profil horien talentua erakartzea eta mantentzea. Horregatik, Mutualiako proiektu giltzarrietako bat da ordainsari-sistema lehiakorra eta karrera profesionaleko sistema diseinatzea.

Mutualiaren batez besteko soldataren gaineko gehieneko soldataren ratioa 3,41 da (kontuan hartzen badugu legez araututako zati aldakorra; alegia, 4,26a). Mutualiaren langile finkoen batez besteko soldataren gaineko gutxieneko soldataren ratioa 4,75 da (kontuan hartzen badugu legez araututako zati aldakorra; alegia, 5,94a).


Oinarritzko ordainsarian ez dago alderik emakumeen eta gizonen artean (oinarritzko soldata, soldata bermatua esperientzia-osagarria eta plusak

bermatuta).

Urtero, eta 902/2020 EDa aplikatuta, entitatearen ordainsari-erregistroa egiten da, eta langileen legezko ordezkari helarazten zaio. Hura egiteko, Berdintasun Ministerioaren beraren ordainsari-erregistroaren tresna erabiltzen da. Halaber, % 25eko edo gehiagoko balizko ordainsari-desberdintasunen analisia helarazten zaio.aldeak aztertzen dira, barne hartuta bai ordainsari orokorrak bai taldekako eta mailakako ordainsariak, soldatako eta soldataz kanpoko kontzeptuen guztizkoa kontuan hartuta.

Soldata-arrakalaren analisitik ebazten da % 25etik beherakoa dela desberdintasuna ordainsari orokorrean 2025ean, bai batezbestekoetan, bai benetako ordainsarien medianetan, baita ordainsari parekatuan ere. Azken hiru urteetan, agerikoa da ordainsari parekatuek beheranzko joera dutela; 2022ko % 24tik 2025eko % 17ra jaitsi da.

Soldata-arrakalaren bilakaera



5. Pertsonen konpromisoa indartzea

BERDINTASUNA ETA KONTZILIAZIOA

2025ean, kontziliazio-neurrien erabilera handia eta egonkorra egin da Mutualian [411 2025ean vs 422 2024an (-% 2,61)]. Emakumezkoek neurrien % 75 hartzen dituzte, eta ehuneko hori handiagoa plantillako emakume-ehunekoa baino (% 73). Hortaz, erantzukidetasun-arrakalak bere horretan jarraitzen du.

- 2025ean, aldaketa bat sumatu da erabili diren neurrietan; lanaldi-murrizketak gutxiagotu dira (eta metatuak are gehiago) eta egokitzapenak eta edoskitze-metaketak areagotu dira. Gizonezkoen artean ere igoera txikia egon da neurri horien erabileran, oraindik nahikoa ez dena. Hori dela eta, komeni da neurriok erabiltzeko ekintzak mantentzea eta sustatzea.
- Datuetatik ondorioztatu liteke neurrietakoren batean joera-aldaketa dagoela, eta neurrien azterketatik, aldiz, lanaldi-egokitzapenak % 37 igo direla 2024ren aldean. Aitzitik, lanaldia murrizteari lotutako egokitzapenak (egun libreak metatzea aldi, txanda edota egun zehatzetan) % 19an jaitsi dira 2024ko datuekin alderatuta. Datu horrek eta lanaldi-murrizketak (eguneroko librantzakoa edo metatukoa) ia % 10 jaisteak adieraz lezake antolakundeko pertsonen lehentasuna ematen diotela lanaldi-egokitzapena erabiltzeari (ez dakar soldata-murrizketarik) lanaldia murriztearen ginetik (soldata proportzio berean murrizten da). Ondorioz, pertsonentzat onuragarriagoak dira kontziliazioa eta zaintza, ez baitute ordainsaririk galtzen, baina baita antolakundearentzat ere, langileak lanaldi osoko jardunean izan ditzake eta.
- Bestalde, ordutegi-, antolaketa- eta departamentu-malgutasunen datuak (arlo korporatiboko pertsonak eta erregistratutako malgutasunak barne, egokitzapenak kontuan hartu gabe) % 8 murriztu dira

Lanbide-kategoriaren banaketa, generoaren eta adinaren arabera, ehunekotan

Kategoria ¹	Generoa		Adina		
	Gizonak	Emakumeak	<30	30 - 50	>50
G0N0	66,67	33,33	0,00	0,00	100,00
GIN1	56,52	43,48	0,00	8,70	91,30
GIN2	43,55	56,45	0,00	33,87	66,13
GIN3	38,67	61,33	1,33	44,00	54,67
G2N4	20,97	79,03	10,89	49,59	39,52
G2N5	23,08	76,92	12,31	43,08	44,61
G2N6	19,51	80,49	11,59	51,82	36,59
G3N7	0,00	100,00	0,00	0,00	100,00
G3N8	100,00	0,00	0,00	100,00	0,00

[1]Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten aseguru, berraseguru eta mutualitateen sektorerako estatu mailako hitzarmen kolektibo orokorrari dagozkion taldeen eta mailen sailkapena.

- 2024arekin alderatuta, batez ere erregistratutako malgutasunen berrikuspena egin delako.
- Telelanari dagokionez, 2023an langileen ordezkarietarekin adostutako eta gure organismo arautzaileek onetsitako telelanerako esparruari eusten zaio, bi modalitateetan (% 30etik beherakoa hiru hilabetean, eta erregularra edo % 30ekoa edo gehiagokoa hiru hilabeteko erreferentziazko aldian).
 - Malgutasun-neurri egonkor gisa finkatzen da; alegia, telelanean jardun daitezkeen postuen % 52 ingurukoa da estaldura iraunkorra, eta telelaneko lanaldiaren batez besteko intentsitateak igoera txiki

bat izan du (% 41,40tik % 42,46ra). Hala ere, genero-arrakala dago oraindik ere, bai telelanerako irispidean, bai intentsitatean, eta emakumezkoek presentzia eta erabilera erlatibo handiagoa dute. Beraz, lehentasunezkoa da eginkizunen/lanpostuen azterketan eta ezarpen orekatuagoa bultzatuko duten ekintzetan sakontzea.

Gainera, Masfamilia Fundazioak sustatutako Chárter del Teletrabajo ekimenari atxikita jarraitzen du Mutualiak. Ekimen hori borondatezkoa da, honako hauek sustatzeko: malgutasunaren eta telelanaren kultura, ingurumenarekiko errespetua,

5. Pertsonen konpromisoa indartzea

bereziki klima-aldaketaren ondorioak murrizteko, aniztasunarekiko eta inklusioarekiko errespetua, hirietako mugikortasunaren hobekuntza, laneko	lehiakortasun eta produktibitatearen hazkundera, eta bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa uztartzeko laguntza.	Atxikimendua sinatzeko baldintzak dira langileen % 50 telelanean aritzea (telelanean jardun daitezkeen lanpostuak kontuan hartuta) eta lanaldiaren % 30 edo gehiago telelanean eskaintzea.
---	--	--

Bateragarritasun-neurriak

Adierazlea	2024			2025		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Lanaldi-murrizketak	51	2	53	44	4	48
Lanaldi-murrizketak + murrizketa metatzea	35	2	37	26	4	30
Soldatarik gabeko eszedentziak eta baimenak	76	10	86	74	13	87
Edoskitzaroa metatzea	12	1	13	13	3	16
Lantokia aldatzea eta etxera hurbiltzea	1	0	1	1	0	1
Antolaketa-malgutasuneko neurriak (ordutegi-malgutasuna, nahierara lan egitea, etab.)	197	82	279	178	81	259
Guztira	337	95	432	310	101	411

GIZARTE-ONURAK

Mutualian, enpresa-itunek urteko lanorduak 28 ordutan murrizten dituzte dagokion hitzarmenean jasotakoen aldean, eta, horrela, urteko lanaldia 1662 ordukoa da.

Itun horien ondorioz, Mutualiako pertsonak gizarte-onura zenbaitez gozatzen dute, ordainsari-hobekuntza gisakoak direnak. Inguruabar horri 10etik 6,44ko puntuazioa eman zioten 2023an, egindako azken gogobetetasun-inkestan.

Adierazlea	2025
Eskolako laguntzak ¹	Hautzaindegi eta ikasketetarako bekak eta laguntzak.
Ikasketak ²	Matrikulen % 100era arteko eta langile finkoen (14 pertsona) ikasketa-tasen % 50era arteko ordainketa.
Osasun-asegurua ²	Osasun-aseguruaren kuoten ordainketa.
Ezkontzagaritako eta jaiotzagaritako saria ²	Jaiotza edo adopzioagaritako laguntza ekonomikoak eta aparteko hilabete bat kobratzea ezkontzeagatik/izatezko bikotea izateagatik/bizikidetzagatik.
Desgaitasuna dutenentzako laguntza ²	Mutualiako pertsonentzako laguntza ekonomikoa (minusbaliotasuna=> % 33)
Osasun-laguntza	Laguntza mediko kirurgikoa eta errehabilitazioa instalazioetan, langilearentzat eta bere familia-unitatearentzat.
Lizentziak eta baimenak	Beste hiru egun ezkontzeagatik edo izatezko bikotea izateagatik. Beste egun bat seme-alaben jaiotzagarit, bigarren gradura arteko ahaideen heriotzagarit edo gaixotasunagarit. 3 hilabete arteko baimen ordaindu gabea. Urtebeteko eszedentzia, lanpostua gordeta. Lanpostua gordetzea hiru urtez, seme-alabak zaintzeko eszedentzietan.
Bizi- eta istripu-asegurua	69.000 euro arteko estaldura duen bizi-asegurua.
Maileguak ²	Maileguak zero interes-tasan etxebizitza erosteko/birgaitzeko.

[1]Behin-behineko pertsonak hiru urtetik beherako seme-alabentzako laguntza baino ez dute
[2] Langile finkoak bakarrik

5. Pertsonen konpromisoa indartzea

PRESTAKUNTZA

Ezagutzaren kudeaketa mekanismo giltzarria da proiektu estrategikoen hedapenerako eta garapenerako, eta haren bilakaera, gainera, teknologiaren garapenarekin batera doa; hori dela eta, Mutualiako pertsonen prestakuntzarako eta ezagutzarako irispidea egokitzen joan da, aurrez aurreko metodologiak, e-learninga, bideokonferentziak, talde fokalak, saioak eta beste esparru batzuetan sortzen diren dinamikak bateratuta.

2025ean aurrez aurreko edukien garapena sustatu da, eta gero horiek online formatuan sortzea, erizaintzako eta EZLTko (erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariak) profiletarako aurrez aurreko jardunaldien bidez eta egitura-taldean (besteak beste, ASPB, Pazienteen Segurtasuna, Berrikuntza Batzordea, Berdintasun eta Aniztasun Batzordea) eta estrategiarako interesgarriak izan daitezkeen edukiak dituzten beste esparru batzuen jardunaldien bidez.

Mutualian, ezagutza zenbait mekanismoren bidez garatzen da; adibidez, lantaldeak, saio klinikoak, arloko saioak, simulazio-ikasgelak edota biltzarretan edo kanpo jardunaldietan parte hartzea. Halaber, bada prestakuntza-plan bat ere, ildo estrategikoekin eta zehaztutako proiektuekin bat datorrena.

2025ean, pertsona bakoitzeko

prestakuntza-orduen batezbestekoa 42,07 ordukoa izan da, iaz baino % 24,47 handiagoa; gizonezkoen kasuan, 57,9 ordukoa izan da, eta emakumezkoen kasuan, 34,06 ordukoa. Hazkundera lanbide-kategoria gehienetan ikusi da, baina nabarmentzekoak dira aurretiaz prestakuntza-intentsitate txikiagoa duten kategorien (adibidez, G2N5, G2N6 edo G3N8) igoera handiak, prestakuntza-ahalegina handiagoa dela adierazten du eta horrek.

Kalitate asistentzian duen eragina kontuan hartuta, Irakaskuntza, Prestakuntza eta Ikerketa Batzordearen (IPIB) bidez, Mutualiako pertsonen ekarpena mantentzea lortu da, eta, hala, antolakundeak kanpo-eragina izan du, eta horren seinale dira aurkeztutako ahozko komunikazioen eta posterren kopurua (37) eta gure antolakundean tratu diren hainbat zentro akademikotako ikasleen kopurua (prestakuntza hori % 30 handitu da).

Osasun-arloko prestakuntzaren ildoari jarraikiz, pertsona gehien biltzen dituen izaki, hiru ospitaletan prestakuntza-jarduketak egin dira. Gainera, prestatzaileak prestatzeko planaren bitartez, oinarritzko BBBari buruzko prestakuntza hasi da, eta, horrela, funtsezko gaitasun horren iraunkortasuna eta hedapena bermatu dira.

2025ean lan-ildo berria sortu da:

prestakuntza-profilak eta dagokien dokumentazioa zehaztea estamentu profesionaletarako. Kirurgiako eremuko pertsonekin landuko da aurrena, eta gainerako arloekin gero.

Azkenik, 2025ean, sartu berrientzako prestakuntza-ibilbideen lanak eta zirriborroari ekin zitzaion Prestakuntza Atarian, barne hartuta hasierako lagun egitea eta profil profesional bakoitzaren berariazko plangintza.

Batez besteko prestakuntza-ordua, lanbide-kategoriaren arabera

Kategoria	Orduen batezbestekoa
G0N0	66,29
G1N1	106,07
G1N2	64,7
G1N3	48,86
G2N4	46,88
G2N5	23,34
G2N6	21,47
G3N7	0
G3N8	28,83



Erizaintzako eta EZLTko ezagutzak eguneratzeko prestakuntza-jardunaldia.

5. Pertsonen konpromisoa indartzea

PROIEKTU ESTRATEGIKOAK (BOGA, FABRIKA ETA EKINBARRI)

BOGA da, dela beren borondatez, dela antolakundean erantzukizunen bat izateagatik, balioen arabera portaerak eta lidergoa izan behar dituzten pertsonentzako hazkunde- eta garapen-eremua. BOGAren helburuak honako hauek dira:

- Plantillan lider kopuru ahalik eta handiena lortzea, haien hazkundera sustatuta eta giro eta kultura egokia eskainita lider berriak sor daitezen, eta antolakundeko pertsona guztiei aukerak eskainita.
- Mutualiaren lidergo mota adostea eta homogeneizatzea, liderraren definiziora eta balioetara egokituta.
- Mutualiako lanpostu garrantzitsuenak liderrek bete ditzatela lortzea, epe ertainean edo luzean.
- Mutualiako pertsona ororen ibilbide profesionala eta pertsonala erakargarria eta aberasgarria izan dadin ahalbidetzea.

2025ean, BOGA proiektuak 209

bogalari izan ditu (BOGAko kideak), eta 2024an, aldiz, 211; beraz, zifra apenas aldatu da azken urteotan.

Jarduera nagusiak ondorengo hauek izan dira:

- Elkarezagutu jardunaldiak: 7 jardunaldi eta 435 bertaratu; beraz, guztira 9 jardunaldi-ordu izanik, denera 3915 ordu izan dira askotariko saioetan, hala nola etikakoak, gobernantzakoak, berrikuntzakoak, jasangarritasunekoak, lidergokoak, balioen arabera ebaluazioak, etab.
- EKINBARRIren bidezko talde-lidergoa eta ebaluazioa: arlo korporatiboan finkatu da, eta bi pertsona trebatu dira talde-sistamarako eta lagun egiteko metodologian. Mutualiako fisioterapia-taldera hedatu da ondoren, hiru lurraldeetara hedatuta eta horietan ebaluazioak eginda. Guztira, 114 pertsonetara iritsi da 20 prestakuntza-ordutan.

- FABRIKA proiektu pilotuak kultura eta taldeak lanabestzat hartzen ditu, denboraren erabilera berrietarako egokitzapenen eraginkortasuna neurtzeko: 154 pertsonetara hedatu da Ekonomia eta Finantzen eta Mutualisten Arretaren arlo korporatiboetan, eta, arlo asistentzialean, Pakea eta Ercilla kliniketan. 13 saio egin dira; guztira, 254 ordu. Pilotu horrek elkarlan-, autonomia- eta egokitzapen-dinamikak esperimentatzea ahalbidetzen du, eta, hala, ikaskuntzak sortuko dira, gerora hedatu ahal izateko.

Halaber, 2025ean, balioen arabera ebaluazioa BOGAren maila guztietara hedatu da eta puntuazio hobekuntza lortu dira ispiluek emandako feedbackean autopertzepzioan baino. Hortik aurrera, bogalarien jarduna finkatzeko hobekuntza-planak ezarriko dira, haien gaitasunak eta Mutualiaren hobekuntzarekin hartutako konpromisoak handituta.

LANEKO SEGURTASUNA, OSASUNA ETA ONGIZATEA

Ezbehar-kopuruari buruzko adierazleak

Adierazlea	2024	2025
Lan-istripuen kopurua (lanaldian eta bajarekin)	5	6
Baja duten in itinere istripuak	5	3
Baja-egunak (guztira, in itinerekoak barne direla)	492	335
Ikertutako gertaeren kopurua	69	65
Maiztasun-indizea, bajarekin	4,94	5,9
Baja eragin duten gertaeren indizea	8,21	9,82
Larritasun-indizea, bajarekin	0,21	0,24
Gertakarien indize totala, bajarekin eta bajarik gabe	62,43	50,71
Laren ondorioz galdutako lanegunak, guztira	67	91
In itinere gertakariaren ondorioz galdutako lanegunek kopurua	280	91

Adierazleak, generoaren eta eskualdearen arabera

Adierazlea	2024		2025	
Generoaren arabera:	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Lesioak eragin dituzten istripuak	65,68	80,92	46,78	65,81
Baja eragin duten gertakariak	8,47	5,78	0	10,61
Gertakarien totala, bajarekin eta bajarik gabe	65,68	80,92	76,02	125,26
Eskualdearen arabera:	EAE	Gaierakoak	EAE	Gaierakoak
Lesioak eragin dituzten istripuen (bajarekin) indizea	28,66	0	20,11	0
Gertakarien indize totala, bajarekin eta bajarik gabe	97,66	0	81,39	0

Barneko komunikazioa

Mutualiaren kultura korporatiboa ez dago ulertzerik denboran dirauen barneko komunikazio-estrategia sendorik ezean. Estrategia informazioaren helarazte hutsetik haratago doa, eta benetako loturak eraiki asmo ditu erakundearen eta osatzen duten pertsonen artean, haien partaidetza, gogobetetasuna eta kide izateko harrotasuna sustatuta.

Zentroen eta Mutualian lan egiten duten pertsonen kontzentrazio geografikoak aukera ematen digu erakunde guztiek lortu ezin duten zerbait bultzatzeko: aurrez aurreko komunikazioa. Hori oinarri izanik, barne-komunikaziorako hilean behingo bileren eredu bat finkatu da, eta haien bitartez arduradunek kudeaketaren jarraipenerako bileretan jorratutako informazio guztia helarazten diete lantaldeei.

Ez da norabide bakarreko kanala, eta emaitzak komunikatza ere ez da mugatzen. Komunikazio Arloak egindako diseinuak bi norabidekoa izatea jasotzen du oinarrizko printzipio gisa: pertsonak informazioa jasotzeaz gain, zalantzak ager ditzakete, iritzia adieraz ditzakete, eta barneko elkarrizketari ekarpenak egin diezazkiokete. Horregatik da, hain zuzen ere, Mutualiako pertsonak gehien baloratzen duten kanala. Gainera, partaidetzaren eta komunikazioen irismenaren neurketa sistematikoa egiten da, haien eraginkortasuna ebaluatzeko, eta behar denean, edukia egokitzeko.

2025ean, komunikazio horren mailak aurreko ekitaldikoan ildotik joan dira, baina ez da portaera bera egon arlo guztietan. Administrazio-eremuan, hilean behingo zuzeneko komunikazioa jasotzen duten pertsonen ehunekoa %

Barne-komunikazio zuzena jasotzen duten pertsonen %

	2024	2025
Administrazio-arloko pertsonak	%89,55	%92,69
Osasun-arloko pertsonak	%62,99	%56,66
Pertsonak guztira	%72,30	%69,09

92,69ra handitu da (2024an % 89,55). Osasun-arloan, alabaina, beherakada egon da: % 62,99tik % 56,66ra. Datozen ekitaldietan arreta eman behar zaio beraz.

Mutualian barne-komunikazioa estrategikoa da. Ez da laguntza-zerbitzutat hartzen, baizik eta erakundearen funtsezko adierazleei (besteak beste, pertsonen fidelizazio-indizea eta gogobetetasun-maila) zuzeneko ekarpena egiten dien kudeaketa-palankatzat. Ikuspegi horrek Komunikazio Arloari eginkizun aktiboa ematen dio pertsonen kudeaketaren eta nortasun korporatiboaren beraren barruan.

Aurrez aurreko komunikazioarekin batera, Mutualiak barne-kanalen ekosistema digital bat du, eta haren erabilera nabarmen handitu da 2025ean.

Elkargune barneko atari korporatiboan 47.019 argitalpen ikusi dira urtean zehar, aurreko urteko erregistroak gaitzuta. Datuak barne hartzen ditu bai albiste korporatiboak bai lantaldeek gune partikularretan —txokoak— sortutako

edukiak. Argitalpeneko bistaratzeen batezbestekoa 322,04koa izan da (2024an 304,7). Gorakadaren zati bat lotuta dago, seguru aski, 125. urteurrenaren harira egindako albiste ugariekin, beharbada interes handiagoa sortu baitute. Hazkunde horrekin batera gehiago izan dira, orobat, izandako iruzkinak eta erreakzioak (atsegiteak), partaidetza gero eta aktiboagoa izatearen adierazgarri.

Microsoft 365 ingurunean dauden tresna kolaboratiboek osatzen dute barneko komunikazio-sistema: Viva Engage sare soziala (lehen Yammer) eta Teams. Bi plataformek —Elkargune ataritik beretik irisgarriak— interakzio-aukerak handitzen dituzte, eta lantaldeen eta arloen arteko zeharkako lankidetzakultura indartzen dute.

Oro har, 2025eko datuek barneko komunikazio heldua erakusten dute; kanalak finkatuta daude, eta partaidetza handitzen ari da, arlo jakin batzuetan hobetzeko tarte egonagatik ere. Mutualiak aktibo hori zaintzen eta garatzen jarraitu du, bere antolamendu-kulturaren funtsezko zatia baita.

Berrikuntza zerbitzuetan

Babestutako pertsonak

3. ildo estrategikoaren erronka da “mutua arin eta abangoardista izatea zerbitzuak eskaintzeko prozesuan berrikuntza txertatzeari dagokionez”. Baina Mutualiak zer kolektibori eskaini behar dizkie zerbitzuak?

Pertsona babestuak. Batez besteko afiliazioa Kontingentzia Profesionalean (KP)

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Norbere kontura KP	50.587	50.768	%0,36
Besteren kontura KP	393.919	402.272	%2,12
Guztira KP	444.506	453.040	%1,92

Pertsona babestuak. Batez besteko afiliazioa Kontingentzia Arruntean (KA)

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Norbere kontura KA	50.770	50.938	%0,33
Besteren kontura KA	184.922	183.379	%-0,83
Guztira KA	235.693	234.317	%-0,58

Mutualia, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua den aldetik, osasun- eta ekonomia-zerbitzuak ematen ditu eta prebentzio-jarduerak egiten ditu enpresa elkartuentzat, langile babestuentzat (besteren kontura) eta mutuarekin bat egindako langile autonomoen araubide orokorrari heldutako pertsonentzat (norberaren kontura).

Mutualiak babestutako kolektibo guztia kontingentzia profesionalerako da; alabaina, % 51,7k baino ez dute babestuta Mutualiarekin kontingentzia arrunta, eta, kasu horretan, kontingentzia Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN) estaltzen du.

Mutualiako kolektibo babestuaren % 94,48 Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) barruan dago. Batez besteko 453.040 afiliatuetatik 428.042 EAEn daude, eta 24.998 Estatuko gainerakoan.

453.040

MUTUALIAK BABESTUTAKO LANGILEAK GUZTIRA

28.384

MUTUALIARI ELKARTUTAKO ENPRESEN KOPURUA

428.042

MUTUALIAK EAEN BABESTUTAKO LANGILEAK

46,33%

MUTUALIAK BABESTUTAKO EAEKO LANGILEEN EHUNEOA

Osasun-jarduera

2025ean, osasun-jarduera osoa ia ez da aldatu aurreko ekitaldikoarekin alderatuta, baina beherakada apalarekin; 2024ko 379.864 osasun-jarduketetatik 2025eko 377.864etara. Osasun-jarduera banaka hartuta, nabarmentzekoa da proba diagnostikoak eta fisioterapia-saioak handitu direla (% 2,52 eta % 1,73, hurrenez hurren). Joera bera egon da azken urteetan.

Osasun-jarduera orokorra

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Lehenengo kontsultak	57.803	56.194	%-2,78
Hurrengo kontsultak	133.777	129.877	%-2,92
Ebakuntza kirurgikoak	1.484	1.305	%-12,06
Proba diagnostikoak	60.495	62.018	%2,52
Fisioterapia-saioak	126.305	128.496	%1,73
Guztira	379.864	377.890	%-0,52

Osasun-jarduera (KP)

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Lehenengo kontsultak	45.355	44.710	%-1,42
Hurrengo kontsultak	119.254	116.764	%-2,09
Ebakuntza kirurgikoak	1.471	1.300	%-11,62
Proba diagnostikoak	59.402	61.028	%2,74
Fisioterapia-saioak	125.312	128.212	%2,31
Guztira	350.794	352.014	%0,35

6. Berrikuntza zerbitzuetan

Taula honetan, datu hauek jasotzen dira: kontingentzia profesionaleko diagnostiko ohikoenak, diagnostiko bakoitzaren ehunekoa kasu guztien aldean, indemnizatutako egunekiko ehunekoa —hau da, baja-egoera baten ondoriozko prestazio bat zenbat egunez ordaintzen den— eta, azkenik, diagnostiko bakoitzeko batez besteko baja-egunak.

Diagnostikoen taula, kalte-ordaina jaso duten egunak eta batez besteko iraupena

Adierazlea	% kasu guztiekiko		Kalte-ordaina jaso duten egunen %		Batez besteko iraupena (egunak)	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
Mina bizkarraren behealdean	%6,25	%6,48	%2,91	%4,05	19,66	26,77
Muskulu-kontraktura, beste kokapen bat	%4,13	%3,95	%2,09	%2,25	21,41	24,37
Zehaztu gabeko zauri irekia beste eskuko hatz batean, azazkala kaltetu gabe, hasierako kontaktua	%4,20	%3,89	%1,35	%1,31	13,53	14,39
Bizkarrezur-zerbikaleko lotailuetako bihurritua, hasierako kontaktua	%2,53	%2,81	%2,29	%2,35	38,16	35,79
Zerbikalgia	%2,16	%2,30	%1,49	%1,85	29,12	34,5
Eskuin orkatilako lokailu kalkaneoperoneoko bihurritua, hasierako kontaktua	%1,66	%1,74	%1,22	%1,13	31,06	27,85
Ezker orkatilako lokailu kalkaneoperoneoko bihurritua, hasierako kontaktua	%1,33	%1,64	%0,85	%1,24	27,06	32,34
Ezker belauneko kontusioa, hasierako kontaktua	%1,01	%1,35	%0,58	%0,70	24,26	22,3
Ezker orkatilako kalkaneoperoi-lotailua bihurritzea, hasierako kontaktua	%1,53	%1,32	%1,04	%0,99	28,71	32,1
Bizkarrezurreko mina	%1,11	%1,28	%0,50	%0,65	19,08	21,84
Eskuin orkatilako kalkaneoperoneo-lotailua bihurritzea, hasierako kontaktua	%1,54	%1,21	%1,06	%1,00	28,96	35,44
Eskuin belauneko kontusioa, hasierako kontaktua	%1,01	%1,18	%0,75	%0,88	31,16	31,82
Gainerakoak	%71,53	%70,85	%83,87	%81,60	49,51	49,35

6. Berrikuntza zerbitzuetan

Osasun-jarduera (KA)

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Lehenengo kontsultak	12.448	11.484	%-7,74
Hurrengo kontsultak	14.523	13.113	%-9,71
Ebakuntza kirurgikoak	13	5	%-61,54
Proba diagnostikoak	1.093	990	%-9,42
Fisioterapia-saioak	993	284	%-71,40
Guztira	29.070	25.876	%-10,99

KANPOKO ASISTENTZIA SANITARIOA

Kanpoko Osasun Laguntzako Zuzendaritzaren helburua da Mutualliatik kanpoko instalazioetan artatzen diren pazienteek mutuaren baliabide propioek ematen duten asistentzia-kalitatearen antzeko kalitateko asistentzia jasotzea. Osasun-zerbitzu publikoek, beste mutua kolaboratzaile batzuek eta, neurri txikiagoan, osasun-zentro pribatuak ematen dute kanpoko asistentzia hori.


Batez ere bi motatako pazienteak artatzen dira zerbitzu horietan: alde batetik, EAEtik kanpo lan egiten dutenak; eta, bestetik, Euskadin lan egiten duten eta Osakidetzan artatzen dituzten pazienteak (lesioen larritasunagatik, normalean).

Eskuineko grafikoan dago jasota kanpoko osasun-laguntzaren banaketa.

HIRUGARRENTZAKO OSASUN-LAGUNTZA

Asistentzia-baliabideak optimizatzen laguntzeko asmoarekin, babesten dituen biztanleen kolektiboetatik harago zabaltzen du Mutualliak osasun-arreta: osasun-zerbitzuak ematen dizkie hirugarrenei, beste mutua batzuei edo Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari.

Kanpoko asistentzia sanitarioa banaketa



Hirugarrenei emandako osasun-laguntzaren fakturazioa

Garante	2024	2025	▲▼ %
Accidentes de tráfico	863.111,36 €	857.412,08 €	%-0,66
Otras Mutuas Colaboradoras con la Seguridad Social	446.247,23 €	611.587,99 €	%37,05
Mutuas de Corporación Rama	314.847,66 €	275.863,51	%-12,38
Departamento de Sanidad del GV/ Osakidetza	0 €	0,00 €	-
Empresas autoaseguradoras	124.030,18 €	205.800,53 €	%65,93
Otros	17.511,85 €	112.147,51	%540,41
Instituto Nacional de la Seguridad Social (INSS)	3.999,68 €	0	%-100,00
Guztira	1.769.747,96 €	2.062.811,62 €	%16,56

Osasun-kudeaketa

Osasun-kudeaketa Osasun Kudeaketako Zuzendaritzaren (OKZ) bidez zentralizatu eta koordinatzen da, eta bertan sartzen dira osasun-arlo osorako zeharkakoak diren proiektu eta ekintza guztiak.

Osasun Kudeaketako Zuzendaritzak batez ere oinarritzen da kalitate asistentzian, pazienteen segurtasunean, humanizazioan eta barne-funtzionamenduko sistematiketan. Jarduera unean uneko hobekuntza-taldeen bitartez egiten da, baina batik bat Osasun Arloko batzorde iraunkorren aldetik:

OSASUN-ARLOKO GARAPEN INFORMATIKOETAKO BATZORDEA

Batzorde honek xedetzat du Osasun Arloan garapen informatikoa dakarten hobekuntzak eta berrikuntzak hautatzea, ezartzea eta haien jarraipena egitea. Horrenbestez, batzordeak zeharka lan egiten du mutuako arlo eta batzorde guztientzat.

2025ean, hobekuntzak egin dira ia arlo kliniko guztietako tresnetan: Ebakuntza-gela, Larrialdietako triajea eta Ospitalizazioa, infekzio-orria eta Erradiologia. Hornitzaile nagusiekin (Vithas ospitalea, San Juan de Dios eta abar) konexioa lortzeko lanean ari gara, haiek egiten dituzten irudiak automatikoki gure zerbitzarira helarazteko. Txosten pseudoanonimizatua ere ezarri da, oso kasu zehatzetarako.

IRUDI BIDEZKO DIAGNOSTIKOKO BATZORDEA

Batzorde honek Plan Estrategikoan (PE) esleitutako ildoak bete du; hau da, erradiodiagnostikoko unitate asistentzialetarako Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiria lortzea, zeinak 46 estandar betetzen diren ebaluatzen baitu.

I. eta II. taldeko estandarrak bete dira, eta 2025eko maiatzean II. mailarako egiaztagiria lortu da Ercilla klinikarako.

Auditoretzaren txostena baloratu ondotik, hobetzeko ekintza-plana egin zen, eta haien artean kalitatea bermatzeko batzordea eratu da. Batzordeak, eginkizunen artean, babes erradiologikoa barne hartu du, eta helburuetan, pazienteei emandako dosiak gutxitzea. Batzordeak aldizka adierazleak berrikustea ere estandarizatu da, baina baita osasun-arloko zuzendarien bileretan ere.

OSASUN-ARRETA PERTSONALIZATZEKO BATZORDEA (OAPB)

Mutualiak Osasun Asistentzia Pertsonalizatzeko eta Humanizatzeko Plana diseinatu du. OAPBren lanak izango dituen ardatz nagusietako bat izango da erakunde osoan asistentzia pertsonalizatzeko kultura hedatzea, aurrez aurreko eta online prestakuntza-ekintzen bitartez.

2025eko maiatzean, Gasteizko erabakimen handiko ospitalean, humanizazioari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioaren gaineko jardunaldi bat egin da.

Nabarmentzekoa da Mutualiak Humans fundazioaren osasun-arretaren humanizazioari buruzko A+ egiaztagiria lortu duela; haren berri 2026an eman badigute ere, auditoretza 2025eko azaroan egin zen. Herrialdeko lehen mutua da egiaztagiria lortzen, eta lehen osasun-erakundea da, halaber, erakunde osoarentzat lortzen. Era horretan bete egin da indarrean den plan estrategikoaren helburua.

IRAKASKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA BATZORDEA (IPIB)

Batzordearen misioa da osasun-arloko pertsonen irakaskuntza, prestakuntza eta ikerketa sustatzea. Helburu nagusietako bat da Mutualiaren ekoizpen akademikoa eta irakaskuntza-arlokoa partekatzea, ezagutza maila guztietan zabalduta.

2025eko ekitaldian ibilbide zehatzagoak ezarri dira.

Prestakuntza Plan Erkidean, urteko biltzarren eta ikastaroen diseinua egin da. Era berean, prestakuntza sustatu da saio klinikoan, tailer teoriko-praktikoen bidez eta

6. Berrikuntza zerbitzuetan

Erizaintzako Ezagutzak Eguneratzeko Jardunaldien bitartez.

2025ean, prestatzaileak prestatzeko planaren bitartez, Osasun-arlorako BBBko oinarrizko prestakuntza hasi da, eta horrela funtsezko gaitasun horren iraunkortasuna eta hedapena bermatu dira.

Hitzaldi, ahozko komunikazio eta posterrei dagokienez 37 lan izan dira. Berezi garrantzitsua izan da biltzar, ikastaro eta jardunaldi zientifikoetan izandako partaidetza, hala estatuan nola nazioartean. Ahozko komunikazio eta poster zientifiko defentsak eta mahai-moderazioan parte hartzeak aukera eman dute Mutualiaren lana ikusarazteko, esperientziak trukatzeko eta elkarrekin ikasteko guneak sortzeko.

Kanpoko ikasleei emandako irakaskuntza eutsi zaio, eta % 30 handitu da.

Educator programako lantaldeak aurrerapen adierazgarriak lortu ditu, berriz ere, osasun-hezkuntzan, hala pazienteentzat nola langileentzat.

Proiektu berriak egin dira, eta Mutualiaren webgunean eta Gehitu-n daude ikusgai.

Aurtengo gertaera adierazgarria izan da adimen artifiziala (AA) pixkanaka sartu izana prestakuntza- eta asistentzia-jardueraren zenbait eremutan. AA irizpide kliniko, datu-azterketa eta prozesu-optimizaziorako tresna lagungarri bat da, betiere begirada arduratsu eta humanizatu batetik.

ESKUEN HIGIENEN BATZORDEA

2025eko maiatzaren 5ean, urtero bezala, Mutualiak Eskuen Higienearen Munduko Eguna egiten du zenbait jardueraren bitartez (besteak beste, Elkargune atari korporatiboko artikulatu bat eta kliniketan kartelak jartzea). Halaber, 2025ean eskuen higieneko

estrategia betetzeko adierazle bat zehaztu da. Adierazlea 2026an ezarriko da, eta elkarlanean aritzen diren gainerako mutuekin alderatzea ahalbidetuko du.

FARMAZIA BATZORDEA

2025ean, errezeta digitala (e-errezeta) ezartzeko lanean jarraitu dugu. Hari esker pazienteak farmazia-bulegoetara (Estatu osoan) paperezko errezetarik gabe joan ahalko dira, eta paperezkoaren orde mugikorreko QR kode bat erabiliko dute preskripzioa jasotzeko. Mutualiako langileei erraztuko die, halaber,

preskripzioa egitea eta mantentzeko medikazioa berritzea, baita segurtasuna eta kontsumoaren kontrola ere.

ARRISKUAK KUDEATZEKO UNITATEKO BATZORDE IRAUNKORRA

2025ean, pazienteen segurtasunarekin lotutako 28 jakinarazpen jaso dira. Jaso diren 28 jakinarazpenak AKU PSak aztertu ditu, eta txostenak egin dira arriskuak minimizatzeko egin behar diren jarduerak zehaztuta. Txostenak zabaldu egin dira saio kliniko bidez, erizaintza eta errehabilitazioko bileretan, Elkarguneko pazienteen segurtasuneko txokoaren bitartez eta «Pazienteen Segurtasuneko 30 Solaskide» postontziaren bitartez.

Pazienteen segurtasuna kudeatzeko azpiegitura Pazienteen Segurtasuneko Arriskuak Kudeatzeko Unitatearen bitartez antolatuta dago. Izan ere, lantalde hori arduratzen da segurtasun klinikoko ekintzak zehazteaz, ezartzeaz eta haien jarraipena egiteaz. Txosten honetan aipatutako batzordeek osatzen dute egitura hori, pazienteen segurtasuneko arloak ere lantzen baitituzte, eta haiekin batera, Segurtasun Klinikoko solaskideek. Azken horien zerbitzu eta lurralde

bakoitzeko erreferentziako pertsonak dira segurtasun-kultura zabaltzen laguntzeko eta Pazienteen Segurtasun Plana ezartzeko.

INFEKZIOEN BATZORDEA

Infekzioen Batzordeak 2025ean ezarritako ekintza nagusiak, Osasun-asistentziarekin lotutako infekzioen zaintza, prebentzioa eta kontrola sustatzeko estrategiaren ildotik, honako hauek izan dira: mikrobioen aurkako kirurgia aurreko profilaxi-jarraibideak berrikustea (I 42.06/02), I 42.06/02 «Kirurgia aurreko mikrobioen aurkako profilaxia», Legionellak eragindako infekzioa prebenitzearekin lotutako jarraibide guztiak, kontuan hartuta uztailaren 2ko 614/2024 Errege Dekretu berria, legionellosia prebenitzeko eta kontrolatzeko baldintza sanitarioak ezartzekoa. Batzordeak garrantzitsua ere baden dokumentazioa eguneratzen segitu du, hala nola antibiotikoen egonkortasunarekin, istripu biologikoarekin eta ebakuntza barneko normotermiarekin lotutakoa.

TRANSFUSIOEN ETA GIZA EHUNEN BATZORDEA

2025ean transfusio-jarduera oso apala izan da, paziente bakarrari baino ez baitzaio odol-transfusiorik egin.

Prestakuntzaren arloan, IMQ Analisi Klinikoen Laborategiak odol-osagaien (hematieak, plaketak eta plasma fresko izoztua) transfusiorako indikazioei buruzko gidaliburu bat egin zuen. Gidaliburuak barne hartzen ditu zientzia arloko elkarten eta/edo aditu taldeen indikazioak eta/edo gomendioak, ospitaleko eremuan aplikatu beharrekoak.

Gidaliburua Irakaskuntza, Prestakuntza eta Ikerketa Batzordeari helarazi zitzaion, Mutualiako osasun-arloko langileen artean (fakultatiboak eta erizaintzako unibertsitate-diplomadunak) banatzeko.

6. Berrikuntza zerbitzuetan

Osasun- administrazioa

Osasun Administrazioaren arloak, ADKZren bidez, administrazio-prozesuak kudeatzen ditu efizientziaren, balio-aniztasunaren eta prozedurak bateratzearen ikuspegitik. Taldea 57 profesionalen osatuta dago, eta arreta hurbil eta profesionala eskaintzeaz gain, pazientearen konfidentzialtasuna errespetatzen du.

Mutualiaren jardura asistentzialak funtsezko pieza hau du oinarri: zentroetako administrazio-langileak. Pazienteek ikusten duten lehen aurpegia dira; lehen harremanetik harrera, orientabidea eta laguntza ematen dituzte, eta arreta hurbila, antolatua eta segurua bermatzen dute.

Osasun Administrazioak eta Harrera eta Dokumentazio Klinikoko Zerbitzuek (HDKZ) egintza medikoa ahalbidetzen duten prozesuak koordinatzen eta gauzatzen dituzte: zita eta harrera ematea, datuak egiaztatzea, dokumentazioa kudeatzea, informazio klinikoa zaindu eta erabilgarri jartzea, bai eta gertakari asistentzialekin lotutako izapidetak eta erregistroa ere. Arloaren helburua da prozedurak bateratzea eta lanerako sistematika erkideak finkatzea, balioaniztasunean, efizientzian eta etengabeko hobekuntzan oinarrituta.

Zentro guztietan esperientzia homogenea ziurtatzeko, Mutuاليا HDKZ egitura du haietako



6. Berrikuntza zerbitzuetan

bakoitzean. Hiru ospitaleetan (Bilboko Ercilla klinika, Donostiako Pakea klinika eta Gasteizko EHO) prozedurak eta jarraibideak aztertu eta adosten dira, eta ondoren zentro asistentzial periferikoetan zabaltzen eta ezartzen dira. Lurralde bakoitzeko HDKZ taldeetako arduradunek, hedaduraz, lurralde-unitate bakoitzeko zentro asistentzialak koordinatzen dituzte: Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba, hurrenez hurren.

prozesuak kudeatzeko Osasun Administrazioako arloak 57 lagunek lantaldea du. Haien lana ezinbestekoa da arreta behar bezala emateko: pazienteak hartu eta orientatzen dituzte, zalantzak argitzen dituzte, izapideak errazten dituzte, zirkuituak koordinatzen dituzte, eta lantalde klinikoentzako zuzeneko laguntza gisa jarduten dute, dokumentazioari eta erregistroei ordena eta fidagarritasuna emanda. Hori guztia zerbitzu-bokazioa eta tratu profesional eta hurbila edukita, eta pazienteen konfidentzialtasuna eta eskubideak ahalik eta gehien errespetatuta.

2025eko gertaera garrantzitsuak eta hobetzeko jarduketak:

- 2025ean, Osasun Administrazioako lantaldeak aldaketak eta hobetzeko jarduketak bultzatu ditu administrazio- eta asistentzia-zirkuituen segurtasuna, humanizazioa eta efizientzia indartzeko. Gertaera garrantzitsuen artean, honako hauek nabarmentzen dira:
- Osasun Administrazioaren Arrisku Maparen kontrola eta jarraipena. Arloak jarraibideak eta prozedurak garatzen jarraitu du, zentro asistentzial guztietan arriskuak minimizatzeko, irizpideak bateratzeko eta sistematika erkideak finkatzeko.

- Hiru lurraldeetarako osasun-administrazioako prestakuntza-plan bat garatzea lortu da, prestakuntza-premiak asetzeko eta lantaldeko kideentzako garapen profesionaleko ibilbideak ezartzeko.
- Mutualiaren hiru kliniketan pazienteen onarpen digitala ezartzea, harrera-esperientzia hobetzeko, fluxuen kudeaketa bizkortzeko eta asistentzia-zirkuituak metodologia berritzaileen bidez antolatzeko.
- Pazienteen segurtasuna indartzea. Osasun Administrazioak, Segurtasun Batzordearekin elkarlanean, protokoloak eta jarraibideak egin eta eguneratu ditu konfidentzialtasuna zaintzeko eta informazio kliniko behar bezala erabiltzen dela bermatzeko.
- Humanizazio-prozesuan aktiboki parte hartzea. Administrazio-taldeak lehen arreta egiten du, zentroarekiko harremana errazten du, eta pazientearekin lankidetzan jarduten du haren prozesu asistentzialarekin lotutako administrazio-beharrak asetzeko.
- Mutualiaren APPa bultzatzea eta hobetzea, pazienteari bere prozesu asistentzialari buruzko informazioa emateko eta kudeaketak egiten laguntzeko. Gainera, aplikazioak barne hartzen du baimendutako garraiobidea ere eskatzeko aukera.
- Zentro asistentzial periferikoen (ZAP) eta Ercilla klinikaren paperezko historia klinikoak digitalizatzeko eta integratzeko 3. fasea bukatzea. Jarduketari esker indartu egiten da kontingentzia profesionalengatik artutako pertsonen historia kliniko osoa, fidagarria, antolatua eta segurua edukitzeko aukera, eta jarraitutasun asistentziala datu egituratuekin ematen laguntzen du. 2025. urtean 44.024 historia

kliniko eskaneatu dira, guztira.

- Segurtasuna eta DBLO araudiaren betetze-maila indartzea, azterketako erradiologia-irudietara jotzeko PIN bat ezarrita eta dokumentu-kudeatzaile berria garatzeko bidean aurrera eginda.
- Mutualiaren zentro eta kanpo-hornitzaileetarako lekualdaketen kudeaketa hobetzea, taxiak eskatzeko aplikazioa optimizatuta, efizientzia, trazabilitatea eta pazientearentzako zerbitzuaren kalitatea areagotzeko.
- Aplikazioetan eta zirkuituetan hobekuntzak eskatzea eta ezartzea kontratuak (SAP) eta hornitzaileak grabatzean akatsik egon ez dadin edo akatsak gutxitzeko, probak eta espezialistak eguneratuta edukita.
- Sistematika uniformeak ezartzea eta sendotzea pazienteen garraioa eskatzeko, indarrean den legeria betetzea eta zerbitzuaren kudeaketa efiziente, segurua eta dokumentatua bermatuta.
- Trafiko-istripuetan kontingentzia profesionaleko osasun-asistentziagatik gastuak berreskuratzea hirugarren arduradun bat (aseguru-etxeak) dagoenean. 2025ean berreskuratutako zenbatekoa 857.412,08 eurokoa izan da.

Mutualiako administrazio-langileen lana erakundearen balioen zuzeneko isla da: gertutasuna tratuan, profesionaltasuna kudeaketa bakoitzean, zorrozatasuna informazioa babestean eta konpromisoa segurtasunarekin eta asistentzia-kalitatean. 2026an, arloak lanean segituko du prozesuen estandarizazioa, digitalizazioa, prestakuntza eta etengabeko hobekuntza lortzeko, pazienteei gero eta esperientzia arin, gizatiar eta seguruagoa emate aldera, bai eta osasun-arloko lantaldeari laguntza sendoa ere.

Prestazio ekonomikoak

2025eko ekitaldian Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoen 123.295 eskaera kudeatu dira; hala bada, murrizketa nabarmena (% 6,17) gertatu da aurreko ekitaldiaren aldean. Inpaktuari dagokionez, murrizketa handiena kontingentzia arruntek eragindako aldi baterako ezintasunaren eskaeretan gertatu da, 2024an izandakoak baino % 7,80 gutxiago izan baitira. Egoerak paradoxikoa irudi lezake, % 7,44 handitu baita kontingentzia arruntek eragindako aldi baterako ezintasunagatik ordaindutako prestazio ekonomikoetan ordaindutako zenbatekoa, txosten honetako 39. orriko taulan ikusi bezala. Halere, prozesuen batez besteko iraupena luzatu izanak azalduko luke hori, 2024an 40,07 egun izatetik 2025ean 46,21 izatera igaro baita.

Ondorengo tauletan prestazioen kopurua ez ezik, kontingentzia profesionalengatiko prestazioengatik izandako espedienteen xehetasuna ere ikusiko dugu [alegia, baliaezintasuna, heriotza edo biziraupena(BHB), haurdunaldiko eta edoskitze naturalaren garaiko arriskua (HEA) edo adingabeak zaintzea].

123.295

2025AN KUDEATUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAK

Prestazio ekonomikoak

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Kontingentzia arruntengatiko Aldi Baterako Ezintasuna	106.783	99.367	%-6,94
Ordainketa eskuordetua	96.522	88.998	%-7,80
Zuzeneko ordainketa	10.261	10.369	%1,05
Kontingentzia Profesionalengatiko Aldi Baterako Ezintasuna	20.850	20.197	%-3,13
Ordainketa eskuordetua	19.251	18.489	%-3,96
Zuzeneko ordainketa	1.599	1.708	%6,82
Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskua	1.973	1.949	%-1,22
Gertakari profesionalen ondoriozko sekuelak eta heriotzak	908	937	%3,19
Baliaezintasunik gabeko Lesio Iraunkorrak eta Ezintasun Iraunkor eta Partziala	728	795	%9,20
Pentsiorako eskubidea ematen duen ezintasuna eta Heriotzagatiko prestazioak	180	142	%-21,11
Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzea	462	532	%15,15
Langile autonomoen jarduera etetea	430	316	%-26,51
Total	131.406	123.298	%-6,17

* Datuak aldatu eta doitu direnez, alderagarriak izan daitezzen, urte bakoitzeko data berberetan lortzen dira.

6. Berrikuntza zerbitzuetan

Baliaezintasun-, heriotza- eta biziraupen-espedienteak

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Baremoak (Elbarritasuna eragiten ez duten lesioak)	712	782	%9,83
Ezintasun iraunkor partziala	16	13	%-18,75
Ezintasun iraunkor osoa	97	88	%-9,28
Ezintasun iraunkor absolutua	11	6	%-45,45
Baliaezintasun handia	3	4	%33,33
Hildakoak	69	44	%-36,23
Guztira	908	937	%3,19

Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arrisku-espedienteak

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Haurdunaldiko arriskuko espedienteen kopurua	1.942	1.921	%-1,08
Edoskitze naturalaren garaiko arriskuko espediente kopurua	31	28	%-9,68
Guztira	1.973	1.949	%-1,22
Tramitatze epea (prestazioa kobratzen hasi arte)	24	25,3	%5,42
Batez besteko iraupena (kobratze-egunak)	103	100,85	%-2,09

Adingabeak zaintzeko espedienteak

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
HAZA espedienteen kopurua	462	532	%15,15
Batez besteko iraupena (kobratze-egunak)	646	455	%-29,57

2025ean kudeatutako baliaezintasun, heriotza eta biziraupeneko espedienteen gainean nabarmentzekoa da hildakoak % 37,68 gutxiago izan direla aurreko urtekoen aldean, baina, gainera, azken sei urteetako hildako kopuru txikiena da, kontingentzia profesionalarengatik babestutako pertsonen kopurua aldi horretan % 12,32 gehiago izanagatik ere.

HEAko espedienteen kopurua apur bat murriztu da (% 1,08) 2024koaren aldean, eta behera egin du, orobat, prozesuen batez besteko iraupenak (% 2,09).

2011n gaixotasun larria duten adingabeak zaintzeko prestazioa sortu zen. Sorospen bat da eta gurasoek, adoptatzaileek eta hartzaileek diru-sarreretan duten galera konpentsatzen du, lanaldia eta ordainsaria murrizten baitituzte minbizia edo legez zehaztutako beste gaixotasun larriren bat duen ardurapeko adingabea zuzenean eta etengabe zaintzeko (hasieran 18 urtera arte). Prestazioaren kudeaketa Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutuei esleitu zitzairen eta, harrezkero, etenik gabeko hazkundera izan du, ondorengo grafikoan ikusten dugun bezala. Gainera, 2023ko apirilaren 1etik, 18 urte beteta ere, prestazioa onartu ahalko da harik eta eragileak 23 urte betetzen dituen arte, baldin eta minbizia edo gaixotasun larria adin-nagusitasunera iritsi aurretik diagnostikatu bazaio.


Adingabea zaintzeagatik kudeatutako espedienteen kopurua % 245 handitu da azken 8 urteetan: 2018an 154 izatetik 2025ean 532 izatera. Alabaina, 2025ean, lehen aldiz prestazioa dagoenetik, laburtu egin da prestazio bakoitzaren batez besteko iraupena; hain zuzen ere, 2025ean % 29,57 laburtu da 2024koarekin alderatuta.

Laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak

2025ean, baja eragin duten lan-istripuen kopurua gutxixeago izan da (% 1,59) aurreko urtekoaren aldean. Bajarik ez dakarten lan-istripuak ere gutxiagotu dira, kasu horretan are modu nabariagoan, 2024an 18.024 izatetik 2025ean 16.634 izatera igaro baitira.

Urteetan zehar gutxi aldatu dira, halere, istripu-tasaren adierazleak (sektorea, istripu-tokia, asteko eguna eta istripua nola gertatu den). Nabarmentzen da, baina, lanerako desplazamenduetan izandako istripuen gorakada, 2024an % 3,79 izatetik 2025ean % 13,28 izatera igaro baitira.

Baja duten lan-istripuak asteko egun bakoitzeko



Lan-istripuak

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Baja duten laneko istripuak	16.385	16.125	%-1,59
Baja duten istripuak lanaldian	14.251	13.983	%-1,88
Baja duten istripuak in itinere	2.134	2.142	%0,37
Bajarik gabeko istripuak	18.024	16.634	%-7,71%
Guztira	34.409	32.759	%-4,80

Baja duten laneko istripuak jarduera-sektorearen arabera

Adierazlea	2024	2025
Zerbitzuak	57,40%	%56,97
Industria	30,28%	%30,54
Eraikuntza	11,00%	%11,28
Lehen sektorea	1,31%	%1,20

Baja duten lan-istripuak, istripua izandako lekuaren arabera

Adierazlea	2024	2025
Ohiko zentroan	69,17%	%69,61
In itinere	13,02%	%13,28
Laneko joan-etorriak	3,79%	%13,74
Beste zentro batean	14,01%	%3,37

6. Berrikuntza zerbitzuetan

Istripua nola gertatu zen

Adierazlea	2024	2025
Gainesfortzu fisi oa, trauma psikikoa, erradiazioen, zarataren, argiaren edo presioaren eraginpean egotea	%28,97	%27,39
Geldirik dagoen objektu baten gainean edo kontra zapaltzea	%25,65	%25,78
Mugitzen ari den objektu baten kontra talka egitea edo kolpatzea	%19,59	%20,30
Kontaktua "agente material" ebakitzaille, zorrotz, gogor, zimurtsu batekin	%9,34	%9,58
Harrapatzea, zapaltzea, anputazioa zehaztu gabe	%3,26	%3,51
Korronte elektrikoa, sua, tenperatura ukitzea	%3,03	%3,06
Hozkadak, ostikadak, etab. (animalienak edo pertsonenak). Zehaztu gabe	%2,65	%2,69
Zehaztu gabeak edo bestelakoak	%7,51	%7,70

Gaixotasun profesionalak

Adierazlea	2024	2025	▲▼ %
Baja duten lanbide-gaixotasunak	569	559	%-1,76
Bajarik gabeko lanbide-gaixotasunak	536	520	%-2,99
Guztira	1.105	1.079	%-2,35

Baja duten lanbide-gaixotasunak

Adierazlea	2024	2025
Ag. kimikoak	%0,35	%0,36
Ag. fisikoak: Zarata	%0,18	%0,18
Ag. fisikoak: Jarrera eta mugimendu errepikakorrak	%88,75	%87,66
Ag. fisikoak: Bibrazioak	%0,00	%0,54
Ag. fisikoak: Bestelakoak	%2,28	%2,68
Ag. biologikoak	%2,11	%3,58
Inhalazioa (bestelako substantziak eta agenteak)	%2,28	%1,07
Larruazaleko LG (bestelako substantziak eta agenteak)	%3,87	%3,58
Ag. kartzinogenikoak	%0,18	%0,36

Bajarik gabeko lanbide-gaixotasunak

Adierazlea	2024	2025
Ag. kimikoak	%0,19	%0,00
Ag. fisikoak: Zarata	%16,60	%20,00
Ag. fisikoak: Jarrera eta mugimendu errepikakorrak	%59,14	%56,73
Ag. fisikoak: Bibrazioak	%0,00	%0,00
Ag. fisikoak: Bestelakoak	%14,93	%17,31
Ag. biologikoak	%5,78	%3,85
Inhalazioa (bestelako substantziak eta agenteak)	%1,12	%0,96
Larruazaleko LG (bestelako substantziak eta agenteak)	%2,05	%0,58
Ag. kartzinogenikoak	%0,19	%0,58

Prebentzio-jarduera

Kontzeptua		2024	2025	▲▼ %
Enpresetara bisitak		308	329	%6,82
Istripugarritasun azterketak		667	1.022	%53,22
LI eta LGen azterketak		208	188	%-9,62
Prebentziori buruzko dibulgazio materialaren hartzaileak ¹		598.820	753.600	%25,85
Prebentzioari buruzko kontsultak		1.379	1.600	%16,03
Prebentzio kanpainak		84	108	%28,57
Prebentzioko Mutualia Ikasgela	Jardunaldi/tailer kopurua	47	37	%-21,28
	Parte hartzaileen kopurua	1.145	882	%-22,97
Mutualia Campus Birtuala	Eskainitako ikastaroen kopurua	64	70	%9,38
	Parte hartzaileen kopurua	2.165	3.392	%56,67

[1] Hartzaileak errepikatu egin daitezke bidalketetan..

PREBENTZIO IKASGELA

Mutualiaren Prebentzio Ikasgela 37 jardunaldi eta tailer egin dira, aurrez aurreko formatuan eta web-mintegi gisa. Haietan 882 lagunek parte hartu dute. Landutako gaiak, besteak beste, honako hauek izan dira:

- Elikadura osasungarriaren eskola.
- Ongizate emozionaleko eskola.
- Jardunaldi teknikoak: Lan-eremuko indarkeria eta jazarpena.
- Seguru gidatzeko eskola.
- Ahotsaren eskola.
- Agintarientzako eskola, absentziak kudeatzeko.

- Lo eta atsedenekoko eskola.
- 10. prebentzio-jardunaldia.
- Jardunaldi teknikoak: Nola sortu inpaktua eta eragina zure erakundean.
- Absentziak kudeatzeko tailer espezializatua.
- Absentismoari buruzko tailerra: Adierazleak eta protokoloak eta absentziak prebenitzeko eta kudeatzeko plana abian jartzea.

CAMPUS BIRTUALA

Mutualiaren Campus Birtuala guztiz online den prestakuntza-eredu bat da. Etengabeko hazkundera du, bai

eskainitako ikastaroen kopuruan (2025ean 70), bai izena emandako pertsonen kopuruan, % 56,67 handitu baita aurreko urtekoaren aldean. Guztira, 19.087 prestakuntza-ordu egin dira; 2024aan 14.341 izan ziren. Gogobetetasun-indizea egonkor dago (4,23 5 punturen gainean).

PRESTATUTAKO MATERIALA

Prebentzio Zerbitzuak askotariko dibulgazio- eta prestakuntza-materialak prestatzen ditu. 2025eko ekitaldian era askotako formatuetako materiala argitaratu du honako gai hauen gainean:

- Laneko indarkeriaren prozedura (maketazioa).
- Lan-eremuan indarkeriaren kudeaketa integrala egiteko protokoloa.
- Lan-indarkeriari buruzko infografia.
- Ongizate emozionalari buruzko eskuliburuak (6 gai).
- Ongizate emozionalari buruzko infografiak (6 gai).
- Deskonexio digitalari buruzko infografia.
- Elikadura osasungarriari buruzko eskuliburua (bi gai berri gehituta).
- Elikadura osasungarriari buruzko infografiak (2 gai).
- Mutualiaren Campus Birtualaren liburuxka eguneratzea (jarduera berriak gehituta).
- Prebentziozko Begiradak lehiaketa zabaltzeko materialak.
- Mutualia sariak zabaltzeko materialak.
- Absentzien kudeaketarako tresna zabaltzea.

Eduki horiek ez ezik, Mutualiako Prebentzio Zerbitzuak komunikazio-jarduera handia egiten du Mutualiaren kanaletatik. Hala, 2025ean, webgunean

6. Berrikuntza zerbitzuetan

35 artikulua argitaratu dira, eta 63 newsletter igorri dira. Eduki guztiak Mutualiaren sare sozialen bitartez ere zabaltzen dira.

Halaber, podcast formatuko 5 elkarrizketa argitaratu dira, Mutualia sariak irabazi dituzten enpresei egindakoak nabarmenduta.

PREBENTZIOZKO BEGIRADAK LEHIAKETA

Mutualiak laneko arriskuen prebentzioari buruzko argazki-lehiaketa bat deitzen du urtero, pertsonak laneko arriskuen prebentzioan sentsibilizatzeko. 2025ean XXII. edizioa egin zen. Lehiaketa, hasieran, argazki-lehiaketa zen bakarrik, baina bi kategoria gehiago gehitu dira: Adimen Artifizialaz sortutako irudia (2023an gehituta) eta bideo laburra (2024an sartuta). Aurkeztutako argazkirik onenak «Prebentziozko Begiradak» erakusketan sartzen dira, zeina aurreko puntuan aipatu dugun.

Era berean, Mutualiak prebentzioari buruzko argazki-lehiaketa bat ere egiten du urtero erakundearen barruan,

mutuako pertsona guztiek parte har dezaten, eta barruan ere sustatu dadin laneko arriskuen prebentzioarekiko sentsibilizazioa.

MUTUALIA, OBIDEAN ETA PREBENTZIOZKO BEGIRADAK SARIAK EMATEKO EKITALDIA

2025ean, Mutualiaren 125. urteurrenaren kari, Mutualia sarien edizio berezi bat egin zen, urteurrena betetzen zen egunean bertan; martxoaren 25ean alegia. Ekitaldia Mutualiaren Gasteizko Erabakimen Handiko Ospitaleko ekitaldi-aretoan egin zen, eta 120 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten. Enpresa hauek irabazi zuten kategoria bakoitzean:

- Laneko Arriskuen Prebentzioko Berrikuntza Sariaren kategorian: Bellota Herramientas SLU, proiektu honengatik: «DOJO (segurtasuneko entrenamendugela)»
- Enpresako Aniztasunaren sariaren kategorian: KL katealegia SLU, «Gaitasun desberdinak dituzten pertsonen enplegararritasunerako industrializazio-metodologia»

proiektuarekin.

Ekitaldi berean OBidean aitortzak eta Prebentziozko Begiradak sariak ere eman ziren (aurreko lerrokan izan ditugu hizpide). OBidean aitortzak ematen zaizkie azken urteetan laneko istripu-tasa murrizten laguntzen duten eta arlo horretan bilakaera ona egiaztatzen duten enpresei. 2025eko edizioan, enpresa hauei egin zaie aitortza:

- CENTRAL FORESTAL (Smurfit Westrock)
- TRELLEBORG IZARRA SAU

Prebentziozko Begiradak sariei dagokienez, argazki onenarentzako saria Carlos de Cos-ek aurkeztutako «Redes» argazkirako izan zen. Adimen Artifizialaz sortutako irudiaren kategorian Daniel Solabarrietak irabazi du «Naturarekin elkarlanean» irudiarekin, eta azkenik, bideo labur onenarentzako saria David Gómez Díezentzat izan zen, «La prevención nuestra mejor opción» izeneko lanarengatik.



Mutualia Sarien, OBidean sarien eta Prebentzio Begiraden irabazleen argazkia

Bezero bakoitzaren tipologiara egokitutako zerbitzuak

Mutualian askotariko bezero-tipologioei ematen zaie zerbitzua. Bezero gisa identifikatzen dira enpresak, langileak, prestazio ekonomikoaren eskatzaile gisa edo osasun-zentroetako paziente gisa, langile autonomoak eta abar.

Zerbitzuak ematen zaizkien erakundeen eta pertsonen tipologia desberdina dela kausa eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutuek bete behar dituzten arauzko baldintzak direla eta, zerbitzu-zorroa etengabe berrikusi behar da, haietara egokitzeko eta Mutualiarekin duten esperientzia onena izan dadin.

Mutualiak bere webgunean zerbitzu-karta du, balioekin lotuta, eta bertan konpromiso egiaztagarriak ezartzen dira, honako kategoria hauen barruan elkartuta:

- Arreta gizatiarra, profesionala eta kalitatezkoa ematea, erabiltzaileen ongizatea bermatuta.
- Zerbitzuen gaineko informazio eguneratua eta zehatza ematea, eta erabiltzaileen eskaeren arreta pertsonalizatua ematea.
- Zerbitzu guztiak etengabe irisgarri egotea sustatzea, eta haiek emateko, instalazio erosoak, egokiak eta seguruak edukitzea.
- Jarduketa guztien segurtasuna eta integritatea bermatzea, bai eta erabiltzaileei emandako informazioaren konfidentzaltasuna, erabilgarritasuna eta fidagarritasuna ere.

- Ematen diren zerbitzuetan kanal teknologikoak garatzea eta mantentzea, eta erabiltzaileekiko harreman digitala erraztea.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloak babestutako kolektiboari aholkularitza ematea, eta enpresetan nahiz gizartean prebentzioaren eta osasun-zaintzaren kultura sustatzea.

Aurreko atalean 2025ean egindako prebentzio-jardueren gainean azaldu bezala, absentiak kudeatzeko tresnarekin asko lan egin dugu. Webgunean Mutualia ON programa (enpresa osasungarria) gehitu dugu zerbitzu guztiekin.

Tresna digitalak

Bezeroen esku hartzen diren zerbitzu haietako askok tresna digitalekin dute zerikusia. Ildo horretatik, 2025eko ekitaldian, jarraitu dugu hobekuntzak egiten enpresen eta langileen aplikazioetan eta webgunean, segurtasun-neurri berriak ezartzen eta hala nabigagarritasuna nola irisgarritasuna hobetzen, Mutualiaren zentro-bilatzaile berria nabarmenduta.

Zerbitzu eta tresna digitalak garrantzitsuak dira bezeroekin kudeaketa asko errazten dutelako, baina ezbairik gabe, harreman hurbilak eta pertsonalak nagusitu eta mantendu behar dira, hurbiltasuna baita, azken batean, Mutualiaren balio garrantzitsuenetako bat.

EDUCATOR

Bestalde, 2025ean, Educator proiektuaren hedapen handia egin da oraindik. Materialak argituko dira paziente eta senideentzako gomendioak jasota. Focus Group ere egin da Arabako enpresen zerbitzu medikoekin, eta oso balorazio ona egon da.

Osasun-asistentzia humanizatzeko plana

Osasun-asistentzia humanizatzeko plana konpromiso aktibo bat da ematen den arretari balioa eransteko eta, horregatik, bide-orri bat lantzen ari gara hobetzen jarraitzeko eta Mutualia esparru horretako erreferente gisa finkatzeko. Helburua da pertsonari patologiarekin gainetik arreta emateko kultura laguntzea, mutuako kideek senti dezaten tratu bakar, pertsonal eta hurbila jasotzen dutela.

Ekintzen eta proiektuek erakusten dute Mutualiak etengabeko hobekuntzarekin eta kudeaketa aurreratuarekin zer-nolako konpromisoa duen, Osasun-arlo osoan estilo koherentea eta partekatua iristeko, erabiltzaileenganako begirune eta adeitasunaren adierazgarri. Ikuspegi horrek pertsona ardatz duen arreta lortu nahi duten ekintzak bultzatzen ditu, baztertuta, ahal den neurrian, deshumanizazioa laguntzen duten efektuak, hala nola gehiegizko teknifikazioa, langile-txandakatzea, txandakako lana eta antolamendu-egiturak berak; izan ere, halakoek osasun-arloko profesionalak pazienteengandik banantzen dituzte, eta konfiantzazko loturak eraikitzea eta asistentzia-esperientzia bizitzea zailtzen dute.

6. Berrikuntza zerbitzuetan

KANPOKO IRADOKIZUN ONENAREN SARIA

Urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Mutualiak sari bat abiarazi zuen bezeroek iradokizunak egin zitzaaten emandako zerbitzuen gainean. Hobekuntzak identifikatzeko kanal bat da, eta emandako zerbitzuen kalitatea hobetzen laguntzeko ideiak aitortzeko. Ekimena enpresa elkartuko eta elkarlanean aritzen diren aholkularitza-enpresetako langile guztiei zuzenduta dago, eta haien inplikazioa eta lankidetzak aktiboa nahi du erakundearen etengabeko bilakaera lortze aldera.

2025ean sariaren XIV. edizioa deitu da, eta, irabazleak jasotako opari teknologikoaz gain, barne hartzen du Mutualiak saritutako iradokizuna ezartzea hitzmatea, eta era horretan balio erreala eta nabaria ematen zaio aitoritza sinbolikotik haratago.

Edizio horretan, lehen aldiz saria deitu denetik, eman gabe gelditu da. Gardentasuneko eta kalitatearekiko konpromiso irmoko ariketa eginda, Mutualiak eman gabe uzteko erabakia hartu zuen jasotako proposamen guztiak zehatz-mehatz aztertu ondotik. Aurkeztutako iradokizun batzuek ez zuten lortu aitortzarako espero zen berrikuntza- edo berritasun-maila. Aitortzaren xedea da, hain zuzen, ideia eraldatzaileak eta orijinalak bultzatzea, eta halakoek bezeroaren esperientzian eragin adierazgarria sortzeko gauza izatea. Gainerako proposamenak, interesgarriak izanagatik ere, ez ziren gaur egun bideragarriak ikuspegi teknikitik, eta horrek epe labur edo ertainean behar bezala ezartzea eragozten zuen.

Saria Mutualiako Bezeroen Egunean ematean da. Barneko ospakizun bat da, eta urtero egiten da erakundeko pertsonak bezeroen garrantziaz kontzientziazteko. Izan ere, bezeroei ahalik eta zerbitzurik onenak eman behar zaizkie, betiere Mutualiaren bereizgarri diren balioen ildotik.

XIV.
EDIZIOA
2025


mutualia

1900-2025

URTE - AÑOS

Gure zerbitzuen iradokizun onena

SARIA

IRADOKIZUN HOBERENARI

kalitatea hobetu dezakeen aintzatetsi eta saritu nahi dugu

1

Epaimahaiaren epaiaren unean Mutualiarekin elkartuta dauden enpresetako edozein pertsonak parte hartu ahal izango du

2

Aurkezpen-epea 2025ko abenduaren 31n amaituko da

3

Irabazleak iPad bat jasoko du



4

Nola parte hartu?

Mugikorraren bidez egin dezakezu QR kode hau eskaneatuz, edo

Emaila bidali zure datuekin eta iradokizunarekin helbide elektroniko honetara: sugerencias@mutualia.es



Parte hartu!

Hobetzen laguniezaguzu!

www.mutualia.eus



Eraldaketa digitala

Mutualiak berrikuntzarekiko eta abangoardia teknologikoarekiko konpromisoa du, eta Eraldaketa Digitalerako Plan bat garatu du 2021-2025 aldirako, zeina bat baitator erakundearen Plan Estrategikoarekin. Datorren urteetan ezarriko diren ekintzak zuzentzen dira plan horretan, zerbitzu eta prozesuak hobetu ahal izateko teknologia aurreratuen eta automatizazioaren bidez.

2024-2025 aldian, Mutualiak Eraldaketa Digitalerako Plan anbiziotsua bukatu du. Planak aurrerapen nabarmena ekarri du erakundearen prozesuen nahiz zerbitzuen digitalizazioan eta modernizazio teknologikoan. Plana bost ardatzen inguruan egituratuta dago (interes-taldeak, informazioaren kudeaketa, eragiketa, pertsonak eta azpiegitura eta segurtasuna), eta % 78,2ko betetze-maila osoa erdietsi du, planifikatutako 92 ekintzetatik 72 jada ezarrita baitaude. Planifikatutako ekintza guzti-guztiak lortzerik ez da egon, aldian hasieran aurreikusi ez zeuden 21 ekintza lehenetsi baitira. Ekintza horiek urtean zehar sortu dira, eta planera gehitu dira beharra eta inpaktua direla eta.

Gehien nabarmendutako gertaera garrantzitsuenen artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu: kanal digitala interes-taldeentzako lehentasunezko bide gisa finkatzea; informazioaren kudeaketa eta irisgarritasuna optimizatzea; administrazioa digitalizatuz eta prozesuak automatizatuz paperaren erabilera gutxitzea; azpiegitura teknologikoaren segurtasuna eta modernizazioa indartzea. Irtenbide berritzaileak ezarri dira, hala nola poliza digitala, prestakuntzako web-tresnak, mugikorreko aplikazioak, onarpen digitaleko kioskoak eta barneko nahiz ospitaleko kudeaketarako proiektu aitzindariak, erabiltzaileen eta enplegatuen efizientzia eta gogobetetasuna areagotuta.

Bi faktoreko autentifikazioaren hedapenean, datu-anonimazioaren sistematizazioan eta segurtasun-eragiketa zentro baten abiarazpenean gauzatu da zibersegurtasunarekiko konpromisoa. Halaber, langileen artean lankidetzeta eta gaitasun digitalen garapena bultzatu dira, Europako proiektuak eta elkarlaneko tresnak integratuta.

Garapenean erronkak eta ekintzak oraindik badaude ere —hala nola datuaren gobernantza sendotzea, dokumentu-kudeaketa hobetzea eta administrazio- eta osasun-fluxuak guztiz automatizatzea—, aldiko balantzeak erakunde bizkor, efiziente eta erresilienteagoa erakusten du, etorkizuneko erronka teknologikoei aurre egiteko prestatutako erakunde bat.



Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea

7. Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea

Prestaciones Especiales

Lan-istripu bat edo lanbide-gaixotasun bat izan duten eta egoera berezietan edo premia-egoeran dauden langileentzako laguntza ekonomiko edo asistentzial osagarriak. Laguntza horiek Prestazio Berezien Batzordearen bidez kudeatu eta ematen dira.

Prestazio bereziak babes soziala indartzeko mekanismo bat dira, Gizarte Segurantzaren sistemak aurreikusitako estalduretatik haratago. Mutualiako Prestazio Berezien Batzordeari dagokio haiek kudeatzea, eta jasotako eskaeren tratamendu zorrotza bermatzeaz gain —1993/1995 Errege Dekretuaren, abenduaren 7koaren, 67 bis artikuluan lege ezarritako irizpideekin bat etorritik— bermatu ere egin behar du kalteberatasun bereziko egoerek behar duten sentiberatasunaz eta konpromisoaz jardutea.


2025eko ekitaldian gizarte-laguntzaren 565 eskaerari erantzun zitzaizen guztira, eta zenbateko osoa 412.393 eurokoa izan zen. Bai eskaera kopuruan, bai laguntzetara bideratutako bolumen

ekonomikoa pixka bat murriztu bazen ere, guztizko zenbatekoa 400.000 euroren gainetik dago oraindik, sistemaren sendotasuna eta egonkortasuna erakutsita.

Prestazio Ekonomikoen Arloak komunikazio-ahalegin handia egin du laguntzak onuradun izan litezkeen artean ezagutarazteko. Batetik, eskutitz pertsonalizatuak igorri zitzaizkien aldi baterako ezintasunean zeuden eta prozesuen batez besteko iraupena gaintitzen zuten langile guztiei. Bestetik, Eskutik lantaldearen bitartez (Bitartekotzarako Osasun Unitateko langileek, kanpoko baliabideek eta gizarte-langileek osatuta dago), banakako arreta eman zitzaizen behar berezikotzat jotako kasu guztiei,

zela larritasun medikoagatik, zela kalteberatasun sozialagatik.

Diziplina anitzeko lankidetza horri esker eta osasun-eremuko, gizarte-langintzako eta administrazio-eremuko profesionalen dedikazioari esker, larritzat edo oso larritzat hartutako gaixotasun profesionalak eta lan-istripuak modu integral batez kudeatzea posible izan da. Hori horrela, pazienteak tratatzeko eta oneratzeko prozesua oztopa lezakeen arazo soziala diagnostikatu eta baloratu da, eta, guztira, 400 laguntza-eskaera izapidetu dira (43.198,22 euro orotara), ospitaleratutako pertsonen familiak haiei laguntza eta arreta emandako izandako gastuak arintze aldera. Kapitulua horrek barne hartzen ditu,



7. Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea

halaber, etxez etxeko laguntzarako 15 laguntza eta zentro soziosanitarioan aldi baterako ingresurako dirulaguntza bat; azken hori zuzenduta dago ospitaleko altaren ondotik aldi baterako eguneroko bizitzako oinarritzako jarduerak egiteko ezgaituta zeuden pertsonentzat eta familia-ingurunean baliabideak ez zituztenentzat.

Illo beretik, munta handiko sekuelak dituzten pertsonen irtenbideak eta hobekuntzak emateko lan egin dugu, ahalik eta autonomiarik handiena lor dezaten eta egoera berriari baldintzarik onenetan egokitzea errazte aldera. Esparru horren barruan sartzen dira, hain justu, baliabide teknikoetara (ohe egokituak, duxako aulkiak, garabi elektrikoak, gupil-aulki bereziak, BATEC elektrikoak, besteak beste) zuzendutako 16 dirulaguntzak, eta langileek behar izan dituzten etxebizitza eta ibilgailuen 3 egokitzapenak, bai eta ibilgailu egokitu baten erosketa ere.

Bereziki aipatzekoak dira ohiko

etxebizitzaren hipoteka edo alokairua ordaintzeko 85 laguntzak, zeinak aitortu baitzaizkie kontingentzia profesionalen ondoriozko iraupen luzeko baja medikoko prozesuetan lana galdu duten langileei edo pareko kalteberatasun ekonomikoko egoeran egondakoei, bai eta haien kausadunei ere, kontingentzia profesionalengatik heriotza gertatutako kasuetan. Laguntzen batez besteko zenbatekoa 1.724 eurotik gorakoa izan zen, onuradunek hipoteka- edo alokairu-kuotei aurre egin ziezaieten diru-sarrerak gutxitu zitzaizkien aldian, era horretan gizarte-bazterketako arrisku-egoerak baztertuta. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, laguntzek % 41,6ko hazkundea izan zuten kopuruan, eta % 20,3koa batez besteko zuzkidura ekonomikoa. Horrek agerian uzten du gero eta eskaera handiagoa dagoela, eta era horretako laguntzak garrantzi handia duela.

Lehentasunezko beste kolektibo bat baliaezintasun handiko egoeran

dauden edo, ospitaleko altaren ondotik, eguneroko bizitzako jarduerak (garbiketa, higiena, elikadura eta abar) egiteko etxeko laguntza kualifikatua behar izan dutena izan da. Egoera horretan 15 pertsona izan dira. Xede horretara 44.752,54 euro bideratu ziren 2025eko ekitaldian.

Halaber, Mutuak aktiboki sustatzen du lan-istripu baten eta gaixotasun profesional baten ondorioz, ekarritako sekuelek lanpostua betetzeko orduan eragin funtzionala dutelako, enplegua galdu duten pertsonen berregokitze profesionala, ahalik eta baldintzarik onenekin lanera daitezen laguntzeko.

Azkenik, egoera bereziki tragikoetan, hala nola lan-istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondoriozko heriotzetan, Mutuak 32.012,41 euro ordaindu zituen kontingentzia horientatik bizitza galdu zuten 12 pertsonaren ehorzketa-gastuak bere gain hartu zituzten familiei.

Prestazio Berezien Batzordeak emandako laguntzen kopurua eta zenbatekoa

		2024		2025	
Esparrua	Laguntza	Zk	Zenbateko	Zk	Zenbateko
Errehabilitazioa eta errekupeazioa	Zentro soziosanitarioan sartzea	2	19.198,52 €	1	3.816 €
	Joan-etorrien gastuak	467	76.946,36 €	400	43.198,22 €
	Protesiak eta laguntza teknikoak	18	45.452,66 €	16	68.699,24 €
	Arautu gabeko terapiak	45	55.700,62 €	32	41.298,92 €
Laneko birorientazioa	Prestakuntza-ikastaroak eta bekak	4	8.848,28 €		
Eguneroko bizitzako ohiko jardueretarako bitartekoak egokitzea	Oztopo arkitektonikoak ezabatzea	2	34.966,86 €	2	11.212,81 €
	Ibilgailuak egokitzea	2	29.005,68 €	2	20.783,10 €
	Etxeko laguntza (aldi baterako ezintasuna eta baliaezintasun handia)	17	50.056,21 €	15	44.752,54 €
kudeaketa zehatz adieraztea. Mutua kolaboratzaileen sektore osoak pairatzen duen kontingentzia arruntei buruzko egiturazko presio-egoera honetan, entitatearen kudeaketa zuhurra izan da, eta epe luzerako jasangarritasunera bideratua.

URTEKO KONTUAK ETA ANALISI FINANTZARIOA

Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten entitateentzako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren egokitzapenari jarraikiz egin eta eman dira 2025eko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak. Egokitzapena Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailetza Nagusiaren 2011ko uztailaren 1eko ebazpen bidez onartu zen, eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei aplikatzen zaie.

Halaber, 2025eko ekitaldian aplikatu beharreko ISM Aginduak arautzen dituen ixte-jarraibideak eta -irizpideak bete dira.

Aurrekontuen Lege Orokorraren 143. eta 168. artikuluen arabera, eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren (8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa) 98.2 artikuluen arabera, Mutualiaren egoera-orri finantzarioak Gizarte Segurantzaren Kontu Hartzailetza Nagusiaren auditoretzaren mende jarri dira. Organismo horrek, sektore publikoko auditore independente gisa dituen eskumenak erabiliz, aldeko iritzia eman du, Gizarte Segurantzaren Ondarearen kudeaketari buruzko salbuespenak salbuespen, eta aldeko iritzia, ondare historikoaren kudeaketari buruzko salbuespenak salbuespen.

EKITALDIAREN EMAITZA

GIZARTE SEGURANTZAREN ONDAREA

2025eko ekitaldian, Mutualiak, Gizarte Segurantzarekiko elkarlanaren esparruan, 601.809,73 euroko emaitza garbia izan du. Emaitza horrek entitateari gomendatutako hiru kudeaketa-arloak —kontingentzia profesionalak, kontingentzia arruntak eta langile autonomoen jarduera-uzteak— batzearen eragina barne hartzen du.

Ondare garbiaren aldaketen egoera-orriaren ondoriozko doikuntzak egin ondoren, zehazki aurreko ekitaldietako emaitzei dagokien 3.651.110,27 euroko aldaketa positiboa eta kuotek sortutako emaitza garbien aldaketen ondoriozko -1.785.321,32 euroko murrizketa, Gizarte Segurantzaren esparruan banatu beharreko azken emaitza 2.467.598,68 eurokoa da, eta langile autonomoen jarduera-uzteen kudeaketari dagokio osorik.

KUDEAKETA ARRUNTAREN DIRU-SARRERAK

Gizarte Segurantzaren kudeaketa arruntaren diru-sarrerak 537.734.177,70 eurokoak izan dira 2025ean, aurreko ekitaldian baino % 6,02 gehiago. Partida

nagusia gizarte-kotizazioenak izaten jarraitzen du, 511.693.375,31 euro, eta gehienbat kotizazio-oinarrien igoerak eta afiliazioaren bilakaera onak ematen diote hauspoa. Kontingentzia profesionalen kotizazioak 340.655.335 eurokoak izan dira (+% 4,23), kontingentzia arruntak 164.143.552 euro (+% 11,19) eta langile autonomoen jarduera-uzteenak 6.894.489 euro +% 0,60).

Zerbitzuen prestazioengatiko diru-sarrerak 1.398.313 eurokoak izan dira, eta batez ere jarduera sanitario propioen etekinak biltzen dituzte. Kudeaketa arruntaren gainerako diru-sarrerak 28.587.612,33 eurokoak izan dira, eta mutuak ekitaldian izandako jardueraren dinamika islatzen du horrek.

KUDEAKETA ARRUNTAREN GASTUAK

Gizarte Segurantzaren kudeaketa arruntaren gastuak 539.910.577,27 eurokoak izan dira 2025ean. Gastuaren osagai nagusia gizarte-prestazioak dira, 314.576.727,14 eurokoak izan baitira (2024rekin alderatuta, +% 9,73). Istripu-tasaren eta kontingentzia arruntek eragindako aldi baterako ezintasunen batez besteko iraupenaren hazkundera barne hartzen du kopuru horrek —

egiturazko eragina du joera horrek sektore osoan—.

Transferentziak eta emandako dirulaguntzak, nagusiki berraseguruen sistemari eta Gizarte Segurantzaren zerbitzu erkideei egindako transferentziak barne hartzen dituztenak, 125.636.487,90 eurokoak izan da (+% 2,64). Pertsonal-gastua 38.308.710,24 eurokoa izan da sektore publikoko langileentzako baimendutako ordainsari-berrikuspenen ondorioz (% 2,41 igo da), ordainsarien arloan indarrean dagoen araudia eta Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideak aplikatuta.

Jarduera asistentzial propiotik eratorritako hornikuntzak 12.351.507,81 eurokoak izan dira (+% 3,23), emandako arreta sanitarioaren bolumenaren ondorioz. Ibilgetuaren amortizazioa 1.769.409,92 eurora murriztu da, eta horrek uneko inbertsio-zikloaren heldutasuna islatzen du.

ERRESERBAK ETA EMAITZA EKONOMIKOAREN BANAKETA

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren (8/2015 Legegintzako

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

Errege Dekretua, urriaren 30ekoa) 95.2, 96.1 eta 118.3 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, eta 2025eko ekitaldiko emaitza aplikatuta, Mutualiaren erreserbak jarraian adierazten diren eran zuzkitu dira.	Behin kontingentzia arrunten eta kontingentzia profesionalen egonkortze erreserba aplikatuta, kontingentzia arrunten defizita konpentsatu da, eta kontingentzia arrunten egonkortze-erreserba zuzkitu da legezko gutxienekoarekin (kobratutako kuoten % 5), hots, 8.158.711,60 euroko zenbatekoarekin. Beraz, aurreko ekitaldiarekiko igoera % 10,87koa da.	Langile autonomoen jarduera-uzteen kudeaketari dagokionez, banatu beharreko emaitza 2.467.598,68 eurokoa izan da. Kopuru horretarik, 7136,26 euro langile autonomoen jarduera-uzteen egonkortze-erreserba zuzkitu da legezko gutxienekoarekin (kobratutako kuoten % 20), eta 2.460.462,42 euro egonkortze-erreserba gehigarria bideratu dira, indarrean dagoen araudia aplikatuta.
2025eko kontingentzia arrunten kudeaketak 113.382.373,39 euroko emaitza negatiboa izan du finantzaketa gehigarria baino lehen. Egoera horrek sektorearen egiturazko eredua erreproduzitzen du; izan ere, kontingentzia arrunten eragindako aldi baterako ezintasuneko gastua tasa nabarmen handiagoetan hazten da diru-bilketa baino. Ondorioz, araudiak aurreikusitako 50.841.550,07 euroko finantzaketa-mekanismoak aktibatu behar izan dira, eta, hala, konpentsatu beharreko defizita banatu beharreko 62.540.823,32 euroko emaitza negatiboa da.	Kontingentzia profesionalen kudeaketan banatu beharreko emaitza positiboa 62.540.823,32 eurokoa da. Soberakin hori, istripu-tasaren hazkunde irmoaren eta prozeduren kudeaketa eraginkorraren ondorio dena, kontingentzia profesionalen egonkortze-erreserba zuzkitzera bideratu da, eta erreserba azken hiru urteko kuoten batez besteko % 22,41 izatera iritsi da; alegia, 72.268.032,51 eurokoa da saldoa.	Aurrekoaren ondorioz, 2026ko urtarrilaren leian, Mutualiako erreserbak beheko bigarren taulan ageri bezala osatuta daude:

Emitza (€)	31-12-2023	31-12-2024	31-12-2025
Ekitaldiaren emaitza	-10.318.550	949.330	-622.789
Aurreko ekitaldietako emaitzaren aldakuntza	5.466.755	2.262.189	4.507.559
Kuotek sortutako emaitza garbien aldakuntza	-334.264	-889.440	-1.417.171
BANATU BEHARREKO EMAITZA	-5.186.059	2.322.079	2.467.599

Erreserba eratuak (€)	01-01-2024	01-01-2025	01-01-2026
Egonkortze-erreserba (KPak)	73.833.472	73.067.921	72.268.033
Gizarte-laguntzako erreserba	6.423.306	5.968.156	5.555.763
Erreserba osagarria (KPak)	0	0	0
Egonkortze-erreserba (KAak)	6.593.273	7.358.823	8.158.712
Egonkortze-erreserba (LAJUak)	1.406.649	1.355.083	1.362.219
Egonkortzeko Erreserba Osagarria (LAJUak)	2.835.732	2.373.645	2.460.462
ERRESERBAK, GUZTIRA	91.092.432	90.123.628	89.805.189

Erreserbak indarrean dagoen Lankidetza Erregelamenduan ezarritako segurtasun-, likidezia- eta errentagarritasun-irizpideen arabera gauzatzen dira.

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

ONDARE HISTORIKOA

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen ondare historikoa osatzen dute 1967an haiek sistema publikoan sartu aurretik sortu ziren ondasunek eta eskubideek. Izaera pribatiboa du, eta mutuei beraiei dagokie titulartasuna, nahiz eta Gizarte Segurantzaren helburuei atxikita egon, eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren zuzendaritzaren eta tutoretzaren mende, indarrean	dagoen arau-esparruaren arabera. Mutualiaren ondare historikoak higiezin aktiboak eta inbertsio finantzarioak hartzen ditu barnean, Gasteizen dagoen aparkaleku batez eta ondare horren ohiko kudeaketari lotutako aktibo arruntez gain. 2025eko ekitaldia ixtean, Mutualiaren ondare historikoari lotutako ondare garbia 48.846.859,42 eurokoa da; hau	da, aurreko ekitaldiaren itxieran baino 612.054,91 euro gehiago (48.234.804,51 euro). Aldaketa hori ekitaldiko zergen ondorengo emaitza garbiaren (759.474,91 euro) eta ondare garbiaren beste aldaketa batzuen (-147.420,00 euro) baturatik lortzen da. Borondatezko erreserba metatuak 48.087.384,51 eurokoak dira, eta argi adierazten dute ondare horren egiturazko kaudimena.
---	---	--

GIZARTE SEGURANTZAREN ETA ONDARE PRIBATIBOAREN BALANTZE INTEGRATUA

AKTIBOAK, GUZTIRA (€)	2023 BERRIRO ADIERAZIA	2024 BERRIRO ADIERAZIA	2025
Aktibo ez-korrontea	81.148.285	80.446.558	77.887.343
Aktibo korrontea	178.419.349	197.109.493	210.302.160
AKTIBOA	259.567.634	277.556.051	288.189.503

KAPITALIZAZIOA, GUZTIRA (€)	2023 BERRIRO ADIERAZIA	2024 BERRIRO ADIERAZIA	2025
Ondare garbia	153.807.674	163.959.185	161.094.448
Pasibo ez-korrontea	4.197.611	4.279.931	4.297.336
Pasibo korrontea	101.562.349	109.316.935	122.797.718
PASIBOA	259.567.634	163.959.185	288.189.503

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

GIZARTE SEGURANTZAREN ETA ONDARE PRIBATIBOAREN EMAITZA INTEGRATUA

KONTZEPTUA (€)	2023	2024	2025
SARRERAK, GUZTIRA	450.149.937	476.921.159	510.865.835
Gizarte-prestazioak eta Gizarte Segurantzaren mantentze-gastuak	397.832.604	409.287.516	443.738.020
Pertsonal-gastuak	35.874.820	37.408.628	38.308.710
Gastu arruntak	25.907.743	28.535.514	28.567.416
GASTUAK, GUZTIRA	459.615.167	475.231.658	510.614.146
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA	-9.465.230	1.689.501	251.689
Emitzen aldakuntza, aurreko ekitaldiekiko	5.466.755	2.262.189	4.507.559
Hornidura/Aplikazioa: berankortasuna	-334.264	-889.440	-1.417.171
ZERGA AURREKO EMAITZA	-4.332.739	3.062.250	3.342.077
Irabazien gaineko zerga	102.722	118.199	115.003
BANATU BEHARREKO EMAITZA	-4.435.462	2.944.051	3.227.074

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

EKITALDIAREN EKONOMIA- ETA FINANTZA-RATIOAK

Mutualiaren azken urteotako ekonomia- eta finantza-ratio garrantzitsuenen bilakaera honako hau izan da:

GIZARTE SEGURANTZA

Ratio ekonomikoak	2023 BERRIRO ADIERAZIA	2024 BERRIRO ADIERAZIA	2025
Funts propioen errendimendua (ROE) (Emitza/LH)	%-9,48	%0,97	%-0,55
Deskonposizioa:			
Marjina (Emitza/Ustiapeneko diru-sarrerak)	%-2,40	%0,25	%-0,12
Aktiboaren errotazioa (Ustiapeneko diru-sarrerak/Aktibo osoa)	2,05	1,97	2,13
Palanka-efektua (guztizko aktiboa/funts propioak)	1,93	1,98	2,13

Finantza-ratioak	2023 BERRIRO ADIERAZIA	2024 BERRIRO ADIERAZIA	2025
Berehalako likidezia (funts likidoak / pasibo korrontea)	0,14	0,12	0,12
Epe laburreko likidezia (funts likidoak + kobratzeke dauden eskubideak / pasibo korrontea)	1,55	1,52	1,47
Likidezia orokorra (aktibo korrontea / pasibo korrontea)	1,56	1,53	1,51
Zorpetzea (pasibo korrontea + pasibo ez-korrontea / pasibo korrontea + pasibo ez-korrontea + ondare garbia)	0,49	0,50	0,53
Zorpetze-erlazioa (pasibo korrontea / pasibo ez-korrontea)	24,52	25,43	28,49
Kutxako fluxua (pasibo ez-korrontea / kudeaketako fluxu garbiak)	2,96	752,19	28,33

Cash-Flow ratioari buruzko oharra: 2024ari dagokion balioa (752,19) GSDOn ekitaldi horretan egindako ezohiko likidazioen ondorioz bereziki murriztutako kudeaketa-fluxu garbiak baldintzatu zuten. 2025eko balioak (27,83) fluxu horien normalizazioa islatzen du, eta erakundearen batez besteko historikoarekiko posizio erlatiboaren terminoetan interpretatu behar da.

ONDARE PRIBATIBOA

Finantza-ratioak	2023 BERRIRO ADIERAZIA	2024 BERRIRO ADIERAZIA	2025
Likidezia orokorra (aktibo korrontea / pasibo korrontea)	87,24	40,70	70,70
Zorpetzea (pasibo korrontea + pasibo ez-korrontea / pasibo korrontea + pasibo ez-korrontea + ondare garbia)	0,006	0,013	0,008

Ondare Historikoaren ratioek kaudimen-posizio oso sendoa erakusten dute, zorpetze-indizea 0,008koa eta likidezia orokorra 70,70ekoa izanik, ondare horren izaerarekin eta bere aktiboen osaerarekin koherenteak, gehienbat finantzarioak eta higiezinak.

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

URTEKO KONTUAK, 2025

EGOERAREN BALANTZEA, 2025. GIZARTE SEGURANTZAREN ONDAREAREN KUDEAKETA

AKTIBOA (€)		2024 BERRIRO ADIERAZIA	2025
A)	Aktibo ez-korrontea	57.490.696,20	55.041.662,11
I.	Ibilgetu ukiezina	2.152.841,78	2.845.453,80
1.	Ikerketa eta garapeneko inbertsioa	0,00	0,00
2.	Jabetza industrial eta intelektual	0,00	0,00
3.	Aplikazio informatikoak	1.964.278,39	2.709.109,57
4.	Errentamendu- edo lagapen-araubidean erabilitako aktiboen gaineko inbertsioak	188.563,39	136.344,23
5.	Beste ibilgetu ukiezin bat	0,00	0,00
II.	Ibilgetu materiala	11.146.572,59	10.527.340,43
1.	Lurrak	595.847,84	595.847,84
2.	Eraikinak	3.447.901,16	3.414.701,02
5.	Beste ibilgetu material bat	7.102.823,59	6.516.791,57
6.	Bidean den ibilgetua eta aurrerakinak	0,00	0,00
III.	Higiezinetak inbertsioak	0,00	0,00
1.	Lurrak	0,00	0,00
2.	Eraikinak	0,00	0,00
3.	Bidean diren higiezinetak inbertsioak eta aurrerakinak	0,00	0,00
IV.	Epe luzeko finantza-inbertsioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan	0,00	0,00
1.	Zuzenbide publikoko erakundeen ondareko finantza-inbertsioak	0,00	0,00
4.	Beste inbertsio batzuk	0,00	0,00
V.	Epe luzeko finantza-inbertsioak	44.176.457,20	41.646.039,60
1.	Ondarean egindako finantza-inbertsioak	0,00	0,00
2.	Zorraz adierazten dituzten baloreak eta kredituak	44.151.899,18	41.628.685,05
4.	Beste finantza-inbertsio batzuk	24.558,02	17.354,55
VI.	Zordunak eta epe luzera kobratzeko beste kontu batzuk	14.824,63	22.828,28

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

URTEKO KONTUAK, 2025

EGOERAREN BALANTZEA, 2025. GIZARTE SEGURANTZAREN ONDAREAREN KUDEAKETA

AKTIBOA (€)		2024 BERRIRO ADIERAZIA	2025
B)	Aktibo korrontea	171.193.846,72	183.927.936,69
I.	Salgai dauden aktiboak	364.048,00	349.681,36
II.	Izakinak	126.506,14	123.279,50
1.	Farmazia-produktuak	37.336,26	39.126,50
2.	Kontsumoko osasun-materiala	88.658,08	83.536,05
3.	Beste hornikuntza batzuk	511,80	616,95
III.	Zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	157.134.563,17	165.073.776,48
1.	Kudeaketa-eragiketengatiko zordunak	7.906.838,52	6.796.392,19
2.	Kobratzeko beste kontu batzuk	149.120.935,27	158.164.629,40
3.	Administrazio publikoak	106.789,38	112.754,89
4.	Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideen administrazioarengatiko zordunak	0,00	0,00
V.	Epe laburreko finantza-inbertsioak	364.597,55	3.261.184,03
1.	Ondarean egindako finantza-inbertsioak	0,00	0,00
2.	Zorrak adierazten dituzten baloreak eta kredituak	355.671,02	3.251.573,48
4.	Beste finantza-inbertsio batzuk	8.926,53	9.610,55
VI.	Periodifikatzeagatiko doikuntzak	323.004,05	371.554,43
VII.	Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	12.881.127,81	14.748.460,89
1.	Beste aktibo likido baliokide batzuk	0,00	0,00
2.	Diruzaintza	12.881.127,81	14.748.460,89
AKTIBOA, GUZTIRA		228.684.542,92	238.969.598,80

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

URTEKO KONTUAK, 2025

EGOERAREN BALANTZEA, 2025. GIZARTE SEGURANTZAREN ONDAREAREN KUDEAKETA

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA (€)		2024 BERRIRO ADIERAZIA	2025
A)	Ondare garbia	115.724.380,65	112.247.589,04
I.	Ekarritako ondarea	0,00	0,00
II.	Sortutako ondarea	115.425.612,09	112.016.785,11
1.	Erreserbak	90.319.344,95	89.855.386,12
2.	Aurreko ekitaldietako emaitzak	23.136.050,26	22.784.188,10
3.	Ekitaldiko emaitzak	1.970.216,88	-622.789,11
III.	Balio-aldaketengatiko doikuntzak	0,00	0,00
1.	Ibilgetu ez-finantzarioa	0,00	0,00
2.	Saltzeko moduan dauden finantza-aktiboak	0,00	0,00
IV.	Emaitzei egotzi gabeko beste ondare-gehikuntza batzuk	298.768,56	230.803,93
B)	Pasibo ez-korrontea	4.279.931,30	4.297.336,16
I.	Epe luzeko hornikuntzak	4.279.931,30	4.297.336,16
II.	Epe luzeko zorrak	0,00	0,00
2.	Kreditu-erakundeekiko zorrak	0,00	0,00
4.	Beste zor batzuk	0,00	0,00
5.	Epe luzeko finantza-errentamenduengatiko hartzekodunak	0,00	0,00
V.	Epe luzeko periodifikatzeagatiko doikuntzak	0,00	0,00
C)	Pasibo korrontea	108.680.230,97	122.424.673,60
I.	Epe laburreko hornikuntzak	26.704.914,03	34.067.410,43
II.	Epe laburreko zorrak	706.818,26	292.266,43
2.	Kreditu-erakundeekiko zorra	0,00	0,00
4.	Beste zor batzuk	706.818,26	292.266,43
5.	Epe laburreko finantza-errentamenduengatiko hartzekodunak	0,00	0,00
IV.	Hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk	81.268.498,68	88.064.996,74
1.	Kudeaketa-eragiketen hartzekodunak	8.638.248,34	9.483.108,67
2.	Ordaintzeko beste kontu batzuk	69.604.504,66	75.786.170,63
3.	Administrazio publikoak	3.025.745,68	2.795.717,44
4.	Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabide-administrazioagatiko hartzekodunak	0,00	0,00
V.	Periodifikatzeagatiko doikuntzak	0,00	0,00
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		228.684.542,92	238.969.598,80

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

URTEKO KONTUAK, 2025

EGOERAREN BALANTZEA, 2025. GIZARTE SEGURANTZAREN ONDAREAREN KUDEAKETA

KONTZEPTUA (€)		2024 BERRIRO ADIERAZIA	2025
1.	Gizarte-kotizazioak	481.305.542,34	511.693.375,31
2.	Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	-3.621.407,26	-4.950.396,21
3.	Zerbitzu-prestazioak	1.315.476,46	1.398.313,00
4.	Erakundeak bere ibilgeturako egindako lanak	0,00	0,00
5.	Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk	26.068.003,39	28.587.612,33
6.	Hornikuntza-soberakinak	2.120.857,57	1.005.273,27
A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK, GUZTIRA		507.188.472,50	537.734.177,70
7.	Gizarte-prestazioak	-286.689.614,13	-314.576.727,14
8.	Langileen gastuak	-37.408.628,06	-38.308.710,24
9.	Emandako transferentziak eta dirulaguntzak	-122.400.748,78	-125.636.487,90
10.	Hornikuntzak	-11.964.478,86	-12.351.507,81
11.	Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-47.154.351,62	-47.267.734,26
12.	Ibilgetuaren amortizazioa	-1.895.272,77	-1.769.409,92
B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA		-507.513.094,22	-539.910.577,27
I.- KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA		-324.621,72	-2.176.399,57
13.	Ibilgetu ez-finantzarioaren eta salgai dauden aktiboen balio-narriadura eta haiek besterentzearen ondoriozko emaitzak	-38.461,48	-43.709,97
14.	Ezohiko beste sail batzuk	493.944,22	729.254,92
II.- ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA		130.861,02	-1.490.854,62
15.	Finantza-sarrerak	1.051.704,41	887.419,48
16.	Finantza-gastuak	-585,74	-405,78
17.	Aktiboari egotzitako finantza-gastuak	0,00	0,00
18.	Finantza-aktiboen arrazoizko balioaren aldakuntza	-232.649,33	-18.948,19
19.	Aldaketa-diferentziak	0,00	0,00
20.	Finantza-aktibo eta -pasiboen balio-narriadura, bajak eta besterentzeak	0,00	0,00
III.- FINANTZA-ERAGIKETEN EMAITZA		818.469,34	868.065,51
IV. EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA		949.330,36	-622.789,11
±	AURREKO EKITALDIKO EMAITZEN KONTUKO DOIKUNTZAK	1.020.886,52	0,00
VI. AURREKO EKITALDIKO EMAITZA DOITUA		1.970.216,88	-622.789,11

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

URTEKO KONTUAK, 2025

ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA, 2025. GIZARTE SEGURANTZAREN ONDAREAREN KUDEAKETA

KONTZEPTUA (€)		I. Ekarritako ondarea	II. Sortutako ondarea	III. Balio- aldake- tengatiko doikuntzak	IV. Beste ondare- gehikuntza batzuk	GUZTIRA
A.	2024KO EKITALDIAREN AMAIERAKO ONDARE GARBIA	0,00	110.918.053,08	0,00	298.768,56	111.216.821,64
B.	KONTABILITATEKO IRIZPIDEAK ALDATU ETA AKATSAK ZUZENTZEAGATIKO DOIKUNTZAK	0,00	4.507.559,01	0,00	0,00	4.507.559,01
C.	2025KO EKITALDIKO HASIERAKO ONDARE GARBIA DOITUA (A+B)	0,00	115.425.612,09	0,00	298.768,56	115.724.380,65
D.	2025KO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZAK	0,00	-3.408.826,98	0,00	-67.964,63	-3.476.791,61
1. Ekitaldian aitortutako sarrerak eta gastuak		0,00	-622.789,11	0,00	-67.964,63	-690.753,74
2. Erakunde jabeekiko eragiketak		0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3. Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk		0,00	-2.786.037,87	0,00	0,00	-2.786.037,87
E.	2025KO EKITALDIAREN AMAIERAKO ONDARE GARBIA (C+D)	0,00	112.016.785,11	0,00	230.803,93	112.247.589,04

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

URTEKO KONTUAK, 2025

EGOERAREN BALANTZEA, 2025. ONDARE PRIBATIBOAREN KUDEAKETA

AKTIBOA (€)		2024 BERRIRO ADIERAZIA	2025
A)	Aktibo ez-korrontea	22.955.861,93	22.845.681,16
I.	Ibilgetu ukiezina	0,00	0,00
1.	Ikerketa eta garapeneko inbertsioa	0,00	0,00
2.	Jabetza industrial eta intelektual	0,00	0,00
3.	Aplikazio informatikoak	0,00	0,00
4.	Errentamendu- edo lagapen-araubidean erabilitako aktiboen gaineko inbertsioak	0,00	0,00
5.	Beste ibilgetu ukiezin bat	0,00	0,00
II.	Ibilgetu materiala	22.024.293,96	22.186.959,75
1.	Lurrak	10.681.130,08	10.681.130,08
2.	Eraikinak	9.993.457,93	10.069.348,56
5.	Beste ibilgetu material bat	188.152,00	191.927,16
6.	Bidean den ibilgetua eta aurrerakinak	1.161.553,95	1.244.553,95
III.	Higiezineta inbertsioak	633.998,50	629.421,41
1.	Lurrak	222.838,06	222.838,06
2.	Eraikinak	411.160,44	406.583,35
3.	Bidean diren higiezineta inbertsioak eta aurrerakinak	0,00	0,00
IV.	Epe luzeko finantza-inbertsioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan	0,00	0,00
1.	Zuzenbide publikoko erakundeen ondareko finantza-inbertsioak	0,00	0,00
4.	Beste inbertsio batzuk	0,00	0,00
V.	Epe luzeko finantza-inbertsioak	297.569,47	29.300,00
1.	Ondarean egindako finantza-inbertsioak	0,00	0,00
2.	Zorrak adierazten dituzten baloreak eta kredituak	27.000,00	27.000,00
4.	Beste finantza-inbertsio batzuk	270.569,47	2.300,00
VI.	Zordunak eta epe luzera kobratzeko beste kontu batzuk	0,00	0,00

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

URTEKO KONTUAK, 2025

EGOERAREN BALANTZEA, 2025. ONDARE PRIBATIBOAREN KUDEAKETA

AKTIBOA (€)		2024 BERRIRO ADIERAZIA	2025
B)	Aktibo korrontea	25.915.646,17	26.374.222,99
I.	Salgai dauden aktiboak	0,00	294.454,30
II.	Izakinak	0,00	0,00
1.	Farmazia-produktuak	0,00	0,00
2.	Kontsumoko osasun-materiala	0,00	0,00
3.	Beste hornikuntza batzuk	0,00	0,00
III.	Zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	7.290.203,00	3.280.402,50
1.	Kudeaketa-eragiketengatiko zordunak	0,00	0,00
2.	Kobratzeko beste kontu batzuk	7.290.203,00	3.280.402,50
3.	Administrazio publikoak	0,00	0,00
4.	Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideen administrazioarengatiko zordunak	0,00	0,00
V.	Epe laburreko finantza-inbertsioak	17.710.505,04	19.449.839,71
1.	Ondarean egindako finantza-inbertsioak	0,00	0,00
2.	Zorrak adierazten dituzten baloreak eta kredituak	17.710.505,04	19.449.839,71
4.	Beste finantza-inbertsio batzuk	0,00	0,00
VI.	Periodifikatzeagatiko doikuntzak	0,00	0,00
VII.	Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	914.938,13	3.349.526,48
1.	Beste aktibo likido baliokide batzuk	0,00	2.603.487,56
2.	Diruzaintza	914.938,13	746.038,92
AKTIBOA, GUZTIRA		48.871.508,10	49.219.904,15

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

URTEKO KONTUAK, 2025

EGOERAREN BALANTZEA, 2025. ONDARE PRIBATIBOAREN KUDEAKETA

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA (€)		2024 BERRIRO ADIERAZIA	2025
A)	Ondare garbia	48.234.804,51	48.846.859,42
I.	Ekarritako ondarea	0,00	0,00
II.	Sortutako ondarea	48.234.804,51	48.846.859,42
1.	Erreserbak	47.612.832,71	48.087.384,51
2.	Aurreko ekitaldietako emaitzak	0,00	0,00
3.	Ekitaldiko emaitzak	621.971,80	759.474,91
III.	Balio-aldaketengatiko doikuntzak	0,00	0,00
1.	Ibilgetu ez-finantzarioa	0,00	0,00
2.	Saltzeko moduan dauden finantza-aktiboak	0,00	0,00
IV.	Emaitzei egotzi gabeko beste ondare-gehikuntza batzuk	0,00	0,00
B)	Pasibo ez-korrontea	0,00	0,00
I.	Epe luzeko hornikuntzak	0,00	0,00
II.	Epe luzeko zorrak	0,00	0,00
2.	Kreditu-erakundeekiko zorrak	0,00	0,00
4.	Beste zor batzuk	0,00	0,00
5.	Epe luzeko finantza-errentamenduengatiko hartzekodunak	0,00	0,00
V.	Epe luzeko periodifikatzeagatiko doikuntzak	0,00	0,00
C)	Pasibo korrontea	636.703,59	373.044,73
I.	Epe laburreko hornikuntzak	483.334,50	257.000,00
II.	Epe laburreko zorrak	0,00	0,00
2.	Kreditu-erakundeekiko zorra	0,00	0,00
4.	Beste zor batzuk	0,00	0,00
5.	Epe laburreko finantza-errentamenduengatiko hartzekodunak	0,00	0,00
IV.	Hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk	153.369,09	116.044,73
1.	Kudeaketa-eragiketen hartzekodunak	0,00	0,00
2.	Ordaintzeko beste kontu batzuk	42.084,60	446,02
3.	Administrazio publikoak	111.284,49	115.598,71
4.	Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabide-administrazioagatiko hartzekodunak	0,00	0,00
V.	Periodifikatzeagatiko doikuntzak	0,00	0,00
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		48.871.508,10	49.219.904,15

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

URTEKO KONTUAK, 2025

EMAITZEN KONTUA, 2025. ONDARE PRIVATIBOAREN KUDEAKETA

KONTZEPTUA (€)		2024 BERRIRO ADIERAZIA	2025
1.	Gizarte-kotizazioak	0,00	0,00
2.	Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	4.444,88	0,00
3.	Zerbitzu-prestazioak	0,00	0,00
4.	Erakundeak bere ibilgeturako egindako lanak	0,00	0,00
5.	Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk	1.639.877,62	1.120.419,69
6.	Hornikuntza-soberakinak	160.837,70	483.334,50
A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK, GUZTIRA		1.805.160,20	1.603.754,19
7.	Gizarte-prestazioak	0,00	0,00
8.	Langileen gastuak	0,00	0,00
9.	Emandako transferentziak eta dirulaguntzak	0,00	0,00
10.	Hornikuntzak	0,00	0,00
11.	Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-1.439.986,34	-1.001.627,26
12.	Ibilgetuaren amortizazioa	-140.554,29	-143.027,81
B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA		-1.580.540,63	-1.144.655,07
I.- KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA		224.619,57	459.099,12
13.	Ibilgetu ez-finantzarioaren eta salgai dauden aktiboen balio-narriadura eta haiek besterentzearen ondoriozko emaitzak	0,00	0,00
14.	Ezohiko beste sail batzuk	-1.391,66	-430,36
II.- ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA		223.227,91	458.668,76
15.	Finantza-sarrerak	516.943,17	416.334,35
16.	Finantza-gastuak	0,00	-525,23
17.	Aktiboari egotzitako finantza-gastuak	0,00	0,00
18.	Finantza-aktiboen arrazoizko balioaren aldakuntza	0,00	0,00
19.	Aldaketa-diferentziak	0,00	0,00
20.	Finantza-aktibo eta -pasiboen balio-narriadura, bajak eta besterentzeak	0,00	0,00
III.- FINANTZA-ERAGIKETEN EMAITZA		516.943,17	415.809,12
IV.- EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA		740.171,08	874.477,88
21.	Irabazien gaineko zerga	-118.199,28	-115.002,97
V.- EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA, ZERGEN ONDOREN		621.971,80	759.474,91
+-. AURREKO EKITALDIKO EMAITZEN KONTUKO DOIKUNTZAK		-	-
VI.- AURREKO EKITALDIKO EMAITZA DOITUA		621.971,80	759.474,91

9. Urteko kontuak eta finantza-analisia

URTEKO KONTUAK, 2025

ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA, 2025. ONDARE PRIBATIBOAREN KUDEAKETA

KONTZEPTUA (€)		I. Ekarritako ondarea	II. Sortutako ondarea	III. Balio- aldake- tengatiko	IV. Beste ondare- gehikuntza batzuk	GUZTIRA
A.	2024KO EKITALDIAREN AMAIERAKO ONDARE GARBIA	0,00	48.234.804,51	0,00	0,00	48.234.804,51
B.	KONTABILITATEKO IRIZPIDEAK ALDATU ETA AKATSAK ZUZENTZEAGATIKO DOIKUNTZAK	0,00				0,00
C.	2025KO EKITALDIKO HASIERAKO ONDARE GARBIA DOITUA (A+B)	0,00	48.234.804,51	0,00	0,00	48.234.804,51
D.	2025KO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZAK	0,00	612.054,91	0,00	0,00	612.054,91
	1. Ekitaldian aitortutako sarrerak eta gastuak	0,00	759.474,91			759.474,91
	2. Erakunde jabeekiko eragiketak	0,00				0,00
	3. Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk	0,00	-147.420,00			-147.420,00
E.	2025KO EKITALDIAREN AMAIERAKO ONDARE GARBIA (C+D)	0,00	48.846.859,42	0,00	0,00	48.846.859,42

Eranskinak

Legegintza- nobedadeak eta arau-esparrua 2025

Hasteko, gogoratu behar da 2024ko azken egunetan eragina izan zuela mutuen arau-esparruan, eta, horrenbestez, haien jardueran, abenduaren 26ko PJC/1473/2024 Aginduaren argitalpenak. PJC/1473/2024 Aginduak urtarrilaren 29ko PJC/51/2024 Agindua –Gizarte Segurantzaren kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatiko babesari, Soldatak Bermatzeko Funtsari eta 2024ko ekitaldirako lanbide-heziketari buruzko lege-arauak garatzen dituenak– aldatzen du; izan ere, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek behar besteko nahikotasun ekonomikoari eusteko jasotzen duten kuota-frakzioa handitzea ekarri zuen aldaketa horrek.

Horregatik, garrantzitsua da aipatzea 2025eko urtarrilaren 10eko BOEn argitaratu zela Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren 2024ko abenduaren 27ko Ebazpena, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei gertakari arruntetatik eratorritako aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoa kudeatzeko koefizienteak aplikatzeko baldintzak ezartzeko; izan ere, ebazpen horren bidez zehazten dira Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei gertakari arruntetatik eratorritako aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoa kudeatzeko koefizienteak aplikatzearen ondoriozko berrikuntzak, jarraibide batzuk emateaz gainera, 2024an koefiziente berriak eskuratzeko betekizunei eta kondizioei dagokienez.

Ondoren, ekainaren 20ko PJC/656/2025 Aginduak aipatutako PJC/51/2024 Agindua aldatu zuen; hala, haren 24. artikuluari idazketa berria eman zion, kuota-frakzioa zehazteari buruzkoa. Horregatik, ezinbestean argitaratu behar zen Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren 2025eko ekainaren 24ko Ebazpena, kontingentzia arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoa kudeatzeko koefizienteak Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei aplikatzeko baldintzak ezartzen dituenak. Azken arau horrek indargabetu egin zuen arestian

aipatutako 2024ko abenduaren 27ko Ebazpena.

Era berean, 2025ean argitaratu zen gai garrantzitsu gisa, 2026ko urtarrilaren 1erako aurreikusitako ondorio-hasierarako datarekin, abenduaren 23ko 16/2025 Errege Lege Dekretua aipatu behar da, gizarte-kalteberatasuneko egoerei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituenak eta zergen eta Gizarte Segurantzaren arloan premiazko neurriak hartzen dituenak, Azken Xedapenetatik lehenengoaren medioz Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina aldatzen baitzuen, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin (adierazi dugun bezala), “Laneko istripuengatik eta gaixotasun profesionalengatik Gizarte Segurantzaren kotizatzeko primen tarifa” berri bat ezartzeko aldera.

Nolanahi ere, 16/2025 Errege Lege Dekretua ez zuenez baliozkotu Diputatuen Kongresuak, indargabetu egin zen azkenik. Primen tarifa berria otsailaren 3ko 3/2026 Errege Lege Dekretuaren –pentsio publikoen balioa handitzeari eta Gizarte Segurantzaren arloko premiazko beste neurri batzuei buruzkoaren– medioz onetsi zen behin betiko, 2026ko urtarrilaren 1eko ondorioekin; zehazki, 2026ko otsailaren 26an baliozkotu zen 3/2026 Errege Lege Dekretua.

2025ean Adimen Artifizialaren –AA– (EB) 2024/1689 ERREGELAMENDUaren zenbait xedapen indarrean jarri dira, efektibotasunez jada, bereziki, haren xedapen orokorrak eta AAren erabilera debekatuei buruzko alderdiak, bai eta AAn alfabetatzea bermatzeko eginbideak ere administrazioentzat. Gainerako xedapenei dagokienez, AAren 113. artikulua berak ezartzen ditu hurrengo urteetan arian-arian arauaren xedapen horiek aplikatzeko epeak, baina beste kontu aipagarri bat da 2025aren amaieran omnibus digital pakete bat izapidetuko zela iragarri zela, eta litekeena dela AAren aurreikuspen batzuk aldatzea eta indarrean jartzeko data batzuetan eragina izatea. Garrantzitsua da AAren xedapenen bilakaerari eta ezarpen-datei jarraipen estua egitea, garrantzitsuak izateaz gain (orokorrean),

datozen urteotan Mutualiaren jarduerarekin lotutako hainbat alderditan izango baitu horrek eragina.

Gainerakoan, aurreko urteetan gertatu izan den bezala, gure jardueran eragina izan lezaketen ezohiko lege-neurriei dagokienez, mutuen ohiko prestazioen kudeaketaz gain, aipatzekoa da ezohiko hainbat gertakizun eta egoerak eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko hainbat neurri indarrean jarraitu dutela edo luzatuz joan direla eta beste batzuk ere ezarri direla, adibidez, hainbat udalerritan 2024ko urriaren 28tik azaroaren 4ra bitartean jazotako goi-geruzetako depresio isolatuak (GOIDI) eragindako kalteen eta ondorioekin lotutakoak. Azken kasu horretan, neurriak oso lurralde-eremu zehatzei dagozkie, eta, horrenbestez, araudi horrek Mutualiaren jardueran izan duen eragina oso mugatua izan da, ia deuseza.

Nolanahi ere, 2025ean zehar, ezohiko egoera jakin batzuek eragin ditzaketen babes-premia bereziak babesteko indarrean egon den arau orokorra GSOren 331.1.b) artikuluan sartutako aurreikuspena izan da, zeinak honako hau berariaz jasotzen baitu ezinbesteko kasu gisa: «Aldi baterako etete partzialean ezinbesteko arrazoiak daudela ulertuko da enpresaren jardura eteteak sektore edo lan-zentro bati eragiten dionean, agintari publiko eskudunak larrialdi-aitorpena ezartzen duenean, (...)».

2025ean, COVID-19ak sortutako egoera ekonomikoak zehaztutako jardura uzteagatiko ezohiko prestazioen berrikuspenarekin lotutako jarduketak egiten jarraitu dute mutuek (aurreko aldietan behin-behinean aitortu ziren horiek). Hori guztia 2020tik 2022ra prestazio hori erregulatu zuten arauetan ezarritakoaren arabera.

Arestian aipatutako zirkunstantziekin berariaz lotu gabeko araudiari dagokionez, 2025eko ekitaldian argitaratutako eta mutuei aplikatu beharreko xedapen garrantzitsuenak nabarmenduko ditugu jarraian:

10.1 Legegintza-nobedadeak eta arau-esparrua 2025

1/2025 Lege Organikoa, urtarrilaren 2koa, Justiziaren Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren Arloko Neurriena. (2025eko urtarrilaren 3ko BOE) - Ebazpena, 2024ko abenduaren 27koa, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiarena, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei gertakari arruntetatik eratorritako aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoa kudeatzeko koefizienteak aplikatzeko baldintzak ezartzekoa. (2025eko urtarrilaren 10eko BOE) - Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 22koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez ematen baita Erretiro-pentsioaren eta lanaren arteko bateragarritasuna hobetzeko abenduaren 23ko 11/2024 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agindua. (2025eko urtarrilaren 23ko BOE) - ISM/87/2025 Agindua, urtarrilaren 20koa, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko bigarren eta hirugarren taldeetako langileen Gizarte Segurantzako 2025. urterako kotizazio-oinarriak ezartzen dituen. (2025eko urtarrilaren 31ko BOE) 87/2025 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, 2025erako lanbidearteko gutxieneko soldata finkatzen duena. (2025eko otsailaren 12ko BOE) 100/2025 Errege Dekretua, otsailaren 18koa, Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtzaren erregulazioa eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentearen ebaluazio-txostenak garatzen dituen. (2025eko otsailaren 19ko BOE) 101/2025 Errege Dekretua, otsailaren 18koa, zeinaren bidez Laborategi Klinikoko espezialistaren titulua ezarri eta Analisi Klinikotako eta Biokimika Klinikoko Osasun Zientzietako espezialistaren tituluak kentzen baita. (2025eko otsailaren 19ko BOE) - PJC/178/2025 Agindua, otsailaren 25koa, 2025 ekitaldirako Gizarte Segurantzako kotizazioen, langabeziaren, jarduera uzteagatiko babesaren, Soldatak Bermatzeko Funtzaren eta lanbide-heziketaren gaineko lege-arauak garatzen dituen. (2025eko otsailaren 26ko BOE) - Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2025/327 Erregelamendua, 2025eko otsailaren 11koa, Osasun Datuen Europako Esparruari buruzkoa, 2011/24/EB Zuzentaraua eta 2024/2847 (EB) Erregelamendua aldatzen dituen (testu egokia Europako Esparru Ekonomikoaren ondorioetarako) (2025eko martxoaren 5eko EBAO). 1/2025 Legea, apirilaren 1ekoa, Elikagaiak Galtzea eta Alferrik Galtzea Prebenitzeari buruzkoa (azken xedapenetako	hamaikagarrenaren bidez, Langileen Estatutuaren Legearen 15. artikulua 2. paragrafoa aldatu da) (2025eko apirilaren 2ko BOE). 254/2025 Errege Dekretua, apirilaren 1ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita 1007/2023 Errege Dekretua, abenduaren 5ekoa, zeinaren bidez onesten baitira enpresaburuen eta profesionalen fakturazio-prozesuak jasaten dituzten sistema eta programa informatikoez edo elektronikoez hartu beharreko betekizunak eta fakturazio-erregistroen formatu-estandarizazioa ezartzen dituen erregelamendua. (2025eko apirilaren 2ko BOE) 255/2025 Errege Dekretua, apirilaren 1ekoa, Nortasun Agiri Nazionala arautzen duena. (2025eko apirilaren 2ko BOE) 316/2025 Errege Dekretua, apirilaren 15ekoa, pentsio publikoen hasierako zenbatekoa mugatzeari buruzkoa eta Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen, Estatuko Klase Pasiboen pentsioen eta beste gizarte-prestazio publiko batzuen balioa handitzeari buruzkoa 2025erako. (2026ko apirilaren 16ko BOE) - Ebazpena, 2025eko apirilaren 9koa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, zeinaren bidez ezartzen baita Gizarte Segurantzaren langileen alta- eta baja-prozedura jakin batzuen ebazpenen izapidetze elektronikoa automatizatua. (2025eko apirilaren 16ko BOE) - SND/380/2025 Agindua, apirilaren 14koa, zeinaren bidez substantzia berriak txertatzen baitira urriaren 6ko 2829/1977 Errege Dekretuaren –substantzia eta prestakin sendagarri psikotropikoak eta haien fabrikazioaren, banaketaren, preskripzioaren eta salmentaren fiskalizazioa eta ikuskapena arautzen dituenaren– 1. eranskinean. (2025eko apirilaren 22ko BOE) 2/2025 Legea, apirilaren 29koa, zeinaz aldatzen baitira, batetik, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina –urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia–, langileen ezintasun iraunkorragatik lan-kontratua azkentzearen arloan, eta, bestetik, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina –urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia– ezintasun iraunkorren arloan. OHARRA: Berritasuna da baliaezintasun handi, ezintasun iraunkor absolutu edo ezintasun iraunkor oso baten behin betiko deklarazioak ez dakarrela berez lan-kontratua iraungitzea, baizik eta enpresak (GSINak ezintasun iraunkorrari buruzko ebazpena jakinarazten duenetik 10 eguneko epean langileak eskatuta) arrazoizko doikuntzak egiten saiatu behar duela (enpresarentzat gehiegizko karga denean	izan ezik) –horretarako 3 hilabete ditu– langilea lanpostu huts eta libre batera egokitzeko, haren lanbide-profilarekin bat eta haren egoera berriarekin bateragarria den moduan (edo aukera hori egonda langileak behar bezala proposatutako lanpostu-aldaketa errefusatzeko duenean). Enpresak erabakia jakinarazteko dituen 3 hilabete horietan (egokitzapen posiblea edo ez), lan-kontratua etenda egongo da. (2025eko apirilaren 30eko BOE) - PJC/414/2025 Agindua, apirilaren 30ekoa, zeinaren bidez Ministro Kontseiluaren 2025eko apirilaren 30eko Erabakia –2025eko apirilaren 28an gertatutako hornidura elektrikoaren etenaldi orokorraren ondoriozko administrazio-terminoen eta –epeen luzapenaren aplikazioa zehaztekoa– argitaratzen baita (2025eko maiatzaren 1eko BOE). - Ebazpena, 2025eko apirilaren 28koa, Idazkaritza Nagusi Teknikoarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren, Itsasoko Gizarte Institutuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko hitzarmena, osasun-zerbitzu publikoek Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta Itsasoko Gizarte Institutuaren administrazio-espedienteen txosten medikoak telematikoki eskuratzeko. (2025eko maiatzaren 6ko BOE) - Ebazpena, 2025eko ekainaren 19koa, Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetza Nagusiarena, honako ebazpen hauek aldatzen dituen: 2011ko uztailaren 1eko Ebazpena, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra Gizarte Segurantzaren sistemako erakundeei egokitzea onesten duena; 2014ko uztailaren 3ko Ebazpena, Gizarte Segurantzaren sistemako erakundeentzako kontabilitate-kudeaketaren instrukzioa onesten duena; eta 2022ko urriaren 11ko Ebazpena, Gizarte Segurantzaren sistemako erakundeentzako kontabilitate-eragiketen instrukzioa onesten duena (2025eko ekainaren 27ko BOE). - Ebazpena, 2025eko maiatzaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiarena, gertakari arruntan ondoriozko aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoa kudeatzeko koefizienteak Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei aplikatzeko baldintzak ezartzen dituen. (2025eko ekainaren 30ekoa) 5/2025 Legea, uztailaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Motordun ibilgailuen zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Legearen testu bategina, urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia, eta uztailaren 14ko 20/2015 Legea, Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena.
--	---	---

10.1 Legegintza-nobedadeak eta arau-esparrua 2025

